goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-09-21
EGUBAKOITZA
522. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Greba ez den beste zer egin dezakegu?"

Amaia Muñoa | ELAko idazkari nagusiaren ondokoa | 8

Velasco talde bila dabil, halabeharrez | 28

Iban Velasco. | XABIER URTZELAI

Mugikortasun Asteko ekintza 'izarrak' asteburuan Arrasaten | 13

Euskaldunon komunitateaz jardungo dute Arrasaten | 31

Elgetako Sagardo Egunerako ekitaldi mordoa prestatu dituzte | 27

Jesus Mari Plazaola eta *Gure* txakurra, Arrasateko Udala auzoan.

ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA, INDARTSUAGO

Prezio merkeagoan eta ekitaldi erakargarriekin borobildu dute Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa, ikusleak erakartzeko. Bestalde, ibarreko ordezkaritza ere izango da, Jesus Mari Plazaola arrasatearraren eskutik | 10

XABIER URTZELAI

Asmakizunak ekintzetara eroandako ideia berriak

Proiektuetako bat. | GOIATZ ARANA

Azkenaldian hainbat ideia berritzaile hezur-haragitu dira ibarrean: Chufamixa, Baltistanerako azpiegiturak eta etxeko olioa batzeko poteak eta makinak. Mondragon Unibertsitateak pisu handia du emaitza batzuetan. Urrun barik, domekara arte zabalik da Kimu Berri ideien erakusketa, Arrasaten. | 2

SINADURAK

Armageddon | 6
DIEGO MARTIARTU

6 | **Krisiaren onurak**
USOA AGIRRE

Ezkertiarrak eta eskumakoak | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

☎ 943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • *hemen@hemen-garbiketak.com*

Passat Alltrack berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto.

Asmakizunak: ekintzetara eroandako ideia on eta berriak

- Baltistanerako azpiegiturak garatu ditu ikasle batek
- Ideiatik proiektua egiterako bidea ez da beti erraza

Nahia Belloso, Baltistango (Pakistan) bizilagunendako asmatu duen sukaldea zelan mun

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gauza berriak asmatzeko grina sekula ez dago krisian; aitzitik, krisi ekonomikoan suspertu egiten da. Eta ideia horiek praktikara eramaten direnean, ez dira beti diru-irabaziak ateratzeko erabiltzen, izan ere, etekin edo irabazi soziala ere izan dezakete.

Azkenaldian hainbat ideia berritzaile hezur-haragitu dira Debagoienean. Horietako batek Pakistango Baltistan bailarako jendeari –batez ere, emakumeei– bizimodua hobetu die. Mondragon Unibertsitateak Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingenieritza gradua ematen du, eta horixe ikasi du Nahia Belloso Sancet 22 urteko iruindarrak. Gradu Bukaerako Lan gisa, Baltistan Fundazioaren laguntzarekin, Baltistango biztanleendako komun lehorra eta sukaldea garatu ditu. Horretan eman du azken urtea, eta Baltistango Hushe bailaran hilabete baino gutxiago eman du.

Hushen premia asko dauden arren, komun lehorra eta sukaldea bereziki emakumeek eskatu zuten. Nahiak hauxe esaten digu: "Atzera begiratu behar da, 2010 eta 2011an Baltistanen, Taliseko herrian gertatutako hondamendi naturala gertatu zeneko urteraino. Orduan, Baltistan Fundazioko Azpiegitura taldeak 35 etxe berreraikitzeko ardura hartu zuen. Etxe hauek berreraikitzeko prozesuan bi komite sortu ziren, alde batetik emakumeena eta bestaldetik gizkonezkoena. Bi komite hauetan erabaki zen 35 etxe hauetatik bi *model house*-ak izango zirela, hau da, etorkizun hurbil batean bailarako etxe eredu bilakatuko zirenak, bertako eraikuntza errespetatzen dutenak, efizientzia energetikoa dutenak... 2011. urtean egindako diagnostikoan, emakumeen komiteak argi esan zuen higiene eta osasun arazo nagusiak ikusten zituztela, sukalde eta komunekin zuzenean erlazionatzen zirenak".

Erabilera justuak bideratzea

Nahia Bellosok eta Baltistan Fundazioak eredu-etxe horretan eraiki zituzten Nahiak garatutako komun lehorra eta sukaldea.

Sukaldea Rocket berogailuan dago oinarrituta. Janaria prestatzeko eta etxea berotzeko balio du, eta egur gutxi kontsumitzen du. Abantaila nabarmenak ekarriko dizkie baltiei, hango bizilagunei: "Baltiek –eta gehienetan emakumeek– egur gutxiago garraiatu beharko dute inguruko mendietatik etxera; eta era berean, egunero arnasten duten sukaldeetako ke beltzak desagertuko dira, sukaldeetan dauden ume eta emakumeen bizi itxaropena areagotuz".

Bestalde, hondakin bereizkiko komun lehorra instalatu dute. Urarekin garbitzeko aukera ere ematen du. MUko ingeniaritza ikasleak hauxe dio: "Egun dauden infekzio kopuruek larriturik burutu dugu proposamen hau. Eraiki den komun lehorrak hondakin likidoak biltzeko eta arazteko sistema du, berauek baitira hepatitisa bezelako gaitzak kontagia dezaketenak. Hondakin solidoak, ordea, sei hilabetez gordetzen dira depositu bikoitzeko gordailuan, ondoren konpost gisara erabili ahal izateko".

Ekintzaile gisa, Bellosok ondorio hau atera du: "Garapena ez da teknologia baten punta-puntako bertsioa hobetzea, beronen erabilera justuak bideratzea baizik".

Esperientzia horren gaineko liburua egin dute, eta Interneten dago: *http://issuu.com/nahia./docs/liburua_001*.

Erabiltzeko atsegina

Baltistango proiektua ingurumenari begira ere egin dute. Eta ingurumen arloan bete-betean sartzen den beste proiektu bat, bere sasoian berritzailea, Debagoienean sukaldeko olioa batzeko poteena eta makinena izan zen. Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuen ideia garatuta, 2009an sortu zen hori kudeatzeko enpresa. Eko3r da berau. Hasieran Arrasaten ezarri zen sistema gaur egun Debagoienetik kanpo ere erabiltzen dute. Eko3r-ko

Aurtengo Kimu Berrin, 26 proiektu ikusgai

Zabalik da domekara arte, Kulturaten, Kimu Berri ideia berritzaileen erakusketa (*www.kimuberri.net*). Gazteek taldeka asmatutako 26 proiekturen gaineko panelak ikus daitezke bertan. Datorren martitzenean, hilak 25, hasi eta eguenera arte, Oñatiko Enpresagintza fakultatean izango da erakusketa (12:00-14:00 eta 16:00-19:00). Martitzenean bertan, *startup pitching* edo aurkezpen lehiaketa egingo dute, 10:00etan: zazpi taldek nork bere proiektua aurkeztuko dute jendaurrean, eta puntu gehien jasotzen dituen aurkezpena egin duen taldeak saria izango du.

Bi gazte proiektua erakusten Kimu Berrin. | GOIATZ ARANA

tatzen duten begiratzen. | DKS DISEINU BERRIKUNTZA ZENTRUA

Sukaldea, gertu. | DKS

Komun lehorrak. | DKS

Baltistango eredu-etxea. | NAHIA BELLOSO

ESANAK

"Baltien higiene eta osasun arazoei erantzun nahi izan diegu"

NAHIA BELLOSO
INGENIARIA

"Olioa harrira botatzeari uzteko, sistema erosoa behar zen"

ALBERTO GARATE
EKO3R-KO GERENTEA

"Chufamix ateratzeko, hipotekatu egin behar izan gara"

ITZIAR BARTOLOME
EKINTZAILEA

Itziar Bartolome. | ZURIÑE V.D.M.

Alberto Garate. | ARRITXU BARRUSO

gerenteak, Alberto Garatek, arrakastaren gakoa azaltzen digu: "Proiektu osoa erosotasunaren eta erabilgarritasunaren ikuspuntutik planteatu zen. Olioa sukaldetik harrira botatzea oso erraza da eta, hori aldatzeko, oso erosoa eta atsegina den zerbait jarri behar da. Bestalde, jendeak potea Puntu Berdera-edo eraman behar bazuen, noizean behin eramango zuen. Hortik, makinak ipintzea".

Negozio aldetik, Garatek onartzen du, Eko3r eta olioa batzeko euren sistema zabaldu egin diren arren, aurreikuspenak ez direla bete; hala ere, olioaren eta birziklatzearen arloan "oraindik asko" egin daitekeela gaineratzen du, eta Eko3r-ren asmoak azaltzen dizkigu: "Hiri handiren bat egin nahiko genuke; proiekturen bat Madril, Zaragozarako… Bestalde, kontaktuak ditugu Latinoamerikan. Maulen, pilotua egiten gara eta aukera onak ikusten ditugu. Hemendik eta urte bukaerara arte, aztertu egingo dugu aukera onena zein den". Horrez gain, dagoeneko urte batzuk dituen sistema "zelan hobetu" asmatzen dabiltza; esaterako, batzen den olioa biodiesel erregaia egiteko erabiltzeaz gain beste zertarako erabil daitekeen aztertzen.

Ideia berrietatik euren enpresa sortu gura dutenei, hauxe gomendatzen die Eduardo Garatek: "Gehienbat, benetako beharrak zeintzuk diren begiratu behar du ekintzaileak. Oso garrantzitsua da askotariko jendearekin hitz egitea, ze behar dauden ikustea eta horiei erantzuten saiatzea".

Etxebizitza hipotekatu behar

Euskal Herrian hazi-esneak, hortxatak hartzeko ohitura zabaldu da, eta esne horiek egiteko Chufamix gailua asmatu dute Valentziako, Alboraiako hortxata-denda artisau batekoek eta Itziar Bartolome arrasatearrak. Arrakasta handiarekin erakusten eta saltzen dabiltza egunotan. "Valentziatik kanpo bizi den jendeak hortxata goxoa edan ahal izatea etxean: hori zen gure ametsa".

Ilusio handiz dihardute, baina ez da bide erraza: "Etxetresna hau ateratzeko gure etxebizitzak hipotekatu behar izan ditugu. Dirulaguntzak begiratu genituen, gauza berritzailea delako, enpresa gazte eta txikia garelako… Ba, Valentzian, ez dugu ezertxo ere eskatu ahal izan, gutxienez 500.000 euroko inbertsioa eskatzen zutelako. Oso minduta gaude, azkenean ideia onak dituen jendea inongo laguntzarik jaso gabe dabilelako, Valentzian behintzat. Pena da horrelako ideiak ez laguntzea, eta norberak azala utzi behar izatea".

EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA
ARRASATE

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2012
IRAILAREN 17tik 23ra

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón
Agenda 21 Arrasate
Udalsarea 21

HIRI BUSA
Irailaren **17tik 23ra hiri busean DOAN ibili ahal izango da**.
** Adingabeek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batek lagunduta badoaz edo ohiko eskola bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezen)

Irailak 22 - Zapatua
BIRZIKLETA AZOKA – Bigarren eskuko bizikleta azoka Seber Altube plaza 11:00–15:00

SEG WAY eta TRIKKE - Biteri plaza - 11:00-14:00

ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK 'Mugitzeko beste era bat'
Biteri plaza - 11:00-15:00
Auto hibridoak eta elektrikoak, paseoko bizikletak, tolesgarriak, elektrikoak, segwayak...

IKASTAROA – Gidatze eraginkorra / Gidatze ekonomikoa
Kulturate – Jokin Zaitegi gelan - 09:30-13:30
Ikas ezazu autoa gidatzen, erregaiaren kontsumoa %20 txikituta.
Informazioa eta izen-ematea: Ingurumen Sailean edo BAZen
Izena emateko azken eguna: 2012/09/19. Plaza mugatuak.

Irailak 23 – Domeka
BIZIKLETA BIRA - Arrasatetik Eskoriatzako plazaraino bidegorritik
Irteera: Seber Altube plazan 11:00etan

autoan elkarrekin
www.arrasate-mondragon.org
Arrasateko Udala
Agenda 21 Arrasate

Boluntarioak behar dituzte Txolarte Klubetarako

Arrasateko eta Bergarako klubetarako behar dituzte, justu, laguntzaileak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Larunbatetan elkartzen gara, arratsaldez, 16:30etik 20:00etara, eta ekintza desberdinak egiten ditugu: zinemara joan, txikiteora, merienda, paseora... ". Horixe da, oro har, Atzegiren aisialdirako Txolarte Klubetan egiten dutena; eta zeregin horretan laguntzeko gertu dagoen jendea behar du Atzegik, Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen alde lan egiten duen erakundeak.

Gogoa besterik ez da behar

Itsaso Armasek, Atzegiko boluntarioen arduradunak azpimarratu du boluntario izateko "laguntzeko gogoa izatearekin nahikoa" dela; hau da, ez dela ez profil eta ezta prestakuntza jakinik behar, "hori bai, adinez nagusiak izan behar" dutela ere zehaztu du.

Hiru boluntario bakarrik

Urriaren 6an ikasturtea hasi eta ekainera arte daude zabalik Txolarte Klubak. Atzegiko 30 bat bazkidek pasatzen du denbora librearen zati bat klub horietan, 30-60 urte bitartekoak. "Boluntarioak ere badaude, beraiei esker egiten dira hainbeste ekintza, baina oraingo ikasturterako hiru besterik ez ditugu".

Gauzak horrela, "nahi adina" laguntzaile onartuko dituzte Arrasate eta Bergarako Txolarteetarako.

Aurten halako gabezia egoteko arrazoiari dagokionez, berriz, berezirik ez dagoela adierazi du Atzegiko ordezkariak; egoera hori ziklikoa dela dio: "Zikloak izaten dira, urte askotan egon den jendeak bizitza aldatzen du eta denbora faltagatik Txolartea uzten dute".

Txolarte Klubekoak, Arrasateko Txolarte Egunean. | ATZEGI

Sindikatuetako ordezkariak Bergarako elkarretaratzean, eguaztenean. | T.M.

Irailaren 26n "jendea mobilizatzeko gertu" dago

Sindikatuek diote bizi baldintzen okertzearen kontziente izanda herritarrak kalera aterako direla

TXOMIN MADINA | DEBAGOIENA

Irailaren 26rako deitutako grebaren atariko astean, hura bultzatzeko oihartzunak geroago eta ozenago entzuten ari gara sindikatuen zein herritar taldeengandik, bereziki.

Gure ibarrean, besteak beste, *Herritarrentzat pobrezia, bankarentzat dirua* lelopean elkarretaratzea egin zuten herenegun Bergarako erdigunean, hainbat entitate finantzarioren ordezkaritzen aurrean, ELA, LAB eta ESK sindikatuek deituta.

Ekintza horrekin, banketxeek jasotzen dituzten laguntzak salatu gura izan dituzte, onartezinak direla esanda. "Eztanda finantzarioaren errudunak dira eta egun gure etorkizunarekin jolasean ari dira zor publikoa erosten dutenean. Hala, ezinezkoa da eurei gure dirua ematea gure etorkizunarekin jolasteko", adierazi du Felix Irizarrek, ESK sindikatuko kideak.

Banka vs herritarrak

Gaineratu dute bankuek jasotzen dituzten laguntzak herritarrek jasaten dituzten murrizketen kontu direla. "Kapitalismoak bere garaian industriarekin zeuzkan irabaziak gutxitzen hasi zirenean, finantzekin jolasten hasi ziren, eta ikusten da gero eta diru gehiago irabazten dutela gure izerdiarekin eta gure bizi baldintzekin", salatu du Irizarrek.

Etxe kaleratzeen aurrean ere kezkatuta agertu dira sindikatuak. Azaldu dutenez, herritar askok ezin dituzte maileguak ordaindu, eta, horren aurrean, banketxeek ez dute arazorik etxeetatik botatzeko. Egoera honetan, beste irtenbide batzuk bilatu beharra azpimarratu dute: "Momentua larria da eta beste irtenbide batzuk bilatu beharko genituzke jendea ez kaleratzeko. Bankuek ez dute bihotzik jendea kalean lagatzeko".

Mobilizatzeko gertu

Irailaren 26ko greba orokorrari begira, berriz, sindikatuek adierazi dute batzar gehienak astearen bukaera aldera egingo diren arren, jendea mobilizatzeko gertu ikusten dutela. "Jendeak ikusten du jartzen dizkiguten bizi baldintzak gero eta okerragoak direla lan eta gizarte arloan, eta nik uste dut jendea mugitzeko gertu dagoela".

Horren adibide gisa, Arrasaten eta Bergaran greba batzordeak sortu dituzte, eta mobilizazioak antolatu. Ikus 12 eta 17. orriak.

MOISES AZPIAZU dantza taldea
BERGARA

2012-2013
DANTZA IKASTURTEA
urriaren 8an hasiko da

BATZAR INFORMATIBOA
(Aurreko ikasturtean, 2011-2012, matrikulatuta egon diren gurasoentzat zuzendua)

Eguna: Irailak 25, asteartea.
Ordua: 19:00etan.
Lekua: Irizar jauregiko 3. pisuan

Etor zaitez!

Udako argazkirik onena aukeratzeko epea zabalik da eguaztenera arte, hilaren 26ra arte

Aurten, lehen aldiz, Herritarren Saria egongo da Udako Argazki Lehiaketan, eta, horretarako, irakurleok eman ahal izango duzue botoa. Herritarren Sarian aukeratutakoak irabaziko du bi pertsonarendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako Aisia hotelean. Botoa ematen duzuen guztion artean, berriz, munduko kafe ezberdinekin osatutako otarrea zozketatuko da, Arrasateko Karibu dendaren eskutik. Irailaren 26a da botoa emateko azken eguna. *Goiena.net*-en aukeratu behar da argazkirik gustukoena.

Ikasturtea eta campusa, biak estreinatu ditu MUk

Astelehenean abiarazi zuten ikasturtea; fakultate berria, aldiz, martitzenean estreinatu zuten

GOIENA | DEBAGOIENA

Aretxabaletako campus berria, Basque Culinary Center proiektuaren sendotzea, master eta gradu-ondokoak eta beste herrialde batzuetara zabaltzen dabiltzan hezkuntza-eredu arrakastatsua dira, errektorearen esanetan, Mondragon Unibertsitatearen etorkizuna markatuko dutenak. Berba horiekin ireki zuen astelehenean Josu Zabala errektoreak 2012-13 ikasturtea, Donostian, Basque Culinary Centerren.

Etorkizuneko asmoak ere aurreratu zituen hark; besteak beste, eta gure ibarrera etorrita, esan zuen Goi Eskola Politeknikoa hiru titulazio berritan dabilela lanean 2013-14 ikasturteetarako: biomedikuntza eta energia eta ekojasangarritasunarekin zerikusia duten beste bi titulazio, hain zuzen ere.

Donostian egindako irekiera ekitaldian, Zabala errektoreak lagun izan zituen Patxi Lopez lehendakaria eta Isabel Zelaa sailburua.

Nekane Arratibel, Huheziko dekanoa, ikasleei azalpenak ematen. | HUHEZI

Aretxabaletako campusa

Gurean, berriz, komunikazio ikasketek izango dute garrantzia, Aretxabaletako campus berriarekin ekin diote-eta ikasturteari.

Martitzenean estreinatu zuten hura, jakin-minez estreinatu ere. Eraikin berritu eta dotorea, barrutik ondo atonduta.

Nekane Arratibel Huheziko dekanoak egin zien ondo etorria ikasleei, eta azaldu zien zer-nolako oztopoak gainditu behar izan dituen unibertsitateak campus berria martxan jartzeko.

Ondoren, ikasleak solairuz solairu joan ziren eraikin berria bisitatzen: ikasgelak, areto nagusia, atseden lekuak, informatika gela, jangela, kafe makinak, irakasleen gela, edizio gela, irratia, liburutegia...

AMAIA TXINTXURRETA

Txertoa hartzeko gomendioa

Oñatiko, Leintz Gatzagako, Aretxabaletako eta Arrasateko 15 erretiratu Arrasateko anbulatorioan izan dira, oraingo asteko eguaztenean, gripearen kontrako txertoa hartzen Helburua izan da arrisku taldeetan dauden herritarrak txertoa jartzera animatzea. Hain zuzen ere, konplikazioren bat duten pertsonen kasuen ondorioak larriagoak izatea ekiditeko gomendatzen dute txertatzea profesionalek. Izan ere, txertoak saihestu egiten du gripe kasu oso gogor edo oso larria izatea eta sintomatologia txikitu egiten du.

Hogei alderdi politikok parte hartuko dute Legebiltzarrerako hauteskundeetan

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

20 alderdi politikok aurkeztu dute datozen hauteskundeetarako hautagaitza. Asteon argitaratu dituzte Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Orain, beraz, jakinarazpen horren aurka errekurtsoa jartzeko bidea irekita geratu da. Zehazki, aurka-egiteak ondorengo egunetan (hilak 26 eta 27) egin beharko dira eta auzitegiek hilaren 29ra arte izango dute ebazpena emateko. Aurka egindako hautagaitzen kontra errekurtsoa jarri ahalko da Auzitegi Konstituzionalaren aurrean eta azken horrek epaia behin betiko eman beharko du kanpaina hasi aurretik (urriak 5).



ikastaroa

Gurasotasuna "M"-z idazten: Maitasuna eta Mugak

2-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako ikastaroa

EDUKIAK
1. saioa: Autoritatea familian eta gizartean: autoritarismotik permisibitatera.
2. saioa: Zeintzuk dira guk dauzkagun eskubide eta betebeharrak? Eta gure seme-alabenak?
3. saioa: Kontsumismoaren eragina familia-antolamenduan eta seme-alaben osasunean
4. saioa: Maitasuna eta autoritatea generoei lotuta: proposamen integratzaile baten bila.
5. saioa: Maitasuna eta elkarbizitza: kalitatea eta kantitatearen eztabaida
6. saioa: Komunikazio asertiboa eta autokontrola ikasi, erakutsi ahal izateko

Hasiera: - Urria bukaeran.
- Astean behin ordu eta erdiko saio bat (guztira 6 saio).
- Ordutegia gehiengoak aukeratutakoa izango da (14:45-16:15 edota 18:00-19:30)
• 2-6 urte astearteetan.
• 6-12 urte astearteetan edo ostegunetan.

Dinamizatzailea: Erain

Izen ematea:
Urriaren 5a baino lehen.
Gizarte Zerbitzuetan edo BAZen.
Tel.: 943 25 20 07
e-posta: *prebentzio@arrasate-mondragon.net*

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
http://goiena.net/iritzia/

Armageddon

Laster beteko dira bi urte taberna eta jatetxeetan tabakoaren aurkako lege berria ezarri zenetik. Atzera begira jarri eta ikus dagigun, bada, tabako ekoizle, merkatari eta ostalaritzako ordezkarien orduko iragarpen apokaliptikoak zertan gelditu diren.

Horretarako, gaia hizpidera lerratu denean zenbait tabernari eta bezerorekin izandako berbaldietatik ateratako ondorio batzuk aipatuko ditut, labur eta puntuka:

1) Legeak ez die ostalariei dirurik galarazi; krisiak eta batez ere ohitura aldaketek ekarri dituzte galera ekonomikoak.

2) Tabernariak ikaragarri pozik daude osasunean eta bizi kalitatean irabazi dutenarekin, eta bezero ez-erretzaileak zer esanik ez.

3) Erretzaile gehien-gehienak ados daude legearekin, eta batzuek aitortzen dutenez, orain, debekuari esker, lehen baino gutxiago erretzen dute, beren osasunaren eta poltsikoaren mesedetan.

4) Turista eta bisitari asko sarriago sartzen da orain jatetxeetan, kerik jasan behar ez duela eta.

5) Lokalak bi eremutan banatzearena –erretzaileak / ez-erretzaileak– tontakeria galanta dela ikusi da, pistina berean txixa egiteko eta ez egiteko ur-eremu bana mugatzea bezain zentzugabea.

Legearen ezarpenak, bistan denez, ez du munduaren akabera ekarri, batzuk bazterretan beldurra modu lotsagarrian hedatzen ibili arren. Ezezagun eta berri datorrenaren aurrean beldurra zabaltzea samurra da, jende zaharrak, edo, hobeto esanda, buruz zaharra den jendeak, gurago izaten baitu dagoenean egon, eta beste guztia hor konpon, erdarazko esaerak dioenaren ildotik: *Virgencita, virgencita, que me quede como estoy*.

Esandakoa: mundua ez da tabakoaren kontrako legearekin amaitu, baina argi ibili, atez atekoarekin etorriko ei da-eta Armageddon, arratoi saldoek gure herriak inbaditu eta denok hilko gaituen izurri beltza hedatzen dutenean.

"Mundua ez da tabakoaren kontrako legearekin amaitu"

USTEAK USTE

USOA AGIRRE | uagirre@goiena.com

Krisiaren onurak

Krisiak gogor eragin du gizartean eta une gogorrak pasatzen ari dira familia asko, baina krisiak onurak ere ekarri ditu eta horiek azpimarratu nahiko nituzke. Gizarteko indibidualismoa, estresatuta ibili beharra eta horrelakoak kritikatu izan ditugu askotan, baina krisiari "esker" badirudi gizartea "desazeleratzen" ari dela, eta hori ez da hain txarra, ezta? Abiadura moteltzearekin batera, halabeharrak auzolana ugaritzea, bakoitzaren ondasunak partekatzea eta kontsumo ohiturak aldatzea ekarri du, kontsumo kolaboratiboa eta gauzak berrerabiltzea sustatuz, besteak beste. Ea krisia konponduta ere balio horiek mantentzen diren!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/

HANDIK ETA HEMENDIK

Baten lekuan bi

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Gertatzen da denborarekin behin esan zenituen hitz ustez zorrotz, sendo, betierekoak jan beharrean aurkitzen zarela ez gutxitan. Eta patata frijituekin bada, gaitz erdi. Luze gabe iaz idatzi nuen tarte honetan bertan telebista lehiaketei buruzko testu sasi mamitsu bat, behar baino gehiago laburtuz, esaten zuena ikuslea jartzen dutela pantailan ari diren lehiakideen gainetik, saria edonoren eskura dagoen ametsa dela sinetsarazten digutela, eta ildo bereko intelektualkeria gehiago. [...]

Izan ere, neronek jarritako tranpan erori naiz. Bat gutxi balitz bi dira ikasturte hasiera honetan jarraitzen ari naizen telebista lehiaketak. Bat ezaguna dugu, *Mihiluze* beteranoa —1.000 saio bete zituen ekainean—. Nahiz berrikuntza nabarmenekin hasi duen denboraldia: irudia, dekoratuak, probak, joko dinamika. Hasi nintzen xalo ikusten, nobedadeak-eta zertan ziren argitzeko, eta hara non laugarren egunerako pantailaratu ziren Hondarribia-Hendaiako bi anaia jator —lagun ditut eta ziurta dezaket pantailan bezain jator direla bizitza errealean—. Eta, akabo, hortik aurrera egunero hartu behar izan dut dosi bat *Mihiluze*, beste garai batean bentzodiazepina bezalaxe. Proba batzuk besteak baino gehiago gustatzen zaizkit —deformazio profesionala, hizkuntzarekin jolasten direnak ditut atseginen; berrien artean hasierako biak—; baina ondo mantentzen du erritmoa saioak orain irauten duen 45 minutuetan. [...]

Baina bada bigarren lehiaketa bat, eta hau bai ez nuela inondik ere aurreikusia. *Lo sabe, no lo sabe* izena du, eta oso da inuzentea: kalean arrantzatutako lehiakide batek jendea aukeratu behar du bere ordez galdera erantzun dezan. Grazia: aukeratutakoak batzuetan ondo eta besteetan gaizki erantzun behar duela. Ikusten duzu, misteriorik ez du, baina funtzionatzen dit. Eta Juanra Bonet horrek grazia apur bat badu, musika ona jartzen dute, eta ez da zentsura politikoa praktikatzen: presoak kalera espontaneo bat entzun ahal izan genuen joan den astean.

Baten lekuan bi lehiaketa, beraz. Nik haiek, edo haiek ni abandonatu bitartean, uste dut beteta daukadala kupoa.

O'Reilly argitaletxearen jokabide ona

Joxe Aranzabal
http://goiena.net/blogak/faroa/

Aurrekoan liburu bat erosi nion O'Reilly argitaletxeari formatu digitalean —*Book: A Futurist's Manifesto*—, eta oso pozik geratu nintzen. Liburuak interesgarria dirudi, bertan hainbat saio jasotzen baititu liburu digitalaren etorkizunaz, baina pozik geratu nintzen argitaletxearen jokabideagatik, oso egokia iruditu zitzaidan-eta.

Liburuak 10 dolar balio du, baina irailaren 18a baino lehen erosiz gero, erdi-prezioan eros zitekeen, eta nik horixe egin nuen. Behin erosita, O'Reillyk aukera eskaini zidan liburua hiru formatutan jaisteko: . MOBI, .EPUB eta .PDF, hirurak erabat libre, bat ere DRM edo katerik gabe, nik instala dezadan ditudan irakurgailuetan.

Ez dakit mezu hau iritsiko ote den euskal argitaratzaileengan eskuetara, baina O'Reilly argitaletxearen jokabidea erabat ereduzkoa iruditzen zait, erabat egokia liburu digitalerako.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Europari begira

Aimar Uribesalgo
Arrasate

Europa iparraldea dute erreferente PNV-PSOE-PPk zabor kudeaketa arloan, antza.

Alemania, Danimarka eta Suedia aipatzen dira "sozio-ekologikoki aurreratu" bezala.

Suedian eta Danimarkan hondakinen %45 eta %55 erretzen dira konkretuki, eta birziklatzen dena %40 da bietan.

Birziklatu ahal den hondakin kantitatea %70-80 bada, garbi dago asko dutela hobetzeko.

Alemaniak %64 birziklatzen du, baina ez dezagun ahaztu bertako unitate administratiboen %59tan organikoa selektiboki banatzea behartzen dutela, Austria osoan bezala.

80ko hamarkadatik hona, oso errauskailu gutxi eraiki dituzte, gainera, zabor kudeaketaren paradigma aldaketaren seinale.

Organikoa nahitaez jasotzeari esker lortzen dute Alemania, Austria, Flandria, Katalunia eta Italia iparraldeak dituzten emaitza erlatiboki onak, eta ez dezagun ahaztu konposta egiteko 400 instalazio baino gehiago dituela Europak.

Ez zaudete Europara begira, justifikazio bila baizik.

PNVk soberan dagoen %20-30 erre behar dela dio.

Nola liteke, orduan, Bizkaian oraindik %40ko birziklapen mailara iritsi ez izana?

Eta Zubietako erraustegia Gipuzkoako zaborraren %60 erretzeko diseinatzea?

Hitz politen atzean errealitatea dago, eta hauxe da PNVren kontradikzioa, birziklatu ahal dena bere osotasunean biltzeko alternatibarik proposatzen ez baitu, bosgarren edukiontziarekin ez baita hori inon lortu.

Europara begira omen zaudete, azpimarra dezagun orduan 2012ko maiatzean Europako Parlamentuak 2020rako material birziklagarrien errausketa debekatu egin zuela erabakiaren aldeko 479 botorekin eta kontrako 69rekin.

Kontuak kontu, Europa inoiz ez da eredugarri izan ingurumenaren arloan edo gizarte politiketan, hori saldu diguten arren.

Ez dezagun ahaztu Ameriketako Estatu Batuen txakur txikia izanik, munduan barrena lapurtutako baliabide natural eta giza-kapitalari esker eraiki dela gure gizartearen oinarri den metabolismo agro-urbano-industriala.

Eskuinari ahaztu egiten zaio detaile hau.

Europa hazkuntza ekonomiko mugagabean oinarritzen da, eta logika hau posizio antagoniko baten dago jasangarritasunarekin, politikari "ekokapitalistek" diskurtso "berdez" kutsatzen diguten arren.

Erreferente bila ez joan Europara, Gipuzkoa askoz gertuago dago.

Jose Luis Martini eskerrona emanez

Inaxio Garro
(Aretxabaletako Aralar)
Aretxabaleta

Aitortu behar dut Aralarren baitan penaz, pena handiz hartu dugula Jose Luis Martin udal-zinegotziaren karguaren errenuntzia.

Jakin ondo genekien egun batetik besterakoa izan zitekeela erabakia, azken hileotako egoera ikusita.

Agintaldia hasi eta gure artean egon den bitartean ezohikoa den jarrera erakutsi du: umiltasuna eta elkarlanerako borondatea.

Baina zirkunstantzia batzuk tarteko, edo beste modu batera esanda, arrazoi pertsonalak tarteko, udalbatzan izan duen kargua eta ardurak utziko ditu.

Aralarrek eta, orokorrean, Aretxabaletako Udalbatzak nabarituko dugu berak utzitako hutsunea, eta zaila izango da berak erakutsi dituen maila eta ausardia ordezkatzea.

Honen bitartez eskerrak eman nahi dizkiogu egindakoagatik eta erakutsitako konpromiso eta inplikazioagatik.

Nahi duzunera arte, ondo bizi.

Herribus zerbitzua dela eta

Piti Madariaga
(Bergarako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia)
Bergara

Duela gutxi espazio honetan bertan Bergarako herritar batek abuztuan zehar Udalak Herribus zerbitzua bertan behera utzi izana gaitzetsi zuen.

Honen aurrean, Bergarako Udalak adierazi nahi du adierazpen hauek kontuan hartu dituela eta etorkizunean zerbitzu honi eta beste batzuei dagozkien murrizketak edota bestelako neurriak zehazterakoan aintzat hartuko dituela gai honen aurrean plazaratutako argudiook.

Bergarako Udalaren helburua da Herribusa ere, erakunde honek eskaintzen dituen gainontzeko zerbitzuak bezala, ahalik eta eraginkorrena eta herritarren beharrei hobekien erantzuten diena izan dadin.

Txosnetan parte hartzeko...

Josu Zugasti
(Arrasateko Txosna Batzordia)
Arrasate

Aupa, arrasatiarrok!

Aurten be badatoz Maritxuak eta Arrasateko Txosna Batzordian be herriko hamaika talde bagabiltz jardunian, jaixak hobetu, osatu eta herri mugimenduandako txakurtxiki batzuk batzeko asmotan.

Arrasatendako hain egun haundixa izanik, guztion laguntzatxua eskatzen dau ganorazko txosnagunia jartiak eta, oin arte letxe, herrittarroi zuen parte hartzia eskatu nahi dotsuegu Txosna Batzordetik, Maritxutako txosnetako txandak beteteko.

Txandetan izena emuteko orrixak Irati eta Iluntz tabernetan dauz, ia kuadrillak beroketan dittugun txosnetan lan apur bat einez be ederto pasetako.

Herri mugimenduko taldiek eskertuko dogu laguntzia!

Animau zaitteze!

Eta eskerrik asko, aldez aurretik be!

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

BADATOZ SAN MIGELAK!

ORRIALDE BEREZIAK
Irailaren 28ko GOIENA paperean, Oñatiko eta Aretxabaletako San Migel jaien informazio guztia esku-eskura izango duzu!

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Amaia Muñoa | ELA sindikatuko idazkari nagusiaren ondokoa

"Greba ez den beste zer egin dezakegu langileok baimenik eskatu gabe?"

- Egoera honen aurrean, hiru urtean egiten den bosgarren greba "beharrezkoa" da
- Borroka egitea merezi duela "argi" dutela dio, "greba oso tresna indartsua" delako

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Irailaren 26rako beste greba orokor egun bat deitu dute sindikatuek eta eragile sozialek. Bosgarrena da hiru urtean. ELAko idazkari nagusiaren ondokoak, Amaia Muñoak, egoeraren analisia egin digu eta grebarako arrazoiak azaldu dizkigu.

Irailaren 26an beste greba orokor bat. Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitu du?

Bai, baina badira egin beharreko zehaztasun batuk. Izan ere, oraingoan, beste hainbat giza taldek ere bat egin du, eta garrantzitsua da hori. Krisiaren harira, ohiko sindikatuez gain, beste batzuk, CGTk eta CNTk, esaterako, eta beste talde edo kolektibo sozial batzuk batu zaizkigu: feministak, etorkinen aldekoak, ingurumenaren esparruan murgiltzen direnak... 60 talde edo kolektiboz ari gara, egoera larri honen aurrean asko dutenak esateko.

Krisiaren eta murrizketen aurrean bat egin duzue...

Bai, konpartitzen dugu diagnostikoa, alternatiba eta baita interpelazio aske bat egin behar dugula. Oso talde heterogeneoa osatzen dugu, baina egoera berezia da eta baditugu puntu komunak.

Balio izan dute zerbaitetarako orain arteko greba orokorrek?

Zalantza izpirik gabe, bai. Beharrezkoak eta eraginkorrak dira. Beste kontu bat da Raxoik aldatuko duen edo ez bere politika grebaren biharamunean. Ez du aldatuko, jakina. Baina horrek ez dio baliorik kentzen grebari. Grebaren balioa nabarmendu egin behar da. Izan ere, kontrarioek sinestarazten digute egiten ari direnak ez daukala alternatibarik eta, gainera, ez duela merezi borrokarik egiterik. Argi daukagu borroka egitea merezi duela. Zenbat eta noiz lortuko dugun ezin dugu jakin, baina borroka egin behar dugu geurea defendatzeko, eta, horretarako, greba da oso tresna indartsua. Greba ez den beste zer egin dezakegu langileok baimenik eskatu gabe?

Jendea irteten da kalera protesta egitera?

Hiru urte eta erdian, bosgarren greba orokorra egitera goaz. Greba guztiak ez dira berdinak izan, baina egiten dugun irakurketa da lortu dugula geroago eta jende gehiagorengana iristea mezu honekin: edo geuk defendatzen dugu gurea mobilizazioaren bidez, edo ez du inork egingo. Eta sumatzen dugu geroago eta jende gehiago datorrela mobilizazioetara, baina, gainera, ez etorri arren ere, geroago eta jende gehiagok egiten duela bat helburuekin.

Pentsioak ukituko ditu Raxoik?

Zoritxarrez, bai.

Herritarren aurkako estatu kolpea gertatu dela esan du zuen idazkari nagusiak, *Txiki* Muñozek...

Hala esan daiteke bai. Izan ere, demokraziarik eza argia da hemen: dena dekretuz onartzen da, nahiz eta egia den Raxoik erabateko gehiengoa duela. Bestalde, jendarte eredua goitik behera aldatzen ari dira, izaera publikoaren izaera erabat aldatuta.

Herri ordezkariek hartzen dituzte benetan neurri hauek?

Europa osoan botere ekonomikoak, botere finantzariak, agintzen du. Nahi duena egin du botere horrek, eta hark sortutako krisia denon kolkotik ordainarazi nahi digute.

Zein da irtenbidea?

Politikak errotik aldatzea. Ezin dugu onartu garrantzitsuena izatea banku pribatuen zorra eta hori egotea arazoaren eta irtenbidearen erdian, muinean, garrantzitsuena pertsona izan beharrean. Gauza egingarriak planteatzen ditugu.

Egoera honetan, alderdi guztiek, erakundeetako agintari guztiek, gobernu guztiek... errezeta berak aplikatzen dituztela diozue...

Hala uste dugu, bai. Izan ere, gaur egun dugun egoeraren aurrean, erabat kontrako neurriak hartzen ez baditugu, emaitza izango da berdintsua. Langabezia tasa goraka doa eta orain arte hartu dituzten neurrien kontrakoak behar ditugu. Gehiago inporta zaigu Espainiako Estatuak izango duen erantzuna hemen murrizketak aplikatzen baditugu, geroago eta herritar langabe gehiago edukitzea baino?

Zerga politika aldatzea eskatzen duzue. Zertarako eta ze norabidetan?

Defizitaz egiten da berba, baina defizita da gastuen eta sarreren desorekaren emaitza. Eta, horregatik, ezin dezakegu hitz egin bakarrik gastuez; sarrerez ere bai. Zorionez, une honetan sarrerez ere egiten da berba.

Foru ogasunak alderdi ezberdinen eskuetan daude, baina bertsuak dira zerga politikak?

Bada, presio fiskala oso antzekoa da. Zera, Europan, batez beste, Barne Produktu Gordinaren %38 da presio fiskala; eta hemen, berriz, %28.

Zergatik ez da aplikatzen presio fiskal zorrotzagoa, esaterako, Gipuzkoan, non ezkerreko alderdi bat dagoen agintean?

Horixe diogu geuk ere. EAJk hiru foru ogasunen ardura izan duenean kapitalari eta errenta altuei jaitsi dizkie zergak. Egia da Gipuzkoan orain Bildu dagoela eta egun batetik bestera ezingo dituela aldatu zerga politikak, eta egia da ez duela erabateko gehiengoa Batzar Nagusietan. Baina faltan sumatzen dugu egitea diskurtsoa, pedagogia, zerga politika berdintsuago eta justuago baten alde.

Gehiago eskatzen diozue Bilduri?

Bai. Ez da ulergarria sozialistekin adostea zerga politika eta, gainera, hori saltzea ondo egindakoaren moduan. Zela egongo da ondo, Europako batez besteko presio fiskaletik oso urrun bagaude oraindik?

Lopezen aurtengorako aurrekontuak "inmoralak" direla esan zenuten... Hurrengo urtekoak?

Lehendakariak aurrekontuak aurkeztu zituenetik hona herritarren egoera larriagotu egin da. Eta okerrera egingo du, murrizketa gehiago etorriko delako eta, ondorioz, langabe eta behartsu gehiago egongo delako. Horiei laguntzeko politikak eta aurrekontuak egin beharrean kontrakoa egiten da. Guk eskatzen dugu Madrildik datozen aginduak ez onartzea.

Ze mobilizazio iragarri duzue irailaren 26rako?

Lau hiriburuetan manifestazio handiak egingo ditugu. Horiek oso garrantzitsuak dira. Horretaz gain, arratsaldeetan herrietan egingo dira. Zapatuan, Bilbon, Gasteizen eta Donostian ere egingo ditugu manifestazioak.

Azkeneko greba orokorrean, martxokoan, bat egin zuten UGTk eta CCOOk ere. Zergatik ez orain?

Edukien inguruan sortzen da elkarlana eta ez dugu askorik konpartitzen bi sindikatu horiekin, ezta diagnostikoan edo irakurketan ere. Ez da sektarismo kontua.

Eta, LABekin, zelakoak dira harremanak?

Zorionez, posible egiten du halako krisi batek elkarrekin antolatu ahal izatea, beste batzuekin batera. Horrek ez du kentzen ezberdintasunak ditugula onartzea, esaterako. ELAk uste du langile klase ikuspuntutik egin behar direla irakurketak, inorekin beste loturarik eduki barik.

Amaia Muñoa, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

"Sumatzen dugu geroago eta jende gehiago datorrela mobilizazioetara"

"Gaur egungo gizarte eredua goitik behera aldatzen ari dira"

"Europan %38 da presio fiskala; hemen, ostera, %28 da"

"ELAk uste du langile klase ikuspuntutik egin behar direla irakurketak"

bilduma
Sombra

ZUREKIN LILURATUTA

Egongela-jangela
L 360zm
1.794€

Erdiko mahaia
L 120xP70cm
398€

diseinua
Eloy Millán

Sombra saileko egongela-jangela. Akaberak euri lakatuan, ardesian eta sumendi matean. **Eclipse** erdiko mahaia. Akaberak sumendi lakatu matean. **Aukera** gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

www.kibuc.com ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 151 681

KIBUC Gure Ametsa

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

HERRIAK

OÑATI

Ibarreko ordezkaritza eta berritasunak Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketan

- Jesus Mari Plazaola arrasatearra Oñatin izango da
- Herritarrak erakartzea, antolakuntzaren ahalegina

MIREN ARREGI | OÑATI

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketak 53. edizioa beteko du domekan. Berrikuntzekin dator, gainera, eta, noski, protagonista izango ditu, urtero bezala, hamahiru artzain eta txakur txapeldun. Eta hori poztekoa da; poztekoa da, urtero-urtero nazioarteko artzain eta txakur irabazleek Oñati izatea elkartoki; poztekoa da, herriak aspaldiko tradizioari eustea; poztekoa da, urtean behin ikuskizun berezi eta ederra ikusteko aukera ematen baitu txapelketak; eta poztekoa da gutxika-gutxika gainbehera dagoen ogibidea, artzaintzarena, balioan ipintzeko modua ere badelako. Hala ere, jakina da azken urteetan asko egin duela behera ikusle kopuruak, eta horren jakitun, antolakuntzak badihardu hori biziberritzeko ahaleginetan. Testuinguru horretan, beste urte batez, nazioarteko txapelketa Oñatira iritsi da, azken urteotan baino kementsuago, berrikuntzekin, ahulguneei aurre egin guran.

Artzaina txakurrari aginduak ematen eta artaldea eskorta ondoan. | GOIENA

Txakurrak ikusgai, zapatuan

Iaz bezala, bihar, txakurren aurkezpena egingo dute plazan. 19:30etik aurrera, Kataluniatik, Castellotik eta Iparraldetik datozen zazpi txakur eta artzain ezagutu ahal izango ditugu. Artaldea ere egongo da plazan eta txakur batek edo bestek erakustalditxoa egingo du. Hasiera baten, border colie arrazako txakurrak ikusi ahal izango dira, eta, agian, baita Aulestitik etorriko diren euskal arrazako bi txakur ere.

Pottokak San Martinen

Beste berritasunetako bat da txapelketak irauten duen bitartean pottokak egongo direla ikusgai San Martinen. Umeek horien gainean bueltatxo bat emateko aukera izango dute.

Sarrera merkeago

Merkatu ere egin dute txapelketarako sarrera. Orain arte 5 euro kostatu izan bada, etzi 3 euro kostako da Santa Lutziako zelaian sartzea. Gainera, sarrera bakoitzak zenbaki bat izango du eta bukaeran zozketatuko diren hiru saskiren zozketan sartuko dira. Bestela ere egongo da saskiaren zozketarako txartelak erosteko aukera, euro baten truke, Santa Lutzian bertan eta baita bihar ere, plazako erakustaldian.

Txapelketan, bi ariketa

Domekan, 10:30ean hasita, lehenengo ariketan puntu gehien lortzen dituzten lauzpabost txakur pasatuko dira bigarren probara. Lehenengo ariketa zazpi minuturen barruan egin beharko dute. Txakurrak artaldea dagoen tokira joan beharko du, bidean bi geldialdi eginda. Gero, artaldea hartu eta erdiko hesi-tartetik zelai barrenean dagoen makila baten ondora eroango ditu ardiak. Hori egindakoan, zelaiaren goiko aldeko, eskuineko edo ezkerreko hesi-tartetik pasaraziko ditu ardiak. Bigarren ariketan, berriz, zazpi minuturen barruan hori ere, banderatxoz inguraturik dagoen bidea zeharkatu beharko du txakurrak, eta artaldera ailegatu. Horiek hartu, eta erdiko eskortan sartu beharko ditu, eta, bukatzeko, handik atera.

Arrasatetik, Plazaola

Gipuzkoako txapela eskuratu zuen Plazaolak irailaren 2an Legazpin, eta, Oñatiko txapelketarako txartela eskuratu. Aurten, arantzatxo bat kentzeko asmoz irtengo da Santa Lutziako zelaira. Irabazi egin gura du, hori baita faltan duen txapela bakarra. Badaki, hala ere, ez dela erraza izango: "Oñatiko txapelketa, nazioartekoa izanik, zailtasun handikoa da. Denbora laburra eta ibilbide handia egin beharko du *Gure* txakurrak. Ahal bezain ondoen egiten ahaleginduko gara, hori seguru", dio hark.

PARTE-HARTZAILEAK

ARTZAINA	HERRIA	TXAKURRA
Antonio Alustiza 2011ko txapelduna eta Nafarroako txapelduna	Areso (Nafarroa)	Ttiki
Jesus Mari Plazaola Gipuzkoako txapelduna	Arrasate (Gipuzkoa)	Gure
Jose Ramon Garcia Bizkaiko txapelduna eta Euskadiko txapelduna	Güeñes (Bizkaia)	Luna
Jose Mari Jauregi Arabako txapelduna	Illarduia (Araba)	Leze
Jorge Oteiza Nafarroako bigarrena	Oronoz (Nafarroa)	Azeri
Jose Urien Euskadiko Txapelketan sailkatua	Abadiño (Bizkaia)	Bizkai
Hilario Novillo Kataluniako txapelduna	Sant Pedor (Bartzelona)	Witney
Jose Mari Pleguezuelos Kataluniako bigarrena	La Canonja (Tarragona)	King
Marçel Uhalde Iparraldeko txapelduna	Aldude (Nafarroa Beherea)	Txiko
Juan Miura Iparraldeko bigarrena	Heleta (Nafarroa Beherea)	Izar
Juli Bayot Castelloko txapelduna	Ares del Maestrat (Castello)	Chispa
Jacques Soulere Europako sailkatua Frantziatik eta Aramitseko txap.	Arbon (Frantzia)	Acker
Gilles Etchegoyhen Aramitseko bigarrena	Iholdi (Nafarroa Beherea)	Biba

ESANAK

"Oso gustura hartuko nuke Oñatin txapela; horixe falta zait"

JESUS MARI PLAZAOLA
GIPUZKOAKO TXAPELDUNA, ARRASATEARRA

Manu Fernandez eta Mertxe Valdivieso | Irudi Sport gimnasioko arduradunak

"Aste bukaeretan ere zabalduko ditugu ateak"

Irudi Sport gimnasioak 12 urte daramatza aitzindariak diren kirol eskaintzekin lanean. Eta, gainera, urritik aurrera, zapatuetan eta domeka goizetan ere izango da zabalik. Horren gainean eta bestelako berrikuntzen gainean hitz egiteko Manu Fernandez eta Mertxe Valdivieso gimnasioko arduradunekin egon gara.

Aste bukaeretan eskaintza berria duzue.
Bai, halaxe da. Eta ez hori bakarrik, aste barruan kirola egiteko aukerarik ez dutenendako aste bukaerako eskaintza berezia jarri dugu martxan. Hala, zapatu goiz edo arratsaldean nahiz domeka goizean kirola egitera lasai etortzeko aukera dago. Azken batean, 7 eguneko eskaintza izanda, kirola egiteko aitzakia txikiago da.

Noiz jarriko duzue martxan?
Urrian abian izango dugu Irudi Sport-en. Oraingoz, jendearen harrera oso ona da. Beti iraultzaileak eta lehenak izan gara; beste behin lehenak izatea nahi izan dugu aste bukaerako eskaintza jarriz. Hala, aste barruan eta aste bukaeran etortzeko aukera dago. Azpimarratu nahi dugu bai zapatuan eta baita domekan kirol jarduerak egiteko eskolak eskainiko ditugula.

Nolako harrera izan du?
Egia esan, oraingoz, oso ona. Kontuan hartu behar da hemen negua hilabete askokoa dela, eta arratsaldeetan kirola egin nahi duenarendako –korrika edo bizikleta buelta bat– goiz iluntzen duela. Hala, zapatuan koadrilarekin geratzen denak aurretik spinning saio bat egin dezake; edo domeka goiza aprobetxatu gura duenak body pump saioa egin. Aproposa familia duten gurasoendako. Guk gure eskaintzak euren beharretara egokituko ditugu.

TRX kirol jarduera berriak sekulako arrakasta du; argazkian, ikastaroa jendez beteta.

Ze ordutegi duzue?
Jendearen ordutegira moldatzen gara; beraz, oso zabala da; astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik gaueko hamarrak arte; zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Domekan, 10:00etatik 14:00etara. Esan, body pump, RPM –spinning jarduera zehaztua– eta TRX jarduerak egiteko aukera egongo dela. Eta nola ez, aste barruan, step, body combat, body balance, kit boxing, boxeo, latindar... denetarik egiteko aukera dago! Urritik aurrera, baita aste bukaeretan ere.

> **"Jendearen beharretara egokitzen dira kirol jarduerak"**

TRX da berrikuntzetako bat; baina zer da zehazki?
TRX Ameriketako indar armatuko soldaduek –etxetik kanpo denbora luzea egiten zutelako– entrenatzeko asmatutako teknika da; paraxuteko bi banda sabaian edo zuhaitzean jarri eta zintzilikatu egiten ziren. Tonu muskularra eta ariketa kardiobaskularra egiteko teknika gisa erabiltzen zuten. Oso ariketa osatua eta dinamikoa da.

> **"TRX kirol modalitatea oso dinamikoa eta osatua da"**

Norendako da egokia TRX jarduera berritzailea?
TRX kirol jarduerak ez du pisurik erabiltzen; hori da bereizten duena. Beraz, oso egokia da bizkarreko eta gerriko arazoa dutenendako. Norberaren gorputzaren pisuarekin egiten diren ariketak dira; hala, gizen daudenentzako eta hernia dutenentzako ere egokia da. Egunerokotasunerako zein bestelako kirol bat egiteko balio du TRX praktikatzeak, osagarria da. Lehenak izan gara Iparraldean modalitate hau martxan jartzen eta dagoeneko urte eta erdi daramagu eskaintza honekin. Oso harrera ona izan du. Entrenamendu ikaragarria da, betileetan ere agujetak izango dituzue!

Entrenatzaile pertsonala izateko aukera ere baduzue.
Bai. Irudi Sport-ek *Personal trainer* eskaintza dauka eta bakoitzaren beharretara entrenatzaile pertsonal batek ordubeteko saioa neurrira egokituko du. Horrez gain, fitnes gela eta norberari ariketa taula egiten dion monitorea ere badaukagu. Edozein jarduera probatu nahi duenak ateak zabal-zabalik ditu!

Urritik aurrera
Aste bukaeretan ere ZABALIK!
ordutegi berria!

IRUDI SPORT
Zure Kirol Zentrua

Astelehenetik ostiralera: 07:30 – 22:00
Zapatuetan: 10:00 – 13:00 / 16:00 – 20:00
Domeketan: 10:00 – 14:00

Uarkape 2, behea - ARRASATE - Tel.: 943 77 20 87
www.irudisport.com

LAB, STEE-EILAS, ESK-ko eta Ezker Abertzaleko ordezkariak. | JOKIN BEREZIARTUA

Greba Batzordea: "Bide berriak hartzeko denon beharra dugu"

Manifestazio zaratatsua gaur Seberretik (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Irailaren 26rako, azken lau urteotako bosgarren greba orokorrerako deialdia deitu dute euskal sindikatuek eta hainbat gizarte eragilek. Bada, Euskal Herri osorako deialdiaz gain, herriz herri antolatzen da protesta, eta hori da Arrasateko Greba Batzordearen kasua. LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuek eta beste zenbait eragilek osatzen dute batzordea; tartean, Ezker Abertzaleak, Ahots Kooperatibistak eta Gorripideak. Hilaren 26rako herritarrak kontzientziatzea helburu, manifestazio zaratatsua antolatu dute gaurko. Seber Altube plazatik irtengo da, 19:00etan.

"Konplexu barik, denok batera"

Greba aurretik "giroa berotu" eta herritarrak aktibatzeko helburua jarri zuen batzordeak: "Lema orokor bat aurkitzea zaila izan zaigu, murrizketek alor ezberdinetan eragin zuzena dutelako. Beraz, denok batera erantzun beharko dugu. Ahalik eta oihartzun handiena izan dezan, ahalik eta zarata gehien ateratzera goaz".

Izan ere, protesta zaratatsua antolatu dute "askorendako oharkabean" pasatzen ari den egoerari aurre egiteko: "Interes pribatuen onurarako interes publikoetan murrizten dutelako, kalera irten behar gara. Konplexu barik, denok batera; indarrak biltzeko ordua da".

Greba ostean, lanean segi

Protesta egiteaz gain, krisitik irteteko beste aukera batzuk badaudela aldarrikatzera dator batzordea. Hala, adierazi dute greba ostean lanean jarraitzeko asmoa dutela: "Greba ondoren herri mugimendu bat sortu gura dugu, Euskal Herrian beste aukera batzuk badaudela sinetsita. Hori bai, bide berriak hartzeko denon beharra dugu", diote.

Garestiagoa izango da urbanoa hartzea hilaren 24tik aurrera

BEZaren igoera orokorrak eragingo du tarifen garestitzea; asteon onartu du Tokiko Batzarrak

J.B. | ARRASATE

Arrasateko urbanoa garestitu egingo da datorren astelehenetik aurrera. BEZaren igoera orokorra da horren arrazoia. Diputazioak tarifa berriak proposatu dizkio Udalari, eta tarifok asteon onartu ditu Udal Gobernuaren batzarrak. Datutan: 1,45 eurotik 1,50era igoko da txartel arrunta, eta hilabetean bidaia bat eta 40 bidaia artean egiten dutenek 0,76 euro ordaintzetik 0,78 euro ordaintzera pasako dira. Igoera txikiagoa izango da 41 bidaiatik 70 bidaira egiten dituztenendako –0,39 izatetik 0,40 izatera– eta, azkenik, 71 bidaiatik gora egiten dituztenek orain arteko bera ordainduko dute. Hau da, 0,13 euro.

Udalaren arabera, Lurraldebusek egindako proposamena ontzat ematearen arrazoia da kontratua sinatu zutela Diputazioarekin lau urterako, eta, horren ondorioz, Arrasateko Udala Txartel Bakarraren sisteman sartu zela.

TARIFA BERRIAK

	PREZIO BERRIA (EUROTAN)	ALDEA (EUROTAN)
Noizbehinkakoa	1,50	+0,05
1/40 bidaia	0,78	+0,02
41/70 bidaia	0,39	+0,01
71 bidaitik gora	0,13	+0,00

GI-2620 errepidea aztergai

Bestalde, oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ostean, martxan jarriko da Takolo eta Garaia artean antzinako GI-2620 errepidearen zeharbidea berriro ere urbanizatzeko proiektua. Izan ere, Olandixoko tunela ireki zenetik gune hori Udalarena izatera pasatzeko prozesuan daude Diputazioarekin. Proiektua idazteke dago, beraz, eta prozedura irekia izatea aurreikusi dute, lehiaketa publiko bidez.

Frankismoaren biktimei omenaldia

Amaia lepo bete zen martitzenean Intxorta 1937 Kultur elkarteak estreinatutako *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* dokumentalean. 16 emakume arrasatearrek hartu dute parte, 36ko gerra eta osteko krudelkeria islatzen duen testigantzak emanda. Txalo artean omenaldia jaso zuten, hunkituta. DVDa salgai dago Eya, Ttukun eta Eroskiko kioskoan, 12 eurotan.

JON BEREZIBAR

Autoa utzita, era iraunkorrez mugitzeko kontzientzia sortzen

Birzikleta Azoka, gidatze ekonomiko ikastaroa eta bizikleta bira, nagusi

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Mugikortasun Iraunkorraren Astea amaitzear da, baina oraindik ere egitarauak badu zer eskaini. Zapatuan eta domekan egingo dituzte antolatutako ekintza gehienak. Besteak beste, *Gidatze eraginkorra, gidatze ekonomikoa* ikastaroa, Birzikleta Azoka eta *Mugitzeko beste era bat* erakusketa egingo dituzte bihar, zapatua. Domekarako, berriz, azken urteetan bezala, pedalei eraginez Eskoriatzaraino joan-etorria antolatu dute.

Sentsibilizatzea helburu

Aste berezi honek herritarren kontzientzian eragin gura duela adierazi dio GOIENAri Josu Peredak, Udal Ingurumen Saileko buruak: "Funtsean, Arrasaten zehar norberaren automobila erabili barik mugi gaitezkeela gogorarazi nahi diegu herritarrei, dela autobusean, bizikletaz edota oinez mugituz".

Peredaren esanetan, urtez urte autobusa herritarren ohituretan finkatzen joan da, "nahiz eta bere garaian igogailu publikoak ipintzearekin apur bat jaitsi zen erabilera".

EKITALDI AIPAGARRIENAK

HILAK 22, ZAPATUA

09:30-13:30 *Gidatze eraginkorra, gidatze ekonomikoa* ikastaroa. Kulturaten.

11:00-15:00 Birzikleta azoka. Seber Altube plazan.

11:00-14:00 Segway eta Trikke ibilgailuak. Biterin.

11:00-15:00 *Mugitzeko beste era bat* erakusketa, emisio txikiko ibilgailuak. Biteri plazan.

HILAK 23, DOMEKA

11:00 Bizikleta bira Arrasatetik Eskoriatzara. Irteera Seber Altubetik.

Etorkizunean, bidegorriak

Modu iraunkorrez mugitzeko modu bat bizikleta erabiltzea da, eta funtsezkoa izango litzateke bidegorri sarea egotea herrian bertan. Egun ez dago halakorik, baina "zortzi hilabetean zehar proiektua garatzeko lanetan aritu da pertsona bat, eta herri barruko bidegorriaren ibilbidea nahiko zehaztuta dago. Hori aurrera noiz eraman daitekeen ikustear dago oraindik".

Etorkizunari begira, mugikortasunarekin lotutako beste asmo batzuk ere badituztela gaineratu du udal ordezkariak. Esaterako, oinezkoentzat gune gehiago egokitzea eta TAO sistema ezartzea zenbait tokitan.

Bizikletaren gurpila puzten. | IRATI GOITIA

Uribarriko Erretiratuen Etxeko tabernaren ustiapena, lehiaketara

Z.V.D.M. | ARRASATE

Uribarriko Erretiratu Etxeko taberna ustiatzeko esleipen prozesua jarri du martxan Arrasateko Udalak. Lehiaketa publikoa izango da, eta interesatuek urriaren 3ra arte izango dute eskaintza aurkezteko epea, Biztanleen Arreta Zerbitzuaren bulegoan.

BAZera eraman beharko dituzte aurkeztu beharreko dokumentuak. *Arrasateko Uribarri Jubilatuen Etxeko Tabernaren Erabilera eta ustiatzea adjudikatzeko lehiaketan parte hartzek proposamena* idatzi beharko dute gutun-azalean eta NA zenbakia, helbidea eta telefonoa idatzi behar dira.

Hasteko, urtebetez

Hautatuek bi proba gainditu beharko dituztela adierazi du Olatz de Miguelek, Ongizate Saileko buruak. "Bata, euskarazko proba praktikoa, eta bestea, Gamarrako eskolan egingo den ostalaritza-proba".

Urtebetez esleituko dute tabernaren kudeaketa, baina luzatzeko aukera egongo da, gehienez ere, lau urtez. Tabernaren kargu egiten denak zenbait betebehar izango ditu: garbiketa lanak, mahaietako zerbitzua ematea... Urri amaierarako martxan egotea aurreikusten du De Miguelek, "oraingo arduradunaren edo berriaren gidaritzapean".

Flamenko dantzak ikasteko aukera, La Pulgaren eskutik

Dantza flamenko ikastaroa antolatu du Gazte Bulegoak. Urriaren 16tik abenduaren 18ra, La Pulga gasteiztarrak emango ditu eskolak, martitzenetan. 20 euro (12 euro ikasle eta langabeek) kostatzen da izen-ematea: Gazte Bulegoa, 943 25 20 65 edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*.

Birziklatutako materialarekin bitxiak egiteko ikastaroa

Birtxigintza ikastaroa eskainiko du Dunixe Royok urriaren 17tik abenduaren 19ra bitartean, eguaztenetan. Material ezberdinak birziklatuz bitxi eta apaingarriak egiten irakatsiko du. Izen-ematea: Gazte Bulegoa, 943 25 20 65 edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*.

Zauriturik ez Polmetasa zaharreko sutean

Ertzaintzaren arabera, etxebizitza barruan zegoen koltxoi batek hartu zuen su, martitzen eguerdian

Polmetasako etxebizitza zaharra, kea dariola. | UBANE MADERA

U.MADERA/J. BEREZIARTUA | ARRASATE

Martitzenean piztu zen sua, 14:40 aldera, Polmetasa enpresarena zen etxebizitza zaharreko goiko solairuan, San Andres auzoan. Ordubete pasatxo geroago, 15:45ean, itzali zuten sua suhiltzaileek.

Ertzaintzak adierazi duenez, etxebizitza barruan zegoen koltxoi batek hartu zuen su eta ez zegoen inor barruan ezbeharra gertatu zen unean. Beraz, ez zen zauriturik egon. Susto baten geratu zen dena eta Ertzaintza oraindik ikertzen dabil gertatukoa, sua zerk eragin zuen jakin nahian. Su hartu zuen etxean Polmetasa lantegiko burua bizi zen lantegia zabalik zegoenean, baina azkenaldian gazte batzuek lokal moduan erabiltzen dutela esan digute auzotarrek.

Auzotarrak zaborragatik kexu

Gazteek ez dute sekula arazorik izan bizilagunekin, baina zabor asko dago inguruan eta auzotarrak askotan kexatu izan dira. Adierazi digutenez, sutea gauez gertatu izan balitz eta inguruan dagoen zabor guztia erre, kalteak orain baino handiagoak izango ziren. Horren aurrean neurriak hartzeko eskatu diote auzotarrek dagokionari.

Bestetik, pabiloiaren orubean, galdara zaharrak dauden lekuan, kanpotar asko bizi direla baieztatu digute San Andres auzoko bizilagunek; hau da, "joan-etorri handia" izaten dela bertan. Polmetasako eraikin zaharretik gertu bizi den auzotar batek honakoa adierazi digu: "Denetarik dago: arratoiak, euliak... Gauero gortinak itxi behar izaten ditut, bestela euli mordoa sartzen zait etxera. Lotsagarria da". Gune hori txukuntzea eskatzen du kaltetuak: "Leiho azpian bertan dugu zabor pila hori, eta gunearen jabe denak ardura hartu beharko luke, lekua kurioso uzteko".

ESANAK

"Denetarik dago: arratoiak, euliak... Lotsagarria da"

AUZOTAR BAT

Mendizaleen Oroimen Egunean jende asko batu zen, bide zaharretatik egindako ibilaldian

Besaide elkarteak antolatuta, koadrila polita elkartu zen joan den domekan Besaiden, urteroko Oroimen Egunerakin bat egiteko. Eguraldia lagun, sasoi batean gehiagotan erabiltzen zituzten bideetatik egin zuten martxa, Udalatik zuzen joan beharrean. Txistulari eta txalapartariek ongietorria egin ostean, meza entzun zuten; ondoren, dantzari eta txistulariak izan ziren.

Mendian hildakoen omenezko Oroimen Eguna, domekan. | BESAIDE ELKARTEA

Arrasateko mendi bizikleta martxa urriaren 20an egingo da, iazkoa baino ibilbide luzeagoarekin

Besaide mendizale elkarteak erabaki du dagoeneko noiz egingo den aurtengo mendi bizikleta martxa. Urriaren 20an izango da, eta, aurreratu dutenez, ibilbidea iazkoa baino luzeagoa izango da; besteak beste, Kurtzetxikitik pasako dira txirrindulariak. Urtero moduan, Musakolako kiroldegian hasi eta amaituko da eta egunean bertan eman ahal izango da izena.

Alejandro Franco faborito nagusi dela, hasi da Arrasate Hiria xake txapelketa

J.B. | ARRASATE

Abian da Arrasate Hiria xake txapelketaren 12. edizioa. Joan den egubakoitzean hasi zen, eta lehen jardunalditik bertatik lehia politak izan zirela adierazi digu Josu Tornayk, Arrasate Xake Taldeko presidenteak: "Jokalari onenak direnak txarrenen kontra lehiatzen dira, eta, normalean, partidu errazak izaten dira. Hala ere, lehia politak ikusi ziren, eta izan zen sorpresarik".

Finala, urriaren 19an

21 jokalarik eman dute izena eta aurten ere iazko irabazle Alejandro Franco madrildarra da faborito nagusia: "Seigarren ediziotik dugu gurekin eta ordutik hona ez du hutsik egiten. Asko gustatu zaio gure txapelketa; giroa gustuko duela eta partidu onak irteten direla diosku. Espainiako jokalaririk onenetarikoa da, eta, beraz, gozamena da guretako. Txapelketari beste xarma bat ematen dio". Francoren aurkari zuzena David Astasio izango da; izan ere, biek dute Nazioarteko Maisu titulua: "Horiek beste maila baten daude, profesionalak dira". Hala ere, debagoiendarren artean badaude ezustekoa emateko gaitasuna dutenak: Andoni Miguel, Asier Etxagibel, Aitor Alkaide, Juan Manuel Ruiz eta Josu Tornay bera, besteak beste. Urriaren 19an izango da finala, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Alejandro Franco izan zen iazko irabazlea; aurten ere faborito nagusia da. | ARTXIBOA



PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

Olatz
Musika akademia
• Gitarra, piano eta baxu eskolak.
• Irakasteko hainbat metodo aukeran: solfeoa, tablatura, zifratu amerikarra eta esperimentala.
• Adin guztietarako.
Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.
Tel.: 627 13 26 14 • *olatzurkia@gmail.com*

Herrixa Dantzan ekimena bueltan dator aurten ere

Izena AEDn edo Gazte Bulegoan eman behar da; ikasturtea urriaren 8an hasiko dute

J.B. | ARRASATE

Portaloi elkarteak plazako dantza tradizionalen ikastaroak antolatu ditu 2012-2013 ikasturterako. Helduendako ikastaroa da, Euskal Herriko plazetan ohikoak diren dantzak ikastea eta batez ere ondo pasatzea helburu dituena.

Astelehenero bilduko dira Zerrajera zaharreko eraikinean –Saiolan moduan ere ezaguna– eta lehen eskola-eguna urriaren 8an izango da.

Mailen arabera antolatuta

Ekainera arte 33 saio egingo dituzte eta mailen arabera hainbat ordutegi zehaztu dituzte: lehen mailakoak, hau da, lehen aldiz izena emango dutenak, 17:00etatik 18:30era; bigarren mailakoak, berriz, 18:30etik 20:00etara elkartuko dira eta, azkenik, dantza txokoan parte hartu gura dutenek 20:00etatik 21:30era dute hitzordua. Izena emateko edota argibide gehiagorako, bi bide: batetik, AEDn eman daiteke izena, 943 77 12 28 telefonora deituta; bestetik, Gazte Bulegora jo daiteke, edo 943 25 20 65 telefono zenbakira deitu.

"Edozeinek egin dezake"

Aurten ere Patxi Montero izango da irakaslea. Aurreko urteetako esperientziari eutsiko dio: "Dantza tradizionala naturala da, prestakuntza berezirik ez duena, eta edozeinek egin dezakeena. Denetariko dantzak izango dira saio horretan: sokan, taldean eta bikoteka egiten diren dantzak, eta baita bikoteak aldatzen doazen dantzak ere. Hala ere, bereziki taldeko dantzak izango dira gehien jorratuko ditugunak".

Herrixa Dantzan ekimena, Arrasaten. | GOIENA

Goi mailako lau talderen kontzertuak gaztetxean

NCC eta Lobo Electrico gaur eta Iheskide eta McOnak bihar, 22:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gaztetxea kontzertu indartsuen lekuko izango da asteburu osoan. *Kooltur Asteburua* izenburuarekin Kooltur Ekintzak eta Gaztetxeko Asanbladak –AGAKO– antolatu dituzte gaurko eta biharko kontzertuak.

Kooltur Ostegunak ekimenerako erabiltzen duten soinu ekipoaren zorra ordaintzen laguntzeko, asteburu berezia antolatu dute: "Kontzertuak soinu ekipoa ordaintzeko antolatu ditugu. Pixkanaka bagabiltza ordaintzen baina oraindik zerbait falta zaigu", dio Iker Barandiaran Kooltur Ekintzako kideak. Aurreratu digu hirugarren ikasturtea ere sorpresaz eta proposamen berriez datorrela; Maritxu Kajoi bezperan hasiko da.

Gipuzkoarrak gaur...

Lau talde asteburu honetarako: Lobo Electrico eta Nuevo Catecismo Catolico gaur, eta Iheskide eta McOnak bihar. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira eta sarrera bost euro ordaindu beharko da.

Donostiako auzuneetako NCC taldeak 20 urte bete ditu punk-rocka, power-popa, hard-rocka eta rock onena sinesgarritasunez eta duintasunez lantzen. Urteurren berezia dela-eta, hainbat argitalpen prestatu dituzte eta, aspaldian zuzenean gutxitan aritzen badira ere, gurean izango dira gaur. Bestalde, Tolosako Lobo Electrico, Santi Iribar *frontman* handia lemazain duen barku pirata da, uneoro zein norabide hartuko duen jakiterik ez dagoena: "Rock klasikoenaren eta gordinenaren itsasoetatik barrena joateko, marinel guztiek izerdia barra-barra emango dute... baita zuk ere!", adierazi dute antolatzaileek.

NCC taldeak joko du gaur, Lobo Electricorekin batera. | NCC

> ESANAK
>
> **"Soinu ekipoa ordaintzeko antolatu dira kontzertuak"**
>
> IKER BARANDIARAN | KOOLTUR

...eta bizkaitarrak bihar

Bizkai aldetik etorriko dira, berriz, zapatuan jardungo duten Iheskide (Elorrio) eta McOnak (Lekeitio) taldeak. Gaurkoak baino talde gazteagoak dira baina oso sasoitsu datoz. Iheskide bueltan dator Arrasatera ...*Irabazi arte!* diskoa aurkeztera. Rock matxinoaren gerrilariek biharkoa punk-rock errebeldearen gau bilakatuko dute.

Haiekin batera Fiachras taldearen eskolan hazitakoa dirudien McOnak talde berria dator. Antolatzaileek honela azaldu dute talde bergararrarekin duten antzekotasuna: "Punk-rocka gustuko badute ere, folk tabernaria eta countrya ere lantzen dituzte, saxo eta txirularekin lagunduta".

Maritxu Kajoi egunean lan egiteko dei egin du Txosna batzordeak

Maritxu Kajoi ate joka dabilenez, antolaketa lanetan hasita daude herriko hainbat talde eta eragile. Bada, Txosna batzordeak herritarrei dei egin die txanda ezberdinetan izena eman dezaten; Iratin eta Iluntzen, esaterako, dagoeneko jarrita daude ordutegi ezberdinetarako taulak.

Eroskiren autobusaren geldialdia gaur, bihar eta astelehenean

"Elikadura osasungarriaren eta kontsumo arduratsuaren ohiturak zabaltzeko", Eroskiren autobusak geldialdia egingo du Arrasateko hipermerkatuan gaur, bihar eta astelehenean. Goizean zein arratsaldean egongo da zabalik. Besteak beste, begiraleek elikagai ezberdinak nola konbinatu irakatsiko diete bertaratzen direnei.

Ezohiko batzar orokorra bihar Danok Bat elkartean

Danok Bat elkarte gastronomikoan ezohiko batzar orokorra egingo dute bihar. Gaien artean daude estatutu berriak onartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarte Gastronomikoen Elkargoan sartu edo ez bozkatzea. Lehen deialdia 11:30erako egin dute eta bigarrena, 12:00etarako.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta
arrasate
beinke

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK
URRIA - EKAINA
ASTELEHENETAN / Hasiera: urriak 8
1. maila: 17.00 - 18.30
2. maila: 18.30 - 20.00
Dantza-txokoa: 20.00 - 21.30
IZENA EMATEA
AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.com
GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Antolatzailea
Portaloi Kultur Elkartea
Laguntzaileak
aed arrasate euskaldun dezagun
gaztebulegoa.com

Astelehenean hasita, industrialdeetara bisitak

Urrian herritarrendako bulegoa zabalduko dute, azokako bigarren solairuan

UBANE MADERA | BERGARA

Industrialdeetako negozioen ordezkariei atez ateko hondakinen bilketak ekarriko dituen ondorioen gaineko azalpen orokorra eman diete asteon. Berez, 250 industriatako ordezkariak zeuden deituta, eta 40k parte hartu dute atez atekoaren informatzaileek Irizar jauregian zein udaletxean egindako batzarretan.

Gaur egun edukiontziak daude enpresen aurrean. | U.M.

Maiztasuna eta beste

Hiri-hondakinak (materia organikoa, papera eta kartoia, ontzi arinak, errefusa eta beira) jasotzeko maiztasuna, hondakinen ezaugarriak eta bestelakoen gaineko azalpenak eman dizkiete. Adibidez, kartoi kopuru handia sortzen dutenentzat bilketa estrak izango direla; edo beirazko ontzientzat gaur egun dauden iglu berdeak mantenduko direla.

Horrez gainera, negozioen ordezkarien kezkak eta eskaerak ere jaso dituzte; eta eurek erabaki beharrekoen berri ere eman diete. Esaterako, "ideia da eurek aukeratzea edukiontzien tamaina eta kokagunea. Adibidez, jangela dutenek materia organikoa batzeko edukiontzi handiagoa beharko dute", esan du Maria Gonzalez informatzaileak.

Hark gaineratu duenez, astelehenetik aurrera, berriz, industriaz industria joango dira beharrezko informazio guztia batu eta zalantzak argitze aldera.

Hondakin arriskutsuak

Industrialdeetako ordezkariek azaleratutako kezkei dagokienez, berriz, hiri-hondakinak ez diren gainontzeko hondakinen kudeaketarekin lotutakoak izan dira gehienak. "Halakoak eurek kudeatu behar dituzte. Gehienek ondo egiten dute hori, baina batzuk, hala ere, edukiontzi berdeetan azaltzen dira. Horrez gainera, produktore txikiek oso hondakin arriskutsu gutxi baldin badituzte, ez dituzte horiek batzen. Eta orain behar dute jakin horiek zela kudeatu behar diren. Horren gaineko informazioa ere ematen dugu. Hala ere, eta ekoizle txikien kasuan, interesa duenak Gipuzkoako Bazkundera dei dezake, honako telefono honetara: 943 00 02 85. Izan ere, enpresa handiendako errazagoa da tasak ordaintzea", jakinarazi du Gonzalezek.

Herritarrendako, azokan

Bestalde, eta herritar guztiei begira, bulegoa zabalduko dute atez ateko informatzaileek urrian. Hain justu ere, azokako bigarren solairuan izango dira azalpen guztiak ematen, astelehenetik eguenera, 10:00etatik 19:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara. Horrekin batera, telefono zenbaki orokor bat eta helbide elektroniko bat ere emango dituzte, bertara joan ezin direnendako.

Aurrerago, berriz, herritarrendako beste bulego bat ere zabalduko dute, Martokon.

EH-Bilduk urriko hauteskundeen garrantzia azpimarratu du

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gasteizko Parlamenturako hauteskundeen garrantzia nabarmendu du Bergarako EH-Bilduk: "Lehenengo aldiz, ezkerreko abertzale eta soberanistok lor dezakegu lehen indarra izatea. Euskal Herria Bildurena adinako indar batasunik ez da egon lehenago herri honetan", diote bidalitako prentsa oharrean, eta horregatik urriaren 21eko hauteskundeek "garrantzi berezia" hartzen dutela diote.

Bergarako EH-Bilduko ordezkarien arabera, bi proiektu baino ez daude lehian lehenengoz: "Batetik, kudeaketa neoliberala eta autonomista eskaintzen duten alderdiena, betikoena; bestetik, gurea, Euskal Herria ezkerretik eraiki nahi dugunona".

Boto bat bera ere ez galtzea beharrezkotzat jotzen dute, eta, horregatik, Barrenkalen bulegoa zabaldu dute posta bidezko botoa egin nahi dutenendako. Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik goiz eta arratsalde, eta baita zapatuetan goizetik ere.

Hilaren 26ko greba orokorrari buruz, harekin bat egiten dutela diote prentsa oharrean, eta krisiaren aurrean eraldaketa soziala eta burujabetza aldarrikatzen dituzte. Era berean, Arcelor Mitalleko langileekiko elkartasuna adierazi dute.

San Martin jai parte-hartzaile, jendetsu eta lasaiak izan dira

M.B. | BERGARA

Udal ordezkariek zein San Martinen kanonizazioaren urtemugaren harira sortutako talde eragileak jaien balorazio positiboa egin dute. Udal ordezkarien esanetan, antolatutako hitzorduetan ez da gorabeherarik izan, eta egondako giro aparta azpimarratu dute. Udaltzaingoari ere gertakarien gainean galdetuta, hauxe esan dute: "Egon den jende kopuru handirako, jai lasaiak izan dira".

San Martinen omenez antolatutako ekitaldien kasuan, Valen Moñuxi galdetuta hauxe esan du: "Balorazio oso ona egiten dugu. Oso pozik gaude. Ekitaldi berezi guztiek arrakasta handia izan dute". Penatxo bakarra, gurutziltzatzeko unean, Aitzol Muxikaren kablerik gabeko mikrofonoa hondatu izana izan zen. Osterantzean, "bergararren erantzuna ikusgarria izan da", esan du Moñuxek, eta gehitu: "1962tik hona gizartea zeharo aldatu da, eta, zoritxarrez, arlo askotan, nahiko urrunduta gaude batzuk besteengandik. Hala ere, argi dago San Martin jaiak eta San Martin Agirreren figura bergarar guztiok batzen gaituzten motiboak direla oraindik".

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

JOXAN ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Greba Asanbladako ordezkarietako batzuk mobilizazioen kartela eskuan dutela. | MONIKA BELASTEGI

Greba Asanbladak 26an mobilizatzeko eskatu du

Egun horretarako manifestazioa antolatu dute, 19:00etan, San Martin plazatik abiatuta

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bergarako Greba Asanbladak irailaren 26rako deituta dagoen greba orokorrarekin bat egin du eta herritarrei "greba egin eta indar osoz mobilizazioetan parte hartzeko" dei egin diete, "murrizketek denoi eragiten" digutelako.

Martitzenean egindako prentsaurrekoan ondorengoa esan zuten batzordeko ordezkariek: "Agintariek erabaki dute. Multinazionalek, bankuek, patronalak; EAJ, PSOE eta PPren gobernuek erabaki dute, aberatsak aberatsago izango dira eta krisia herritarrok ordainduko dugu".

Horrekin batera, martxoaren 29ko grebaren ondorengoez ere egin zuten berba: "Martxoaren 29ko greba arrakastatsuari Espainiako Gobernuak emandako erantzuna argia izan da, beraiek berearekin jarraitzeko asmo irmoa azaldu dute, murrizketekin; herritarron bizi baldintzak are eta gehiago okertuz eta miseria handituz". Eta horren adibide garbia, besteak beste, "oinarrizko errenta jasotzeko baldintzak zailtzea, BEZaren igoera eta langabezia prestazioan murrizketak" direla esan zuten. Eta gehitu zuten: "Nahikoa ez eta oraindik murrizketa eta erreforma gehiagorekin mehatxatzen jarraitzen dute".

Mobilizazioak bezperatik

Horren guztiaren aurrean "eskuak gurutzatuta ezin" garela geratu azpimarratu zuten eta honako greba egun zein bezperarako antolatu dituzten mobilizazioen berri eman zuten.

Hilaren 25an, auto karabana abiatuko da 19:00etan, herri kanpoko Eroskitik. Greba egunean, hilaren 26an, manifestazioa egongo da 19:00etan, San Martin plazatik abiatuta.

Horrekin guztiarekin batera, herrialdekako manifestazioak ere deitu dituzte sindikatuek. Donostiakoa, adibidez, 12:00etan abiatuko da.

Txapa Irratiak saioa egiteko interesa duten guztiak hilaren 23an egingo duten batzarrera deitu ditu

Ikasturte berriko programazioan parte hartu nahi duten herritar guztiei egiten diete dei hilaren 23an, domeka, gaztetxean, 19:30ean egingo duten asanbladara. Txapako kideen arabera, "inoiz baino beharrezkoago gara komunikabide herritarrak, herritik herriarentzat eginak. Inoiz baino beharrezkoago merkatutik eta boteretik at dauden komunikabideak, herriko kolektibo eta proiektu ezberdinei ahotsa emango dietenak". Eta gehitu dute: "Anima zaitezte. Gerturatu irratira, ikasi saioa egiteko beharrezkoak diren lau botoi erabiltzen eta salto egin 97.20ra".

Irailaren 29ko Real-Athletic partidurako autobusa antolatu du Erreal Zaleak lagunarteak

Irailaren 29an Real-Athletic partidurako Erreal Zaleak lagunarteak Donostiara joateko autobusa antolatu du. 12.00etan abiatuko da, autobus geltokitik. Izena emateko eta txartelak jasotzeko Matxiategi Elektragintzatik pasatu behar da 26a baino lehen, eta lagunartearen agiria erakutsi. Zerbitzua Erreal Zaleak lagunarteak ordainduko du. Bestalde, gogora ekarri nahi dute Gabonetako Loteria ere jasotzeko prest dagoela denda berean. Bide batez, bertan sakelako telefono zenbakiak emateko ere eskatu dute.

Zabalik dago Udal Euskaltegiko ikastaroetan izena emateko epea irailaren 28ra bitartean

Maila guztietan ematen dituzte euskara ikastaroak: hasierako mailak; HABEko lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak; EGA; euskalkia... Bestalde, berrikuntzak ere badituzte ikasturte berrian: mintza lantzeko saioak, hain justu ere. Izen-ematea Udal Euskaltegiaren bulegoan egin behar da –Irizar jauregia, Barrenkalea 33–, bulego orduetan: 08:30etik 13:00etara eta 14:30etik 18:30era. Interesatuek bekak eta dirulaguntzak ere eskura ditzakete.

Katekesirako izenematea zabalduko dute astelehenean, Komenio kaleko bulegoetan

Ikasturte berriarekin batera, katekesi eskolak ere abiatuko dira. Hain justu ere, astelehenetik, hilaren 24tik, eguaztenera, hilaren 26ra, eman ahal izango da izena katekesian. Horretarako parrokiek Komenio kalean dituzten bulegoetara joan beharko da, 17:00etatik 18:00etara bitartean, esandako egunetan, San Pedro eta Santa Marinako parrokoek esandakoaren arabera. Katekesiko maila guztietarako eman beharko da izena esandako egun eta ordutegian.

OHARRAK

EQUO-K BATZARRA DEITU DU

Hilaren 27an egingo dute, 19:30ean, kultura etxean, eta interesa dutenek har dezakete parte. Hiru puntu landuko dituzte: batetik, duela urtebete ahateak hilik agertu ziren eta geroago arrainak: administrazioen gestio kaxkarrak eragindako hondamendia; bestetik, *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa; eta Fiare moduko banku etikoen jarduerak, hain zuzen ere.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Marrazki eta pintura klaseak
Edurne Eraña
MARGO IKASTAROA
Hasiera: urriak 1
Arrizuri 5, 1.C
BERGARA
Tel.: 651742154

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Mujika gozotegia
Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.
Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Burdiñate akademia
Puente al Inglés
Ingeleseko klaseak • Azterketa ofizialen prestaketa
Eskolen errefortzua
Informa zaitez konpromiso gabe!
Tel.: 659 33 17 41 - 671 36 12 96 - Burdiñate 5 behea, BERGARA

Nagore Iñurrategi | Gipuzkoako Eskola Txikien lehendakaria

"Eskola Txikiak altxorrak dira, eta zaindu egin behar ditugu"

Adin aniztasuna geletan eta herri nortasunaren transmisioa bultzatzea dira ezaugarrietako bi

O.E. | BERGARA

Gipuzkoako Eskola Txikiek 25 urte bete berritan hartu du lehendakari kargua Nagore Iñurrategik: "Altxor hau zaintzeko helburuarekin, Eskola Txikien mugimendua indartzen eta sendotzen segitzeko asmoz".

Zorionak.

Eskerrik asko.

Zeintzuk dira erronkak?

Erronka nagusien artan, batetik, hezkuntza komunitateko erlazioak estutzea. Gurasoen, irakasleen eta Udalaren arteko elkarlana seme-alabek kalitatezko hezkuntza jaso dezaten. Bestetik, herria bizirik mantentzeko gakoetako bat dira. Herriari oso lotutako proiektuak izaten dira Eskola Txikietan, landa eremuko balioak transmititzen dira. Horiez gain, Eskola Txikien proiektua ezagutaraztea eta haren garrantzia eta balioa aitortzea. Hezkuntza eredu moduan edo planteamendu moduan indartzea eta zabaltzea.

Zenbat daude Gipuzkoan?

Landa eremuko Gipuzkoako herri eta auzo txikietan (1000 biztanlez azpikoak) daude eskola hauek. Eskola guztiek harremana daukate eta Gipuzkoako Eskola Txikien Guraso Elkarteen Koordinakundean biltzen dira. 27 herri eta auzo daude ordezkatuta hor. Gurean, bat, Angiozarkoa.

Zein da Angiozarko Eskola Txikiaren egoera?

Eskola Txikien egoera, orokorrean, kezkagarria da. Izan ere, administrazioak askotan eskola handien parametrotatik neurtzen dituzte txikiak ere. Horrek batzuetan zaildu egiten du eskolan nahi besteko ziklo, gela… mantentzea edota lortzea. Angiozarren, egun, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloak dauzkagu. 15 ikasle daude, 2 eta 9 urte artekoak. Irakasle eta gurasoen arteko harremana estua da eta inplikazio handia dago bi aldeen artetik. Hezkuntza proiektu polita eraikitzen ari garen sentsazioa daukat.

Nagore Iñurrategi Irizar. | N.I.

Irizar jauregian egin zuten Kirol Eskolen aurkezpena, astelehenean. | OIHANA ELORTZA

Bi kirol egingo dituzte aurten futbol eskolakoek

Futbolaz gain, saskibaloia edo eskubaloia aukeratu behar izan dute

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Formula berria aplikatu dute aurten Kirol Eskolan. Horrela, futbola aukeratu duten umeek saskibaloia edo eskubaloia ere aukeratu behar izan dute, biak tartekatzea baita helburua. "Futboleko eskola behar bezala emateko aukeratu dugu formula hau, eta futbol zelaiari arnasa emateko. Horrela ez balitz, apuntatutako ume asko kanpoan geldituko lirateke", azaldu zuen Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi saileko Alex Gardokik.

Futbolean dago, beraz, aurtengo berritasuna, eta futbol saileko Jose Manuel Zuluetak eman zituen azalpenak: "Planteamendua hauxe da: bi astean futbola egingo dute eta hirugarren astean saskibaloia edo eskubaloia, haiek aukeratu dutena. Apuntatu direnen artean hiru talde egitea da asmoa. Modu horretara, ume gutxiago egongo dira astero futbolean, eta futbol zelaiari ere arnasa emango diogu". Beraz, aurten futbola aukeratu dutenak ez dira bakarrik eskola horretara joango, saskibaloikora edo eskubaloikora ere joango dira. "Aurten probatu nahi dugun formula da. Elkarte moduan egin gura genuen eta horrelaxe adostu dugu Bergara Kirol Elkartearekin batera", azaldu zuen Lauri Askargortak, Kirol zinegotziak. "Hala ere, funtzionatzen ez duela ikusten badugu, hurrengo urtean beste planteamendu bat egitea posible da", gehitu zuen Zuluetak. Aurten ere partiduak jokatuko dituzte futbolean.

Joan den urteko kuota bera

Bergarako Kirol Elkarteko hiru sailetako ordezkariek eta kirol zinegotziak hartu zuten parte astelehenean egin zuten Eskola Kirolaren aurkezpenean. Guraso asko ere joan ziren, eta euren kezkak ere azaldu zituzten; tartean, hiru kirol bakarrik egotea Kirol Eskolako eskaintzan, eta bertan parte hartzeko baldintzen ingurukoak. "Eskola Kirolean dauden Lehen Hezkuntzako ikasleak dira Kirol Eskola aukeratu ahal dutenak", argitu zuen Askargortak, "legean horrela jasota dagoelako". Prezioari dagokionez, aurten 75 euroko kuota ordaindu dute apuntatu direnek; hau da, iazko kopuru bera.

Astelehenetan izango dira

Kirol Eskolak urriko bigarren astean hasiko dira eta astelehenetan izango dira. Saskibaloiko saioak Mariaren Lagundian egingo dituzte eta eskubaloikoak, berriz, Zabalotegin. Biak izango dira 17:00etatik 18:30era, eta tarte horretako edozein unetan joan daitezke umeak.

Futboleko eskolak Ipintzan izango dira, betiko moduan. Ordutegia, aldiz, zehazteke dago, apuntatzen diren umeen arabera adostuko baitute. Asmoa da, hala ere, hiru talde egitea.

SAN LORENTZO AUZOA
B E R G A R A

167.500€-tik aurrera
27.869.655 pta

Ez itxaron gehiago!
BEZ a %4 abenduaren 31 arte

1, 2 eta 3 logela, sukaldea barne
Garaje eta trastelekuak

Etxebizitzen bukaera 2012

Eraikitzailea
INGESLAN CONSTRUCCIONES

Sustatzailea
Grupo Ormak

Argibideak eta Salmenta
943 424 430
www.ormak.es

Salgai jaietako zapi gorriak eta herri bazkariko txartelak

Dagoeneko salgai daude San Migel jaietako zapiak eta herri bazkarirako txartelak. Zapiak kultura etxean daude salgai, euro baten truke, 16:30etik 20:30era. Herri Egunean Zubikoan egingo den urteroko herri bazkarirako txartelak, berriz, kultura etxean ez ezik, herriko taberna hauetan ere badaude salgai, 19 eurotan: Izarraitz, Arrano, Antton eta Olakuan.

Bestalde, gaur iluntzean jarriko dituzte salgai urriaren 5eko *Soinuberbak* ikuskizunerako sarrerak; bertsoa eta trikitia uztartzen dituen ikuskizuna da. Kultura etxean, 10 eurotan.

Eskola Kirolaren urteko kuota igo egin da, murrizketengatik

Eskola Kirolaren urteroko kuota igo egin da. Oñatiko Eskola Kirol batzordeak hartu du erabakia eta arrazoia da Diputazioak dirulaguntza txikiagoa eman duela programa finantzatzeko. Aurten, beraz, aste barruko kirol programan edo zapatuetako kirol txapelketan parte hartzeko, 45 euro ordaindu behar ditu ume bakoitzak, eta 60 euro zerbitzu bietan parte hartu gura badu. Ikasturte osorako kuotak dira. Bestalde, Eskola Kiroleko mendi irteeretan parte hartzea doan izango da aurten ere. Izen-ematea hilaren 28ra arte izango da. Familiek aukeratuko dute epe baten edo bitan ordaindu.

Postetxe gainean bi etxebizitza daude. | TXOMIN MADINA

Postetxe gaineko etxeak sozial bihurtuko dituzte

Bi etxebizitza daude postetxe gainean, eta dagoeneko hasi dira erabilgarri izateko prestatzen

TXOMIN MADINA | OÑATI

Oñatiko Udalak postetxe gainean dauden etxebizitzak etxebizitza sozial bihurtu gura ditu, eta dagoeneko hasi dira horretarako lanetan. Aurreikusten dute lehenengo etxebizitza azaro ingururako egongo dela prest.

Oñatiko postetxearen goiko solairuetan bi etxebizitza daude, eta horiek dira Udalak etxebizitza sozial moduan erabili gura dituenak. Kontzeptu horretarako ia 69.000 euroko aurrekontua du aurten Udalak, eta dagoeneko hasi dira etxebizitza horietako bat konpontzeko eta erabilgarri jartzeko lanetan. Aurreikuspenen arabera, azaro ingururako prest egongo da lehenengo etxebizitza, eta bigarrena datorren urterako utziko litzateke. Oraindik erabakitzeke dagoena da etxebizitza sozial hauek alokairuan emango diren edo larrialdi kasuetarako erreserbatuko diren. "Posible da, adibidez, herritar batzuei etxea erre bazaie haiei eskaintzeko gordetzea etxebizitza bat. Oraindik aztertzeko dugu erabilera zehatza", argitu du Gizarte Zerbitzuetako Ainhoa Moiuak.

Bederatzi etxebizitza sozial

Postetxekoak, baina, ez dira Oñatin egongo diren etxebizitza sozial bakarrak. Egun bederatzi daude. "Horietako zazpi Bidebarrietan daude eta beste bi Zubillaga auzoan. Une honetan, gainera, zortzi okupatuta daude. Duela gutxi libratu da bat eta urtea bukatu aurretik berriz betetzea aurreikusten dugu", azaldu du Moiuak. Urtea amaitu baino lehen adjudikazio prozesua martxan egotea espero du Udalak.

Bete beharreko baldintzak

Etxebizitza sozial horietako bat bete gura dutenek hainbat baldintza bete behar dituzte: "Edozein herritarrendako dira, baina gutxienez 5 urtez egon behar dute Oñatin erroldatuta. Horrez gain, haren egoera ekonomikoa, familiarena eta momentuko egoera sozioekonomikoa ere hartzen dira kontuan. Eusko Jaurlaritzak ere baldintzak jartzen ditu, eta, horiek guztiak betez gero, zerrendan jasotzen da. Puntu gehien batzen dituen familiarendako izaten da, gero, etxea", argitu gura izan du Gizarte Zerbitzuetako teknikariak.

Interesa piztu du

Azkenaldian horrelako etxebizitza sozialen inguruko eskariak igo diren edo ez galdetuta, Ainhoa Moiuak dio ez dutela horrelakorik bereziki nabaritu, baina zehaztu du postetxeko etxebizitzak interesa piztu dutela.

DATUA

9

ETXEBIZITZA SOZIAL

9 etxebizitza sozial daude egun: zazpi Bidebarrietan eta bi Zubillagan.

Autorik Gabeko Egunean, bizikletak eta hankak

Erdiko kaleak itxita daude gaur ibilgailuendako, eta gosaria dute lanera bizikletan doazenek

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Autorik Gabeko Eguna da gaur Oñatin, eta erdiguneko kaleak itxita egongo dira ibilgailuendako. Bizikletan eta oinez doazenek lehentasuna izango dute. Europan bihar da Autorik Gabeko Eguna, baina Oñatin bezperara aurreratu dute. Udalak eta Txirrinka elkarteak elkarrekin antolatu dituzte gaurko ospakizunak.

Gaur, beraz, erdiko kaleak itxita egongo dira ibilgailuendako, hala nola Unibertsitate etorbidea, Portu kalea, Euskadi etorbidea, Lazarraga kalea eta Atzeko kalea. Motordun ibilgailuak ezin izango dira kale horietan ibili. Ondorioz, Bidaurretako biribilgune parean, Arantzazuko Ama kalean, Zubibarrin, Errekalden eta Kurtzebiden itxita egongo dira kale horietara sartzeko bideak.

Gosaria eta bizikleta martxa

Bestalde, gosaria banatuko dute lanera bizikletan edo oinez doazenen artean. Txaketuaneko kantoian egongo dira gosariak banatzen gaur goizean, 07:00etatik 09:00etara.

Horrez gainera, bizikleta martxa ere antolatu dute. Arratsaldean izango da hori, 18:00etan. Herriko plazatik abiatuko da eta ibilbailuendako itxita dagoen zirkuituan barrena egingo dute bizikleta martxa. Autorik Gabeko Egunerako antolatu dute bizikleta martxa hori; edozelan ere, asmoa da antzeko ekintzak egitea maiztasun jakin batekin.

Joan den urteko danborrada plazara heltzen. | GOIENA

Zaharren egoitzara joango da umeen danborrada

30 urte egingo ditu bihar, eta antolatzaileek dei berezia egin dute umeak mozorrotuta joateko

O.E. | OÑATI

Zaharren egoitzara joango da aurten umeen danborrada, hango bizilagunak ere festa giroan sartzeko. 30 urte beteko ditu biharko umeen danborradak, eta berritasunetako bat da hori.

"Lau konpainiak hartuko dute parte eta bakoitzeko hiruzpalau ume joango dira danborra jotzera San Martingo zaharren egoitzara. Kapitainak ere joango dira. Musika jarriko dugu han eta 20 bat umeko taldeak danborra joko du, hango egoiliarrendako. 17:00etan izango da hori. Gero, Santa Marinara jaitsiko dira umeak, handik abiatuko baita, betiko moduan, aurtengo umeen danborrada, 18:00etan", argitu du antolatze lanetan ibili den Argilorain Perosterenak. Santa Marinatik irten eta betiko ibilbidea izango du danborradak, eta herriko plazan bukatuko du. Amaitu ostean, baina, merkatu aldera joango dira umeak, nagusien danborradan moduan, ez Alhondigara, orain arte bezala.

Oñatiko zaldiak

Aurten, gainera, Oñatikoak dira danborrada aurrealdean joango diren zaldiak: Jon Elortzarenak, hain zuzen ere. Zaldi gainean, berriz, 9 urteko Joritz eta Naia joango dira.

Guztira, 150 bat umek hartuko dute parte biharko umeen danborradan. 30. urteurrenaren harira, antolatzaileek dei berezia egin dute herriko umeak mozorrotuta joan daitezen. "Urtetik urtera ume gutxiago joaten da mozorrotuta, eta hori berreskuratu gura dugu", arrazoitu du Argilorain Perosterenak.

Saskibaloi sailarendako 600 bazkide lortzeko helburuarekin

Natra-Oñati taldeak bazkide kanpaina abiaraziko du gaur, 19:00etan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko saskibaloi sailak bazkide kanpaina abiaraziko du gaur. EBA ligan diharduten jokalariak eta entrenatzaileak plazan egongo dira, 19:00etan. Zaleek aukera izango dute taldeko aurpegi berriak ezagutzeko eta bazkide txartela egiteko. Bazkide kanpainaren helburua iazko kopurua berdindu edo gainditzea da: 600 bazkide egitea. "Zubikoako harmailak bete gura ditugu, iazko moduan. Bazkideen ekarpena ezinbestekoa izan zen", diote saskibaloikoek.

Natra-Oñatikoak, eguazteneko entrenamenduan. | ARATZ LOSADA

Bazkide egiteko mahaia

Ekitaldia herriko plazan egingo dute. Mahaiaren bueltan saskibaloi saileko presidente Jose Luis Campo, zuzendari tekniko Gorka Judez, Eneko Blanco entrenatzailea eta fitxaketak egongo dira: Xabier Osa, Josean Cavada eta Xabier Odriozola. Musikaren laguntzarekin jokalariak aurkeztuko dituzte. Gainera, bazkide kanpainaren nondik norakoak azalduko dituzte: bazkide egiteko lekuak, abantailak, prezioak... Dena den, plazan bertan bazkide txartela tramitatzeko mahaia egongo da. "Txartel berriak egingo ditugu. Iazko txartel gorriek ez dute balio. Denboraldi berria, txartel berria", esan digute saskibaloi sailekoek. Bazkide txartela egiten dutenen artean sariak banatuko dituzte Natra-Oñatik etxean jokatzen duenean, hain zuzen ere.

Euskal Kopa aste bukaeran

Bestalde, bazkide kanpainaz gain, taldea jokoan ikusteko aukera izango dute zaleek aste bukaeran. Izan ere, Euskal Kopa jokatuko dute, zapatuan eta domekan.

Zapatuan EBA ligan diharduen EHU taldearen kontra lehiatuko dira Eneko Blancoren mutilak, eta domekan, 12:00etan, Zubikoan, LEB mailan –EBA maila baino bat goragokoa dena– jokatzen duen Araberriren kontra. Horiek biak dira denboraldiko lehen partidu ofizialak. Hori horrela, saskibaloi sailekoek dei berezia egin gura diete zaleei Zubikoako kantxara joateko. "Taldea zuzenean ezagutzeko aukera izango dute. Jokalari berriek non jokatzen duten. Sarrera doakoa izango da, eta zale guztiak gonbidatu gura ditugu", diote.

EBA liga urriaren 27an hasiko da. Natra-Oñatik Zubikoan jokatuko du Easo Pastas Arruabarrena taldearen kontra. A multzoan 12 talde daude.

Gipuzkoako basoko arku tiroketa txapelketa Arantzazun

Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta Gipuzkoako arku tiroketa txapelketa egingo dute domekan, hilaren 23an, Zozopase inguruan, Arantzazun. Euskal Herritik bertatik eta kanpotik etorritako 60 bat tiratzaile lehiatuko dira, 09:30ean. Era berean, domekako proba IV. San Migel saria izango da. Ikusleendako irekia izango da.

San Migeletako pilota txapelketako finalerdiak bihar

Aloña Mendiko pilota sailaren San Migeletako 33. txapelketako finalerdiak bihar eta hilaren 29an jokatuko dituzte Zubikoako pilotalekuan, 17:00etan. Gazte eta senior mailetako irabazleek finala jokatuko dute urriaren 7an, 16:30ean. Ondoren, profesional mailako partidua jokatuko dute: Mikel Goñi-Galartza VI.a. eta Eugi -Fernando Goñi.

Amateur mailako ziklista onenak Olakuako irteeran

Lehendakari txapelketarako puntuagarria den proba jokatuko dute amateur mailako ziklistek bihar. 10:00etan Olakuatik irten eta 100 kilometroko lasterketa egin beharko dute. Aitor Umerez oñatiarrak ezin izango du parte hartu, min hartuta dago-eta. Bidelan taldeko zuzendaria Jon Odriozola izango da.

Ageriko pintura lehiaketa egingo dute teknika eta gai libreak erabilita

M.B. | OÑATI

Oñatiko Margo Taldeak antolatuta (OMT), X. ageriko pintura lehiaketa egingo dute domekan, hilaren 23an. Lehiaketan parte hartu gura dutenek euskarriak jaso beharko dituzte kultura etxean 09:00etatik 11:00etara arte. Lanak leku berean utzi beharko dituzte 14:00ak baino lehen. Aire zabalean eta herrian bertan egin beharreko lanak dira, eta margolari bakoitzak erabakiko du zein teknika, formatu eta gai erabili. Arlo horietan ez dago baldintzarik. Izan ere, baldintza bakarra da margolana euskarri gogorrean aurkeztu behar dela.

Adinaren arabera bi maila

Margolanak entregatzeko epea bukatzen denean, epaimahaiak batzartu eta erabakia hartuko du. 1.700 euro eta hainbat opari banatuko ditu saritan.

Nagusien mailan lehiatzen direnen artean hiru sari banatuko dituzte: 600, 400 eta 300 eurokoak. Hiru horien artean ez badago oñatiarrik, etxeko margolan onenari 300 euro emango dizkiote. Bestalde, 16 urtetik beherakoen mailan lehiatzen direnek ere izango dituzte sariak. Maila horretako lehenengo saria 100 euro izango da. Horrez gainera, lehenengo hirurek opari bana jasoko dute.

Margolanekin erakusketa

X. ageriko pintura lehiaketan parte hartzen duten margolanekin erakusketa egingo dute kultura etxean. Hilaren 25etik urriaren 11ra arte egongo dira ikusgai, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

TXANTXIKU IKASTOLA

Atzerriko ikasleen bisita

Txantxiku ikastolako eta Elkar Heziko ikastetxeko lehen batxilergoko ikasleek bisitariak eduki dituzte egunotan. Eslovakiako eta Herbehereetako ikasleen elkartrukea izan dute, hurrenez hurren. Biek ala biek askotariko ekitaldi eta irteerak egin dituzte atzerriko ikasleekin.

ELKAR HEZI

MAKATZETA Errotegia
On egin deigula janak kalterik ez edanak
ARRAZOLA-ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 658 29 31
kontaktua@makatzeta.com
www.makatzeta.com

YERA SANCHEZ

UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

Aukeratu zure argazki gustokoena eta irabazi

otar eder bat munduko kafe ezberdinekin

Eman botoa: *goiena.net/blogak/argazkiak* irailaren 18tik 26ra

Jarraitu gaitzazu: udakoargazkiak udakoargazkiak

Saria

Eman zure botoa eta irabazi otar eder bat munduko kafe ezberdinekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: kb photoestudio www.kbphotoestudio.com Canon · ARRASATE BIDAIAK · GURE AMETSA JATETXEA · aisia HOTELES · karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

Gazteentzako GauHon berriro da abian bihartik

Gaztelekua zabalik da eta laster ludoteka ere bai

GauHon-en logoa.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Atxagazte gaztelekuak dagoeneko hasi du ikasturte berria, eta eguenetik domekara bitartean zabalik dago Arkupeko atzeko partean dagoen egoitza. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako elkargunea da, eta aisialdirako eskaintza zabala dute bertan.

Bestalde, nerabeei bideratutako GauHon egitasmoari jarraipena emango dio Gazteria Zerbitzuak, oporrak bukatu eta gero. Hilabetean behin, zapatu baten, zabalik izango dute gaztelekua gauez 14 eta 16 urte arteko gazteek –DBHko 3. eta 4. mailetakoek–. Bihar izango da hori (22:00-01:00), eta *Bat irabazteko lehiaketa* jolasean jardungo dute.

Udaberrian abian jarri zuten egitasmo horren helburua da gazteei tabernetatik aparteko aukera eskaintzea zapatu gauetarako, eta lagunekin elkartu, jolas egin eta beste hainbat ekintzatarako topagunea izatea gaztelekua.

Ate irekiak ludotekan

Umeek, ostera, ludoteka izango dute topaleku, jolasekin eta jostailuekin hornitutako espazio hezitzailea. Ikasturtea abian jarri eta ezagutzera emateko ate irekiak antolatu dituzte. Hala, astelehenean hasi eta eguenera bitartean joko erraldoiak egingo dituzte kalean (17:30-19:00): astelehenean, Herriko Plazan; martitzenean, Iralabarri plazan; eguaztenean, Santa Kurtz kalean; eta eguenean, Gipuzkoa plazan.

Urrian, ostera, ludotekan elkartuko dira umeak adinaren arabera (17:00-19:30): 1ean, Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailetakoak eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoak; 2an, LHko 2., 3., 4., 5. eta 6. mailetakoak; 3an eta 4an, ume guztiak batera; eta urriaren 5ean, Haur Hezkuntzako 1. mailakoak. Bazkide egiteko epea zabalduko dute orduan –urteko kuota, 36,10 euro.

Jose Luis Martin zinegotziak kargua utzi du

M.A. | ARETXABALETA

Azken urtean Euskara eta Hezkuntza arloetako zinegotzi izan den Bilduko Jose Luis Martinek uko egin dio karguari, arrazoi pertsonalak direla eta, eta hala jakinarazi zuen alkateak astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Martin ez zen izan bilkura hartan, baina Aralarkoek eskerrak eman gura izan zizkioten egindako lanagatik: "Elkarlan eta lankidetzarako jarrera ezohikoa izan du eta zaila izango da hark emandako maila betetzea", esan zuen Inaxio Garrok. Bilduko kideek ere eskerrak eman zizkioten. Haren ordezkoa izendatzeko 15 bat egun beharko dituzte.

Martin zinegotzi ohia. | M.A.

Kultur eskaintzaren gaineko inkestarekin hasiko du ikasturtea Loramendik

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi Elkarteak hasi du ikasturtea, eta Gabonak arteko ekintzak zehaztu. Aurretik, baina, kultur eskaintzaren gaineko ikerketa egingo du.

Kultura Taldea sortu zuten Loramendi barruan udaberri inguruan –zabalik dituzte ateak–, eta lanean hasita dago. Elkarteak egiten duen kultur eskaintzaren gaineko ikerketa egingo du datozen asteotan. Horretarako, bada, inkesta egingo dute herritarren artean: batetik, posta bidez bidaliko dute inkesta hori datorren astean, eta bestetik, hainbat elkartetan utziko dute eskura –euskaltegia, Basotxo, gaztelekua…–. San Migeletako herri bazkarian ere banatuko dute, "ahalik eta erantzun gehien jasotzeko".

Dantza entsegua eguenean

Era berean, hemendik eta Gabonak bitarteko ekintzak zehaztuta dituzte Loramendikoek. "Lehenengo helmuga San Migeletan izango dugu; talo txosna dugu aurten ere, baita larrain-dantza ere", diote bertako kideek. Larrain-dantza gertatu eta jendea animatzen joateko entsegua egingo dute eguenean, irailak 27.

Jaiak pasatutakoan ikasturteari helduko diote hainbat ikastaro antolatuta: Muxiko dantzak; jakien kontserbagintza; eta ahotsa zaintzen ikasteko saioak.

Bestalde, Toponimia Taldea bosgarren ibilbidea gertatzen dabil eta urte bukaerarako gertu izango dute: "Ikatza egiteko txondorrak eta txondorgileak izango dira protagonista", diote.

Egibar: "Fidagarritasuna eskaintzen du EAJk"

Hauteskundeetako lehia EAJren eta Ezker Abertzalearen artean egongo dela uste du

A.T./M.A. | ARETXABALETA

Joseba Egibar EAJko legebiltzarkidea izan zen astelehenean batzokian, eta urriaren 21eko hauteskundeek duten garrantziaren gainean jardun zuen; EAJren ezaugarri nagusia "fidagarritasuna" dela azpimarratu zuen.

Hauteskunde guztiak direla garrantzitsuak esan zuen Egibarrek, baina urriaren 21ekoak bereziak ere badirela azpimarratu zuen, batez ere bi arrazoirengatik: "Batetik, lehenengoz ETAren indarkeriaren mehatxurik gabe osatuko delako Legebiltzarra, eta bestetik, gizartea sufritzen ari den krisi ekonomikoagatik". Gaineratu zuen datozen urteetan "lan handia" izango dutela ekonomia eta gizarte ereduarekin.

Euskal instituzioetan sinetsi

Bestalde, Egibarrek azaldu zuen Euzko Alderdi Jeltzalearen ezaugarri nabarmenena fidagarritasuna eskaintzea dela: "Gure alderdiak eskaintzen duena da fidagarritasuna. Euskal instituzioetan sinesten du".

Salatu zuen, gainera, beste batzuek "ez dutela sinistu" instituzio horietan orain arte, eta hauteskundeetako lehia EAJren eta Ezker Abertzalearen artean egongo dela dio.

Egibar, batzokian elkartutakoen aurrean, astelehenean. | AMAIA TXINTXURRETA

OHARRAK

1980KO KINTOEN AFARIA

1960ko uztailaren 1a eta 1961eko abuztuaren 31 bitartean jaiotakoek afaria egingo dute bihar, irailak 22, Taberna Berri jatetxean. Txikiteoa 20:00etan hasiko dute Gurea tabernan. Izena eman gura duenak Taberna Berrira jo dezala (10 euro) edo Migueli deitu: 652 77 53 58.

HAZKUNTZA TALDEEN GAINEKO BERBALDIA

Haurren hazkuntzan laguntzeko taldeen gaineko berbaldia egingo du Ana Bacigalupek, Amalur Taldeko kideak, astelehenean, hilak 24, Arkupeko bigarren solairuan (11:00etan eta 18:00etan). Kuku Miku elkarteak antolatu du.

GAZTELARA IRTEERA

Basotxo erretiratuen elkarteak irteera antolatu du Gaztela aldeko hainbat hiri ezagutzeko: Segovia, Toledo, Cuenca, Madril... Urriaren 13tik 20ra joango dira. Argibideak gura dituenak Basotxora jo dezala.

ARGAZKI LEHIAKETA

Murrukixo mendizale elkarteak argazki lehiaketa deitu du 2013-ko egutegia egiteko. Gaia librea izango da, eta formatu digitalean aurkeztu beharko da honako lekuetan: Murrukixoren egoitzan (martitzenetan, 19:00-20:00); Aretxabaletako 34. posta kutxan; edo *murrukixo@euskalerria.org* helbidean. Saria, 100 euro. Azken eguna, urriaren 17a.

Tinta beltza
Fotokopiak • Koadernatzeak
Fax zerbitzua • Bulegorako eta eskolarako materiala
Argazki inprimatze zerbitzua
Santakurtz 24, Lezama merkataritza zentroa Aretxabaleta
Tel.: / Faxa: 943 77 07 92 • *tintabeltza@gmail.com*

KURTZEBARRI ESKOLA

Ikasturtea gogotsu hasteko jolasak, kantak eta dantzak

Ikasturte berria gogotsu hasi dute Kurtzebarri eskolako ikasle eta irakasleek, hainbat tailer eginda: eskulanak, marrazketa, hitz jolasak, kanpo jolasak, kantak eta dantzak... Horiek guztiak euskara eta euskal kultura indartzeko asmoarekin. "Eta San Migelak gainean ditugunez, larrain-dantza ikasten gabiltza jaietan kalean dantzatzeko", jakinarazi dute. Tailer horiei bukaera emateko mendi irteera egingo dute.

ARETXABALETA Lanbide Eskola
Gai masiboki Lanbide Heziketarako Berezitzako Institutua

2012/2013 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	Orduak
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua	UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	60
		UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	40
	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeko makinak eta sistemak prestatzea	UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak	80
		UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena	30
(FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG	MF0099_2 Arku elektrikoarekin elektrodo estali bidezko soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
		UF1624 Basiko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
		UF1625 Elektrodo estaliekin karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea	90
	MF0100_2 Gas babeslepeko arkuarekin elektrodo ez-kontsumigarriaren bidezko soldadurak (TIG) egitea	UF1626 karbono altzairuen TIG soldaketa	90
(FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiekzio termikoak egitea	UF1672 Oxigas soldadura	70
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF0249_2 Etxean egiten den higienea eta osasun arreta	UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higiene-osasun beharrak	70
		UF0120 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua	50
		UF0121 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak	50
(SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF1017_2 Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea.	Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea	70

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE) — DOAN

ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEC0210	Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG	430
ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	280
ZIURTAGIRI PROFESIONALA: TMVL0109	Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan	270
ZIURTAGIRI PROFESIONALA: SSCS0208	Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitarioa	480

KATALOGO MODULARRETIK KANPO — DOAN

Altueran lan egitea	20
Garabietan lan egitea	20
Eskorgan lan egitea	20
Soldadoreen homologazioa	60

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ
Europako Gizarte Funtsa
lanbidez heziketa formación profesional

ETXEBARRI AUZOA Z/G 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

Zaharren egoitzakoak, udal ordezkariak eta Patronatukoak egoitzaren aurrean festako kartelekin. | ESKORIATZAKO UDALA

Garagardo festako karpa zabalik, domekara arte

Festa solidarioan jasotako dirua herriko zaharren egoitzara bideratuko da

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Atzo, eguena, zabaldu zuten Eskoriatzako herriko plazan jarri duten garagardo festako karpa. Domekara bitartean izango da zabalik, eta bertan, hainbat garagardo mota dastatzeko aukeraz gainera, ukondoa, saltxitxak, txitxi-burruntziak, patata frijituak eta pintxoak ere jan ahal dira.

Dirua zaharren egoitzarako

Garagardo festan batutako dirua, herriko zaharren egoitzara bideratuko da. Gainera, Gabonetako loteria ere salgai jarri dute eta txartel bakoitzeko euro bat egoitzari laguntzeko da. Eskoriatza Kirol Elkarteak areto futbol hiruko txapelketa ere antolatu du eta bertan jasotako diru guztia egoitzarako izango da. Domekan salgai jarriko den Esko-lotean jasotakoa ere bai.

Azkenik, merkatari txikiren batek ere parte hartu gura izan du zaharren egoitzaren aldeko ekimenean, eta, adibidez, Txalaparta tabernak txanpiñoi kazola handi bat prestatuko du bertan saltzeko.

Lagundu nahi duten herritarrek ere aukera izango dute. 19:00etatik aurrera, patata-tortillak eraman ahal izango dira karpara, pintxoak egin eta saltzeko. Domekan ezin izango da tortillarik eraman.

EGITARAUA

EGUBAKOITZA

19:30 Kontzertua: Igor San Juan.

23:00 Kontzertua: Lukas Prest!

Ondoren Screamers&Sinners.

ZAPATUA

17:00 Hiruko areto futbol txapelketa kiroldegian.

19:30 Rafa Salidoren bakarrizketa: *Ser padre*.

22:00 Rantxerak Alaitzenekin.

Ondoren Burrunba kelele batukada.

Ondoren Disko-festa.

DOMEKA

15:00 Mus txapelketa.

Hondakin bilketa sistemak hizpide Carlos Ormazabalekin

A.T. | ESKORIATZA

Eguaztenean Eskoriatzan izan zen Carlos Ormazabal, Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko diputatu ohia eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioko lehendakari ohia. Atez atekoa ez, bosgarren edukiontzia bai hitzaldia eman zuen eta kultura etxeko aretoa lepo bete zen.

Ormazanalen helburua izan zen hondakin bilketa ereduak herritarrei azaltzea. Esan zuen oso argi dutela bailara honetan eta baita beste batzuetan ere azkeneko legealdian bosgarren edukiontzia jartzeko aukera ez zaiela herritarrei jarri. Eta ezker abertzaletik herritarrei galdetu gabe hartu dutela atez atekoa jartzeko erabakia. Salatu zuen atez atekoak bilketaren zati bat besterik ez duela hartzen kontuan eta bosgarren edukiontzia duten hainbat herritan emaitza oso onak lortzen ari direla; esaterako, Beasainen, Ordizian eta Lazkaon. Atez atekoa jarri behar duten hainbat herritan erabaki horren kontra dauden plataformak ere sortuta daudela gaineratu zuen. Horregatik, Ormazabalek esan zuen herriari eman behar zaiola aukera erabakitzeko zein bilketa sistema duen nahiago, eta gaineratu urriaren 21eko hauteskundeak direla -eta jendeak ondo pentsatu beharko duela zer den benetan nahi duena.

Kultura etxeko aretoa herritarrez bete zen hitzaldian. | A.T.

Eskoriatzako gaztelekuak ateak zabaldu ditu beste ikasturte batez

A.T. | ESKORIATZA

Erabiltzaile berriei eskaini zizkieten joan den egubakoitza eta zapatua, eta instalazio eta mahai jolasen lehen harremanak gauzatu. Domekan, aldiz, 12 eta 17 urte bitarteko gazteak elkartu ziren, meriendan, ikasturteari hasiera ofiziala emateko.

Eskoriatzako kaleetan ikusi diren esaldi misteriotsuek zioten gisan, *Hi gazte, hire nahixa hire aukera!* gazteen sorkuntza leku bat izan nahi du Eskoriatzako gaztelekuak. Adin tarte horretako gazteen beharrak, nahiak, interesak eta ametsak bete nahi dituzte. Iazko ikasturtean, esaterako, eski irteerak, *orienting*-ak, mendi irteerak, zirku tailerrak eta surf ikastaroak egiteko aukera izan zuten.

Aurtengo ikasturtean ere hainbat ekintza antolatuko dituzte, guztien artean, euskaraz, aisialdi dibertigarria sortzeko asmoz.

Hilabete honetarako, oporretako argazkien erakusketa, bertso eskola, fimo tailerra eta mahai -futbol txapelketak dituzte aurreikusita.

Gripearen kontrako txertoa hartzeko, txanda eskatu

Astelehenean, hilak 17, hasi zen gripearen kontrako txertatze kanpaina eta urriaren 31ra bitartean iraungo du. 65 urtetik gorako guztiei dago zuzenduta kanpaina, baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoei ere. Eskoriatzarrek osasun zentroan aurrez txanda eskatu beharko dute txertoa hartzeko eta telefono honetara deitu ahal izango dute horretarako: 943 71 44 52. Beharrezkoa den kasuetan, erizainak etxeetara ere joango dira eta auzoetan, urtero moduan, txertaketak egiteko egunak zehaztuko dituzte.

Pintura tailerrean izena eman daiteke hilaren 27ra arte

Pintura tailerrak laster hasiko du ikasturte berria, eta hilaren 27ra arte eman daiteke izena kultura etxean, 943 71 46 88 telefonora deituta edo *kultura@eskoriatza.net*-era idatzita. Saioak, aurreko urteetan bezala, urritik ekainera bitartean izango dira, zapatuetan, kultura etxean, 15:00etatik 18:00etara. Eskolak urriaren 6an hasiko dira, eta hauxe da prezioa: 120 euro urtean edo 40 euro hiru hilabetean behin. Pintura tailerrean edonork har dezake parte, eta aproposa da arkatz eta margo teknikak eta kolore nahasketak egiten ikasteko.

LAGUNAK DASTALEKU

Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**
943 71 40 63



San Martin azokan, Bidaurre baserriko sagarrendako izan da lehen saria. | JULIO CALLEJA

Kontxi Izagirre: "Baserriko sagarrak gustu berezia dauka"

Errege-sagarrak, lehenago heltzen direnak... mahai-sagar ugari ditu Izagirrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Lan eta lan harrapatu dugu Kontxi Izagirre, Uzarraga auzoko Bidaurre baserrian. Izan ere, oraintxe da sagarrak batzeko sasoia, eta inguruko denda eta komertzioetan sagarrak banatzen ibiltzen da goizero. Bergarako San Martin azokan, hark eramandako sagarrari lehen saria eman diote. "Saltzeagatik joten gara, baina saria emanez gero, pozik, errazago saltzen dugu-eta", dio. "Etxeko sagarra oso gustura jaten du jendeak. Zaporea ere ezberdina duela esaten digute. Baina aurtengo udan eguzki faltarik izan ez dugun arren, euri gutxi egin du sagarra behar moduan hazteko. Guk ureztatze sistema erabiltzen dugu". Mota askotako sagarrak ditu: "Errege-sagarra, lehenago heltzen diren sagarrak... mahairako sagarra dugu. Ondoen saltzen dena sagar gorrixka dela dio. "Oraintxe da sagarra batu eta banatzeko sasoia. Baserriko produktuen alde egiten dute askok, baina gero supermerkatuetan erosteko joera izaten dute. Batzuek apreziatu egiten dute bertako sagarra, beste gustu bat duela diote; beste batzuei, berriz, berdin zaie zer jan".

Aurrekontua herritarrekin eratzeko batzar irekiak

M.A | ANTZUOLA

Parte-hartzea, komunikatzeko zein lanerako bide gisa ulertzen duela azaldu Udal gobernuak. Horretarako, komunikazio bide honen lehen pausu moduan, irailean hasi eta abendura bitartean udalak 2013rako aurrekontuak herritarrekin eratu nahi ditu.

Hala, prozesua bi fasetan banatuko da. Lehena etxez etxe banatuko den galdera sortan oinarrituko da; bertan herritarren lehentasunak zeintzuk izan daitezkeen ondorioztatuz. Lehen fase hau urriaren 24an, arratsaldeko 19:00etan Torresoroan egingo den ondorioen aurkezpenarekin amaituko da. Ondoren, arlokako bilerak egingo dira. 2013ra begira egin nahi diren ekintza, plan eta abarren lehentasunak zehazteko.

Arlo ezberdinetako bilerak: azaroaren 5ean gazteria, kirola eta hezkuntza; 7an, hirigintza, ingurugiroa eta nekazaritza eta 8an, kultura eta euskara. Herritarrei zabalik daude batzarrak eta denak Olaranen egingo dira arratsaldeko zazpietan.

Sankopaixuak berreskuratu dituzte auzoko gazteek

M.A. | ANTZUOLA

Kalegoiko zenbait gaztek festa berreskuratu dute: "Askotan entzun izan dugu lehenago jaiak antolatzen zirela, afaria egiten zutela eta auzokoak gorbata jantzita irteten zirela kalera. Bada denbora auzoko gazteak antolatzeko ideiatan genbiltzala, eta, azkenean, aurten gauzatu ditugu gure ideiak". Hala, notiziak Kalegoin oso harrera ona izan du eta azpimarratzekoa da afarirako 40 bat lagun elkartuko direla gaur. "Jende askok esan digu laguntza behar badugu abisatzeko! Tabernarik ez daukagun arren, pintxo-poteorako *barra* estiloko zerbait ipintzeko asmoa daukagu, jaiak girotze aldera; antolakuntza lanak bideratuta daude, eta eguraldia lagun bada, ziur dena ongi irtengo dela". "Eta noski, pintxo-poteora eta ardo dastatze lehiaketara herritar guztiak gonbidatuta daude!".

Jai egitaraua

Gaur, 19:30ean, txupinazoa, gorbata-janztea eta brindisa. Ondoren, pintxo-poteoa eta afaria. 00:00etan piroteknia saioa eta Antzuolako trikitilariekin abesti-gaua. Bihar, berriz, 13:00etan, ardo dastatze lehiaketa. Bost ardoren dastaketa egingo da. Jarraian, luncha, musikaz girotua, eta jaiei amaiera emango zaie.

EH-Bilduk batzar irekia egingo du hilaren 27an

M.A. | ANTZUOLA

"Irailaren 27an egingo dugun batzarrera, Antzuolako EAko, Aralarko, Alternatibako eta Ezker Abertzaleko oinarri soziala –alderdi horien guztien aldeko bozka ematen duen antzuolar oro– deitu nahi dugu", azaldu dute Antzuolako EH-Bilduko kideek.

Izan ere, batzar irekian erabaki nahi dute hauteskunde kanpainaren barruan Antzuolan egingo diren ekitaldiak zeintzuk izango diren. Eguenean da batzarra, 19:00etan, Olaranen.

Jaione Larrañaga da zozketaren irabazlea

Anelkarrek ospatutako Elkartasun Festan mila txartel saldu ziren. Zozketaren irabazlea: Jaione Larrañaga, 1746 zenbakiarekin. Kristina Bakaikoa Senegalgo kooperanteak eta Larrañagaren lankideak saldua. Saria: Kongotik ekarritako mantel-jokoa eta egurrezko irudia. Erretratuan biak, saria emateko orduan.

ANELKAR

OHARRAK

GAZTETXEKO BAZKARIA

Urriaren 6an egingo den bazkarirako txartelak salgai daude gaztetxean. Bazkaria: paella, oilaskoa, postrea eta kafea, 12 euroren truke. Erosteko azken eguna: irailak 30.

GRIPEA

Urriaren 31ra bitartean har daiteke gripearen aurkako txertoa. Txanda hartu behar da aurrez: 943 03 54 00.

Zabalo
IGELTSEROTZA
Ibon Zabalo
Iban Iraeta
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
Mugikorrak:
615 76 56 50 / 615 76 56 51
zabalosl@hotmail.com

ZAHAR BERRITZEAK:
Birgaitzeak
Fatxadak
Teilatuak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Txirritola Eguna domekan, euskara eta sagardo egarriz

- Maider Undak egingo du txotx irekiera eta Udalak omenaldia egingo dio
- Bederatzi sagardogile aurten; Alaiak-ekoek bazkaria egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskarak eta sagardoak bat egingo dute domekan, Txirritola Egunaren bederatzigarren edizioan. 11:30ean hasita, trikitilariak izango dira herriko kaleak girotzen eta txotx irekiera 12:00etan izango da. Maider Unda Oletan bizi den borrokalari aramaioarrak egingo du lehen txotxa. Udalak antolatu du omenaldia Londresko Olinpiar Jokoetan lortutako brontzezko dominagatik, Txirritola elkartearen oniritziarekin: aurreskua dantzatuko diote, oroigarri bat emango diote eta bertsorik ez da falta izango. Ondoren, Aramaioko sagardo ezberdinak dastatzeko aukera egongo da, baita taloak zein denetariko pintxoak jateko aukera ere.

Bederatzi sagardo ezberdin dastatzeko aukera egongo da domekan. Irudian, iazko edizioa. | GOIENA

Txirritolaren lan mardula

Aurten bederatzi sagardogilek egin dute bat Txirritola Egunarekin. Aramaioko Sagardogileen Elkartekoak dira gehienak eta hori da Etor Arregiren kasua; ez du hutsik egiten: "Oso egun polita izaten da. Bakoitzak urtean zehar egin duen sagardoa beste sagardogileen artean dastatu eta hori guztia herriari erakustea itzela da". Sagar-zukua ere eramango dute batzuek.

Sagardoa bai, euskara ere bai. Izan ere, Txirritola elkarteak lan mardula egiten du eurendako urteko egunik handienean dena ondo irten dadin: "Lan handiena eskatzen digun ekitaldia da. Uda aurretik biltzen gara eta lan banaketa egiten dugu; hori bai, herriko taldeei eskatzen zaie laguntza eta beti erantzuten dute". Bederatzigarren egitaraua da aurtengoa eta horrek asko laguntzen du: "Hala ere, urtero nobedaderen bat sartzen saiatzen gara", dio Divina Arriolabengoa presidenteak. Bazkide berriak erakartzeko kanpaina ere egingo dute.

Alaiak-ekoak ere, festarekin bat

Era berean, Alaiak erretiratu elkartekoek bat egingo dute Txirritola Egunarekin. Urtero legez, 12:00etako mezaren ostean elkarteko bazkideendako bazkaria egingo dute kiroldegian, 14:30ean. 100 lagun inguru espero dira.

DIVINA ARRIOLABENGOA | TXIRRITOLAKO PRESIDENTEA

"Jende faltagatik premia larrian gaude"

J.B.

2011ko maiatza ezkero da Txirritolako buru Divina Arriolabengoa (Aramaio, 1969).

Domekakoa urteko egun handiena da zuendako, ezta?

Hala da. Elkartea hor dagoela erakusteko egun aproposena da, askotan ahaztu egiten zaigu-eta elkarte bat dagoela euskararen alde lanean. Era berean, guregana jende gehien hurbiltzen den eguna da. Egun polita izaten da, guk antolatu arren egunean bertan herriko hainbat taldek eta norbanakok laguntzen digute-eta.

Aurten ere bazkide kanpaina egingo duzue, ezta?

Bai. Jende faltagatik premia larrian gaude, azken urteetan bazkide gutxi sartu direlako. Zuzendaritza taldean jende berria aurkitzeko arazo handiak izan ditugu.

ETOR ARREGI | ASE-KO SAGARDOGILEA

"Asturiaskoaren antzekoa da gurea"

J.B.

Aramaion 15 urte daramatza, eta Txirritola Egunean urtero egon da Etor Arregi (Arrasate, 1968).

Noiztik zara sagardogile?

Etxean duela 20 urte baino gehiago hasi ginen sagardoa egiten. Sagar ugari genuen eta konturatu ginen asko alferrik galtzen zela. Hasieratik sagardo polita irten zaigu eta Aramaioko Sagardogileen Elkartea sortzeko talde eragilean ere egon nintzen, 2007an.

Nolakoa da zure sagardoa?

Gure sagarraren barietateagatik sagardoak puntu gozoa dauka. Gainera, fruta-gustua ere badu eta horregatik antzekotasun gehiago ditu Asturias aldeko sagardoarekin Euskal Herrikoarekin baino. Hemengoa garratzagoa da.

AURTENGO SAGARDOGILEAK

- Adrian Abarrategi
- Juan Antonio Aretxaga
- Etor Arregi
- Iñaki Errasti
- Juan Jose Peciña
- Juan Jose Yarza
- Martin Arriolabengoa
- Enrike Gardoki
- Julen Arriolabengoa

Fool Cool taldea funk eta blues doinuekin dator gaur Sastiñara

J.B. | ARAMAIO

Aurrera doaz Sastiñako egubakoitz musikatuak. Gaur Gasteizko Fool Cool taldeak joko du (19:30), Udaleko Kultura Sailari esker. Josu Jungitu eta Alfonso Jungitu anaiek sortutako proiektua da eta bost lagun dira taldean: bi ahots, bateria, teklatuak, gitarra bat eta baxua. Duela bost urte jaiotako taldea da eta aurten Gasteizko Jazz jaialdian parte hartu dute: "Oraingoz taldearen lorpen handiena izan da jaialdi horretan parte hartzea", adierazi du Josu Jungituk.

Jungitu anaiek eskarmentu handia dute musika munduan. Emanaldiak ordu eta erdi inguru iraungo duela aurreratu digu Josu Jungituk eta, besteak beste, Stevie Wonder eta Eric Clapton musikari ezagunen bertsioak joko dituzte. Adin guztiendako kontzertua izango da.

Bueltatzeko gogotsu

Duela oso gutxi gurean izan ziren Jungitu anaiak beste talde batekin, izan ere, irailaren 7an bertan Sastiñan eman zuten kontzertua Reckon taldearekin.

Blues, country eta pop doinuak eskaini zituzten, bertsioak nagusiki. Kontzertu hori gogoratze aldera, Josuk adierazi digu oso gustura egon zirela Aramaion: "Egun ederra egin zuen eta ermita kanpoan jotzeko aukera izan genuen. Gogotsu gaude bueltatzeko, ea kanpoan jotzeko aukera dugun". Kontzertu zikloa datorren egubakoitzean itxiko da, Astearte taldearekin (19:30).

Fool Cool. | ARAMAIOKO UDALA

Kobrezko materiala lapurtu dute Andra Mari ermitan

Andra Mari kofradiakoak martitzen goizean enteratu ziren lapurretaz. Gaizkileak ermitan sartu ziren atea apurtuta, eta, apurketak eragiteaz gain, bi zutargi (kandelabro), gurutze bat eta kobrezko materiala ostu zuten –kobrezko erretenak eta hodiak, batez ere–. Kalte material handiak dira, Rafa Bengoa kofradiako presidentearen arabera. Ez da lehen aldia: "Duela bi urte ere egin ziguten lapurretan. Leku aproposa da, baserrietatik urruti dagoelako eta gauez ez delako inor ibiltzen", dio Bengoak. Ertzainak izan ziren bertan, eta salaketa jarrita dute dagoeneko.

Zenbait kale itxi egingo dituzte, rallysprinta dela eta

Pedro Ignazio Barrrutia eta Aita Gabirel kaleak itxita egongo dira zapatu goizetik gauera arte. Eta Udalak jakinarazi du ezin izango direla autoak kalean aparkatu, ezta pilotalekuko aparkalekuan ere: "Kaleak hutsik egon behar du zapatu goizean", jakinarazi dute.

Gainera, aurten nobedade bat dago: antolakuntzak Nardeaga kalea ere erabiliko du autoen kontrola egiteko. Hau da, rallysprinterako autoak Nardeagan egongo dira aparkatuta. Kalea erabilgarri egongo da, eta baita garajeak ere. Hori bai, kale osoan ezin izango da aparkatu.

ELGETA

Oxel Erostarbe eta Patxi Basauri, *Udazken koloreak* egitasmoaren aurkezpenean. | L.Z.

Jokoan dira berriz ere patata-tortilla lehiaketa eta Intxortako igoera

- Herriko baserritarrek ere azoka egingo dute, 11:00etan hasita
- Ekintza sorta zabalagoa den 'Udazken koloreak' ekimenaren barruan dago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hiru lehiaketa deitu dituzte biharko, zapatua, Elgetan. Aukeren artean dauzkazue txorimalo bat egitea, tenis-oinetakoak jantzi eta Intxortako igoeran parte hartzea, edo amantalaren aldeko apustua egin eta herriko patata-tortilla goxoena prestatzea. Publiko guztiendako proposamenak daude, baita azoka egun berezi batean parte hartu nahi dutenendako ere; izan ere, herriko baserritarrek 11:00etan zabalduko dute urteroko azoka. Oraingoz, 13 baserritarrek konfirmatu dute bertan izango direla, eta etxeko produkturik onenak eroango dituzte plazara, herritarrei saltzeko asmoarekin.

Azoka indartzeko helburuarekin txorimalo lehiaketa eta Otxia txakolinaren dastatzea ere antolatu ditu aurten Turismo batzordeak. Herriko baserrien argazki erakusketa eta Intxortako igoera ere programan daude. Igoerak interes berezia piztu du, jokoan baitago Jose Mari Irastortzak 1989an egindako marka hobetzeko erronka. 12:00etarako finkatu dute hitzordua.

Arratsaldean sagardoa

Gaztetxeak antolatutako ekintzak izango dira nagusi arratsaldean. Bazkaria, Sagardo Eguna, tortilla lehiaketa, triki-poteoa, bertso afaria eta ON taldearen emanaldia iragarri dituzte gazteek.

Patata-tortilla lehiaketako parte-hartzaileak izango dira lehenak plaza betetzen. 17:00etan hasiko dira lanean. Herriko ostalariek, berriz, sagardoa emango dute doan 19:00etatik aurrera, eta ordu horren bueltan egingo dute patata-tortilla lehiaketako sari banaketa. Jarraian, triki-poteoa, bertso-afaria — Enaitz Alustiza, Xabi Igoa eta Eneko Beretxinaga bertsolariekin— eta ON taldearen emanaldia egongo dira, azken hori goizeko ordu txikiak arte.

Udazken koloreak Elgetan

Baserritarren azokarekin eta Sagardo Egunarekin lotutako ekintza horiek Udazken koloreak Elgetan izeneko ekimenaren barruan daude. Elgetan finkatuta dauden ekintzak indartzeko eta herrira bisitariak erakartzeko helburuarekin ahalegin berezia egin dute aurten Turismo batzordetik. Hala, abendura bitartera 30 ekintzatik gora iragarri dituzte Elgetako alkate Oxel Erostarbek eta Turismo batzordeburu Patxi Basaurik asteon.

Urriaren 18tik 21era bitartean jardunaldi mikologikoak egingo dira; urteroko perretxiko erakusketarekin batera hitzaldi bat, irteera bat, eta eskaintza gastronomiko berezia egingo dituzte.

Euskal kantu tradizionalak kalera ateratzeko deialdia ere egin dute urrirako; hilaren 28an Elgetako abesbatza eta trikitilariak kalera irtengo dira jendea kantuan egitera animatzeko.

Azaroan, berriz, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte urteroko Pintxo lehiaketarekin batera. Eskaintza gastronomiko berezia egingo dute ostalariek, eta lehenengo Elgetako Mugarri Eguna. iragarri dute azaroaren 18rako.

JOSE MARI AROTZENA
IGOERAN MARKA ONENA

"Apustua dagoela ikusi dut, eta badut jakin-mina"

1989an, 23 urte zituela, egin zuen Jose Mari Arotzena elgetarrak Intxortako igoeran inoiz egin den denborarik onena: 17 minutu eta 39 segundo.

Nola gogoratzen duzu 1989-ko Intxortako Igoera?

Elgetako jaiak ziren, eta Intxortako II. igoera zen. Eguraldi aproposa zegoen, eta ni, berriz, sasoi betean nengoen; gimnasia eskolak ematen nituen, saskibaloian eta areto futbolean ere aritzen nintzen... Ondo ezagutzen nuen igoera, eta ondo ibili nintzen. Denbora ona egin nuen, oraingoz markarik onena da.

Hobetuko du inork marka hori aurten?

Ezezkoan nengoen, baina apustua dagoela ikusi dut, eta badut jakin-mina. Ez dakit nortzuek hartuko duten parte, baina, hobetzekotan, gustatuko litzaidake beste elgetar batek hobetzea.

Zure gomendioak aurtengo parte-hartzaileei?

Garrantzitsua da nondik igo argi edukitzea, eta, esan didatenez, bidea garbituta dago. Ez da igoera luzea, baina bai oso esplosiboa. Aldapa konstantea da, eta garrantzitsua da igoeran indarrak neurtzea. Hori bai, marka hobetu nahi duenak goian beharko du 11-12 minutuan. Eta eguraldiak lagundu egin behar du.

Ez duzu parte hartuko?

Itxuroso bukatuko nuke, baina nahiago dut ikusle moduan parte hartu. Gera dadila oroimenerako egindako marka!

Etzi, domeka, irteera Egoarbitzara

Elgeta ezagutzen ekimenaren lehenengo irteera egingo dute etzi, domeka. Taldea 10:00etan abiatuko da Herriko Plazatik. Dani Gillegiren gidaritzapean sekuoiak eta haginak ikusteko aukera egongo da. "Hiru bat orduko itzulia izango da. Egoarbitzako haitzaren gainetik ibiliko gara, eta ikusiko ditugu garaieran Elgetako zuhaitzik handienak", esan du Gillegik. "Elgetan haitzarte horretan bakarrik ikus daitezke haginak, eta inguruko herrietan oso leku gutxitan", gaineratu du.

Gaztetxeko kontzertu-gela, berrituta

Galtzak bete lan ibiliko dira zapatuan gaztetxeko kideak. Egitarau oparoa prestatu dute, bazkaritik hasita, baina aurtengo Sagardo Egunak badu bestelako berezitasunik: gaztetxekoek uda eman dute kontzertu-gela berritzen, eta bihar, zapatua, ON taldearen kontzertuarekin inauguratuko dute itxuraldatutako lokala. Garbitu, itxitura sendoagoak ipini, argiztapena hobetu, margotu... mimo handiarekin aritu dira lanean, eta egindako ahaleginaren emaitzak jendaurrean ipintzeko eguna izango da biharkoa.

LEINTZ GATZAGA

Logroñoko San Mateo jaietara joango dira 'sorginak' bihar

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Errioxako hiriburuko jai dotoreak ezagutzera joatea erabaki dute aurten Sorginak emakume elkarteko kideek. Hala, San Mateo jaiak bete-betean biziko dituzte bihar, zapatua.

20 emakumetik gora elkartuko dira bihar goizean Logroñorako eta autobusean egingo dute joan-etorria. San Mateo jaietan ezaguna den azoka ekologikoa bisitatuko dute eta jaki ezberdinen dastatzeetan parte hartu. Dantza erakustaldiak, kaleko antzerkiak eta antzekoak ikusteko gogoz doaz, eta gatzagarren umore paregabea lagun jaiak bertatik bertara biziko dituztela iragarri dute.

25 urteko ibilbidea

Sorginak emakume elkarteak dagoeneko 25 urte bete ditu. Urtero egin izan dute irteeraren bat edo beste, sasoi batean Europa aldean ere ibilitakoak dira, eta hutsik egin barik aurtengoa ere antolatu dute. Irteeraz gain bazkaltzeko ere elkartzen dira martxoaren 8aren bueltan. Izan ere, oso giro polita sortu zen orain dela 25 urte Gatzagako emakumeen artean, eta horri eutsi gura diote nahiz eta hainbat adinean aurrera joan.

Gripearen aurkako txertxoa hartzeko, osasun etxera deitu

Astelehenean jarri zuten abian gripearen aurkako txertatze kanpaina, eta gatzagarrek Eskoriatzako osasun etxera deitu behar dute txanda hartzeko (943 71 44 52). Beharrezkoa bada, erizainak etxeetara ere joango dira. 65 urtetik gorako guztiei dago zuzenduta kanpaina, baita gaixotasun kronikoren bat dutenei ere.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizar eta Iban Velasco | Txirrindulariak

Iban Velasco: "Puntukako sistema honekin inork ez du talde lanik egin nahiko"

- Astelehenean 'Harmailatik' saioan izan ziren ziklistak
- Ondoren jakin zuen Velascok ez zuela taldean jarraituko

Markel Irizar eta Iban Velasco, astelehenean, Gernika oinezkoen zumardian. | XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Txanponaren bi aldeak: Markel Irizarrendako amaitu da denboraldia [hirugarren semea jaio zen martitzenean]. Iban Velascorendako ez, Lonbardiako Girora eta Txinara joan behar duelako oraindik. Hori baino gehiago, Irizarrek badaki datorren urtean Radioshack taldean segituko duela; Velascok, berriz, astelehenean *Harmailatik* saioan egon ostean jaso zuen kirol zuzendariaren deia: ez du Euskaltelen segituko. Asteleheneko elkarrizketaren zati bat duzue hau, eta albistea irten berritan, eguaztenean GOIENAren deiari erantzun zion Velascok.

Vueltatik itzulita, ondo?

Velasco: Lehenengo lauzpabost egunak nahiko txarrak izaten dira, baina izan dugu atseden hartzeko astia.

Irizar, oporretan dagoeneko...

Irizar: Oporrak... hirugarrena jaiotzen denean, izango dut zertan entretenitu... [Barre].

Iban, ziklismo geroago eta globalizatu hobetan, indarra hartzen dabilen lurraldera, Txinara zoaz aurki.

Velasco: Bai, inoiz ez naiz joan, eta badut hura ezagutzeko kuriositatea. Gainera, talde indartsua eramango dugu.

Irizar: Niri, berriz, taldean esaten didate semea nahita ekarri dudala fetxa hauetarako, Txinara ez joateko [Barre]. Ez zitzaidan esperientzia gustatu: aireko kutsadura, klenbuterolaz ez kutsatzeko ardura; astebete egin nuen arroza eta pasta jaten... Turismo apur bat egin genuen, baina...

Markel, datorren urterako kontratua duzu Radioshackekin.

Irizar: Bai, otsailean bertan luzatu nuen kontratua, denboraldia hasiberritan zegoenean. Horrek lasaitasuna ematen du, eta bi aldeek dagoeneko esan diogu elkarri batera jarraitzeko asmoa dugula. Horrek balio handia du gaur egun, eta lasaitasuna eta konfiantza ematen dio txirrindularitzari.

Iban, zure egoera bestelakoa da.

Velasco: Bai, gure taldean gutxi batzuek berritu dituzte kontratuak, baina beste askok ez. UCI World Tour barruan jarraitzeko badirudi taldeak kanpoko ziklistak fitxatu beharko dituela, baina oraindik airean dago dena. Puntuak dituzten ziklistak mugituko dira lehenengo, eta gero etorriko gara besteok.

Baina taldearendako lan egiteaz arduratzen zaretenok desabantaila duzue...

Irizar: Bai. Puntukako sistema horrek ez dut uste luze iraungo duenik, kritika handiak jaso ditu -eta, baina... Sistema horrekin gerta daiteke ziklista jakin bat fitxatu nahi izatea, duen jarrera onagatik... baina, azkenean, puntuak dituen beste bat fitxatu behar izatea.

Baina, oraingoz, sistema horrek behartu dezake Euskaltel moduko talde bat kanpotarrak fitxatzera.

Velasco: Sare sozialetan irakurri dut jendea hasi dela mugitzen halakorik gerta ez dadin.

Irizar: Dena dela, nik uste dut lehendik ere talde barruan bazegoela filosofia hori apurtzeko nahia. Bertako txirrindulariak erlaxatuegi dauden aitzakiaz, eta esaterako, iazko emaitzek erakusten dute hori ez dela horrela.

Radioshack taldeak sinatuko luke iaz Euskaltelek egindako urtea?

Irizar: Ba, agian, bai, itzuli handi guztietan izan zituzten garaipenak. Eta pentsa, eurek baino lau aldiz aurrekontu handiagoa dugu eta hori baino gehiago egiteko ordaintzen digute...

Iban, iazko denboraldia hobetzea oso zaila zen...

Velasco: Oso zaila, eta urte hasieran ere bagenekien hori. Nik uste

IBAN VELASCO | EUSKALTEL-EUSKADIKO TXIRRINDULARIA

"Hasi gara talde bila, baina berandu gabiltza, talde asko osatuta daude"

Bost urte talde laranjan egin ostean, Arrasatekoak abenduaren 31n amaituko du Euskaltel-Euskadirekin duen lan-harremana. Onartu digu sorpresaz harrapatu zuela Igor Gonzalez de Galdeanok astelehenean egindako deiak; baita harekin batera lagun eta taldekide *Txurru* kanpoan geratu izana ere. Eguaztenean egon ginen mondragoetarrarekin, albistea komunikabideetan azaldu zen egunean.

Astelehenean ez zenuen halako berririk espero.

Ez; egia esan, harritu egin nintzen, ez nuen halakorik espero. Ez nuen uste Amets Txurruka ere kanpoan geratuko zenik, eta begira... Gauzak, baina, datozen moduan hartu behar dira, eta dagoeneko talde bila hasi gara.

Eguaztenean zuek biok izan zineten albiste, baina beste taldekide asko daude egoera berean?

Bai. Ni ia egunero *Txurru*-rekin entrenatzen naiz, eta gu bion egoeraren berri dakit. Besteei ez dakit zer esan dieten.

Askotan aldaketak gomendagarriak izaten dira.

Bueno, beste talderen baten deia jasotzen badut, seguruenik lekuz aldatzea ondo etorriko zait. Arazoa izango da beste talderen batean lekurik aurkitzen ez badut. Pena izango litzateke txirrindularitza utzi behar izatea.

Zelan dago merkatua?

Berandu samar gabiltza. Jendea Tourraren ostean hasten da datorren denboraldiari begira gauzak begiratzen, edo Vueltan zehar, bestela. Egia da talde asko osatuta daudela datorren denboraldiari begira.

Egunotan ez duzue eskaintzarik jaso?

Ez, oraindik ez.

Sare sozialetan ikusi dugu jendeak ez dituela erabaki horiek ondo hartu.

Bueno, garbi dagoena da taldeak filosofiaz aldatuko duela. Lehen, Madariaga zegoen taldeburu, eta orain, Igor Gonzalez de Galdeano dago, eta harena da erabakia. Ez dut uste zaleek erabaki hauek ondo hartuko dituztenik.

"Baliteke aldaketak on egitea, baina taldea aurkitu behar lehenengo"

Bistan geratu da taldearendako lanean ibili eta punturik batu ez duzuenok, interes propiorik izan ez duzuenok, *zigortuak* izan zaretela sistema honekin.

Bai, hori da. Azkenean, puntuen kontu honekin etorkizuneko txirrindularitzan nork berea egingo du, eta ez da benetako talde lanik egongo. Kirol indibidualago bilakatuko da txirrindularitza.

Denboraldi amaiera honetan, lehengo asmoekin jarraitzen duzu?

Bai. Abendura arte kontratua dut. Lonbardia eta Piamonte egingo ditut, eta ondoren Txinara joango gara.

ESANAK

"Taldearendako ez da urte ona izan, garbi esan behar da hori

MARKEL IRIZAR | RADIOSHACK

"Euskaltelen zorrotzegiak gara denean, barre egiteko..."

IBAN VELASCO | EUSKALTEL

dut taldea denboraldi ona egiten dabilela. Pena da Vueltan Igor Anton ez dela bere ohiko mailan ibili, hori falta izan zaigu.

Markel, eta zuen urtea?

Irizar: [Irribarrea]. Ez da batere ona izan, hori ere garbi esan behar dut. Kosta egin zitzaigun bi taldeak bateratzea. Guk Johan Bruyneelen lan egiteko modua barneratuta geneukan, baina besteek ez, eta, gainera, taldeko liderrak beste taldekoak ziren.

Ez zen ezkontza erraza izan...

Irizar: Ez. Gero, Cancellarak min hartu zuen Flandriako Tourrean, eta horrek ez zituen gauzak erraztu. Esperantza handiak genituen lasterketa horietarako, eta esku hutsik itzuli ostean urduritasunak areagotu egin ziren.

Taldekideek Zubeldia Tourrean bakarrik utzi zutenean...

Irizar: Taldekideekin oso harreman ona dut, baina hor ez genuen talde moduan jokatu. Autokritika egin eta gauzak diren moduan esan behar dira.

Orica Greenedge taldeko bideoa ikusi duzue? Hori da marketina egiteko modu ona, taldean.

Irizar: Bideo *xalaua* izateaz batera ikusten da denak daudela maila berean, zuzendaritik hasi eta autobus gidariraino. Eta hori ez da leku guztietan pasatzen.

Iban, Markelek badakit ez lukeela arazorik izango, baina animatuko zinateke halako bat grabatzaera?

Velasco: Ni bai, zergatik ez? Baina Euskaltel taldean ez dut halakorik egiteko girorik ikusten. Zorrotzegiak gara denean, eta badirudi irribarre egitea ere txarto ikusita dagoela.

AUTOMOBILISMOA

Aramaioko rallysprinta bihar, iazko ibilbidearekin

Guztira, 58 auto izango dira lasterketan; antolatzaileen esanetan, kopuru egokia da

X.U. | ARRASATE

Aramaioko rallysprintak hamaika urte beteko ditu bihar, zapatua. 15:30ean hasita, 58 automobil izango dira zein baino zein gehiago, iazko ibilbide berean: "Iaz nobedadea izan zen Ibarratik Uribarrirako tramua eta handik Aixolara artekoa. Tartean ikusmina piztu zuen Zubitxeazpiko bidegurutzean zegoen sestra-aldaketak, eta bai ikusleek eta bai pilotuek tarte berri hori ondo hartu zutenez, aurten bere horretan utziko dugu", adierazi digu Azpikoracing taldeko ordezkari Eneko Uribek.

Iazkoarekin alderatuta, baina, bihar hamar automobil gutxiago izango dira irteera puntuan: "58 lagunek eman dute izena, eta kopuru polita da. Iaz 70 auto izan genituen, eta, egia esan, larregikoa izan zen".

Irteerara, saihesbidetik

Aurtengo nobedade handietako bat da autoen kontrola Ibarran bertan egingo dutela. Hala, pilotuek ez dute irteera puntuan luzaroan zain egon beharko. Ibarrako kontrola pasa, eta behetik gora saihesbidetik bueltan egingo dute, eta tarte hori gurpilak berotzen joateko aprobetxatu ahal izango dute. Hala, irteera puntura iritsi eta segituan hasi ahal izango dute euren txanda.

Lasterketan lehia polita izango da, besteak beste, Zapirainen (Peugeot 206 WRC), Labakaren (EVO) eta Alberdiren (Escort MK2) artean. "Oso ondo dabilen Ander Arana irteeran egongo da, eta baita Antxustegi ere. Vilariñotarrak ez dira proban egongo, Angela Espainiako Rally Txapelketa korritzen dabilelako".

Iazko lasterketan, BMWa Zubitxe-Azpiko saltoaren ostean. | X.U.

FUTBOLA

Aretxabaletak Touring taldearen kontra jokatuko du etxean

Ligako lehenengo jardunaldian hiru puntu batzeko gauza izan ziren Aretxabaleta eta Touring izango dira domeka arratsaldean zein baino zein gehiago (Ibarra, 16:30). Gainontzeko hiru ordezkariek, berriz, kanpoan jokatuko dute asteburuan. Bergarak Lasartera egingo du bidaia zapatuan, Ostadar taldearen kontra jokatzeko (16:00). Mondrak ere zapatuan jokatuko du, 17:00etan, Pasai Antxon Trintxerperen kontra. Eta Aloña Mendik domekan izango du hitzordua, 17:00etan Markinako Berroeta zelaian, Aurrera taldearen kontra.

SASKIBALOIA

Natra Oñatik bazkide kanpaina abiatuko du gaur, plazan

Oñatiko plazan saskibaloi giroa izango da gaur, egubakoitza, arratsaldean (19:00). Batetik, aurten ere EBAn jokatu behar duen Natra-Oñatik aurtengo fitxaketa berriak aurkeztuko ditu herritarren aurrean. Eta bestetik, 2012-2013 denboraldiko kanpaina abiaraziko dute. Neska-mutikoen Oñatiko hiru fitxaketa berriekin saskibaloian jokatu ahal izango dute, plazan bertan jarriko duten saskia erabilita. Jakin iazko txartelak ez duela aurtengo denboraldirako balioko, eta aurten ere bazkideek abantaila mordoa izango dituzte. Hala, gaur bertan txartel berriak tramitatu ahalko dira [Ikus 20. orria].

Aktiba zaitez
mondragonLingua rekin
on
HIZKUNTZAK IKASTEKO METODORIK ERAGINKORRENA.
www. mondragonlingua.com
Gure 10 ikasletik 8k Cambridgeko azterketak gainditzen dituzte.
MONDRAGON LINGUAren konpromisoa
on izateko
Aktiba zaitez gure klaseekin.
Adin guztiak; haurrak, gazteak eta helduak.
Maila guztiak.
Hizkuntza guztiak.
Aktiba zaitez teknologiarik aurreratuenarekin. Zure ordenagailutik bertatik, eroso asko. Gazteenentzat bideojoko didaktikoak.
iPad
Matrikula zaitez urriaren 26a baino lehen
eta IPad bat jasoko duzu doan, zure prestakuntzan laguntzeko.
Dauden guztiak agortu arte balio du promozio honek. Ikasle partikular helduei zuzenduta dago.
ARRASATE
Araba etorbidea 4. Tel. 943 71 20 55
OÑATI
Motxon kalea. Tel. 943 71 60 00

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA
Arrasate / Kontzezino kalea 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

Lorea Agirre. | WWW.MONDRAGON.EDU

Pako Aristi. | PAKO ARISTI

Jon Sarasua. | GOIENA

Kike Amonarriz. | EITB

Euskaldunon komunitateaz

AEDk abendura arteko hitzaldi zikloa antolatu du; euskararen norabideari lau begiratu emango zaizkio

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Iraila eta abendua bitartean, euskal komunitatearen gainean hausnartzeko aukera egongo da AEDk antolatutako hitzaldi zikloetan. "Asko hitz egiten da euskararen erabilera eta datuen gainean; baina horrenbeste datu eta neurketarekin galdu egiten gara. Euskara euskaldunik gabe ez da ezer, euskaldunak gara euskarari bizitza ematen diogunak eta horregatik iruditu zitzaigun garaia zela hitz egiteko euskaldunon komunitateaz", azaldu digu Itxaro Artolak. Modu eraikitzaile batean landuko dira hitzaldiak. Hala, gure inguruaz, jarreraz eta kontraesanez berba egingo da. "Komunitate linguistikoaz, gutaz berba egitea garrantzitsua da; iritziak trukatzea oso aberasgarria da eta beharrezkoa gainera", dio. "Hitzaldi zikloen berri ematearekin batera, hedabideetan eta sare sozialetan sekulako oihartzuna izan duela ohartu gara. Hitzaldien kronikak ere eskatu dizkigute". Hala, Nafarroatik edota kulturgintzako jende garrantzitsuen eskariz, sarean streaming bidez jarraitzeko aukera izango da. "Gure asmoa da euskararen inguruan kontzientzia duen jendea erakartzea: Euskalgintzako jendea. Horiek aterako dietelako hitzaldiei benetako etekina. Baina noski edozein herritarrendako ere ateak zabalik daude".

Lau begirada komunitateaz

Hizkuntza komunitatearen gaineko hausnarketa egingo duten lau hizlari izango ditugu gurean –denak 19:00etan Kulturaten.

Hilaren 25ean Lorea Agirrek irekiko du zikloa. "Hizkuntza, identitatea eta kontzientziaz hitz egin nahi dut. Euskara bada euskaldun egiten gaituena, hizkuntz identitatea bada gurea; atzean zer dagoen ikusi nahi dut".

Urriaren 23an, Pako Aristik euskararen egoera izango du berbagai: "Bi hizkuntza hegemonikoen erdian, menpeko hizkuntza baten egoera petrala bizi du egun euskarak. *Normalizazioa*-ren etiketaz mozorroturiko anti-politika baten ondorioz, piramide sozialean desagertzen ari da, eta laster kaletik ere bai", dio.

Jon Sarasuaren txanda azaroaren 28an izango da. "Estrategia mailako ilunaldi moduko batean aurkitzen da euskalgintza. Euskararen loraldian 50 urteotako bidea aberatsa izan da, eta bide horretako gako batzuen inguruan jardungo dut". Eta, abenduaren 13an, Kike Amonarriz. "XXI. mendeko hiztunen ezaugarriak nabarmen aldatu dira; baita hizkuntza ere". Aldaketen arrazoiak azalduko ditu.

Norabide berean, egin korrika euskararen alde zapatuan

Kontseiluak antolatuta eta *Euskaraz bizi nahi dut* ekimenaren barruan, lasterketa laburrak egingo dira zapatuan Euskal Herriko hainbat herritan. Debagoienean, berriz, Arrasaten egingo da lasterketa. Ibilbide motza izango da –Santamasetako krosa–, eta, lehia ahaztuta, helburua familia giroan ondo pasatzea dela azpimarratu dute AED elkartetik. Talde -lana sustatuz, lehiakortasunik gabe, euskaraz bizi izateko nahia adierazi nahi dute antolatzaileek, jarduera osasungarria egin bitartean. Honela diote: "Guztiok norabide berean boga eginez lortuko dugu euskaraz bizitzeko nahia egikaritzea!". 19 herritan antolatu dituzte eta gehienak 16:30ean hasiko dira. Bada, Arrasaten 18:00etan hasiko dira maila askotariko lasterketak.

ESANAK

"Euskarak euskaldun egiten gaitu; atzean dagoena ikusi nahi dut"

LOREA AGIRRE | IDAZLEA

"Menpeko hizkuntza baten egoera petrala bizi du euskarak"

PAKO ARISTI | IDAZLEA

"Euskararen loraldian, 50 urteotako bidea aberatsa izan dela uste dut"

JON SARASUA | IDAZLEA

"XXI. mendeko hiztunen ezaugarriak nabarmen aldatu dira"

KIKE AMONARRIZ | IDAZLEA

SARI NAGUSIA

19"KO TELEBISTA

EROSKI

SARRERAK

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA ikusteko gonbidapenak.

eureka! zientzia museoa

goienakluba Abantailaz betetako kluba!

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

Hiru kontzertu akustiko, gaurtik domekara Kulturaten

Sons of the Deltaren bluesa, Javier Corcobadoren 'crooner' istorioak eta Artzuaga eta Vilen countrya

USOA AGIRRE | ARRASATE

Kulturate Akustikoa ekimenaren azken txanpa izango da aste bukaera honetan, gaurtik domekara azken hiru kontzertuak eskainiko baitituzte Kulturateko areto nagusian. Kontzertu guztiak 20:00etan hasiko dira.

Bluesa nagusi gaur

Gaur, egubakoitza, Erresuma Batuko Sons of the Delta bikotearen blues doinuez beteko da Kulturate. Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldean sustraitutako blues tradizionala egiten dute, bestelako musika estiloekin konbinatuta.

Zapatuan, Javier Corcobadoren *crooner* istorioak izango ditugu. Alemanian jaiotako madrildar horrek minean eta bakardadean oinarritutako kantu gordinak idatzi izan ditu beti. Ibilbide luzea dauka eta talde askotan ibili da: Mar Otra Vez, Demonios Tus Ojos, Corcobado y los Chatarreros de Sangre y Cielo eta Manta Ray taldeetan, besteak beste.

Sons of the Delta bikotea ariko da gaur Kulturaten. | GOIENA

Domekan, azkenik, Igor Artzuagak eta Luis Vilek osatutako bikotea izango da Kulturateko taula gainean. Azken urteetan bakarlari moduan aritu izan dira biak: Mara proiektuan Artzuaga eta La Mala Crianza bandaren laguntzarekin, berriz, Vil. Biek elkarrekin *Mara Mara* diskoa grabatu dute.

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzeko agendan informazio okerra eman genuen Kulturate Akustikoa ekimenaren gainean; beraz, hemendik, barkamena gure irakurleei eta ekimenaren antolatzaileei.

Zinema eta Gastronomia BCCren eskutik, Donostiako Zinemaldian

U.A. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, hasiko da Donostiako Zinemaldia, eta, Mondragon Unibertsitatearen Basque Culinary Centerrek antolatuta, Zinema eta Gastronomia saila egingo da lehen aldiz, Berlingo Culinary Cinema sailarekin lankidetzan.

Irailaren 22tik 28ra gastronomiarekin lotutako filmak emango dituzte, eta horiek ematen diren egunean, jatetxe edo sukaldari batek menu berezia antolatuko du. Eskainiko diren filmak hauek izango dira: Macaron de caza eta Comme un chef, 22an; Entre les bras, 23an; Lupe el de la vaca, 24an; Jerusalem on a plate, 25ean; Les saveurs de palais eta Babettes Gaestebud, 27an; eta Kitchen Dreams eta Perú sabe: la cocina, arma social, 28an.

Zinemaldia gure medioetan

Imanol Gallego kazetari arrasatearra Donostiako Zinemaldian izango da eta bertako berri emango digu GOIENAn. Arrasate Irratiko zuzeneko saioan (10:30etik 11:30era) astelehen, eguen eta egubakoitzean egingo dituzte konexioak Zinemaldiarekin. Goiena.net-en ere tarte bat izango du jaialdiak, eta Debagoieneko ikuspuntutik begiratuko diogu Donostiako Zinemaldiari.

Dantza ikastaro "zoro eta sortzailea", Aretxabaletako Jaiki elkartearekin

U.A. | ARRASATE

Sormenaren eta esperimentazioaren inguruan aurten ekindako bideari eutsi nahi diote Jaiki elkartean, eta, horretarako, Carla Fernandezekin "kontakt dantza, dantza sortzailea eta zoroen pare dantza egitea" landuko dituzte urrian hasi eta Gabonetara bitartean.

Urriaren 3an hasiko da ikastaroa, 18:00etatik 19:30era, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Izena emateko Jaiki elkartearekin jarri behar da harremanetan: *jaikielkartea@yahoo.es*-era idatzita edo 943 53 43 96 zenbakira deituta. Langileek 40 euro ordaindu behar dute; besteek 35 euro.

Manu Gallardo | Ozenki operazaleen taldeko kidea

"Opera ederra delako aukeratu dugu 'Carmen' ekartzea"

- Urriaren 23ko emanaldirako sarrerak agortzear daude
- Ozenki taldekoak pozarren daude operak duen harrera bikainarekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Urriaren 23an Ozenki taldeak Amaia antzokira ekarriko duen *Carmen* opera ezaguna ikusteko ez dira sarrera asko geratzen honezkero. Talde horren kideetako bat Manu Gallardo da eta pozik agertu da lanak piztu duen interesarekin. Arrasate Musikalen eta ServiKutxa zerbitzuan eros daitezke sarrerak. Atzoko, Amaia antzokian dauden 700 sarreretatik bi herenak, gutxi gorabehera, salduta zeuden.

Agortuko dira sarrerak, aurreko emanaldian bezala?

Baiezkoan nago. Aurreko aldian ere erritmo berean saldu ziren, eta, azkenean, agortu egin ziren. Hortaz, interesa dutenei azkar ibiltzeko esango nieke. Oso pozik nago harrerarekin.

***Carmen* operarik ezagunenetakoa baldin bada ere, zuk nola azalduko zenuke?**

XIX. mendeko opera da eta ziur nago denok opera honen abesti bat edo beste entzuna izango dugula: *Habanera, Toreador*... ospetsuenak. Ekintza bera Sevillan kokatzen da eta protagonistak Don Jose sarjentu frantsesa eta Carmen zigarro-saltzailea dira. Bien arteko amodio istorioa kontatzen da operan. Toreatzaileak, bidelapurrak, zezen-plazak... giro horretan kokatzen da istorioa.

Manu Gallardo, Arrasate Irratiko estudioan. | J.B.

"Gala liriko bat egin eta 'La Traviata' ekarri gura dugu datorren urtean"

Bukaera, opera gehienetan bezala, tragikoa da. Oso ederra da *Carmen* opera, eta horregatik aukeratu dugu ekartzeko. Opera frantsesa da eta badauka gauza bitxi bat: Don Josek, protagonistetako batek, esaldi bat euskaraz esaten du; nafarra delako, hain zuzen. Oso bitxikeria polita da.

Opera 2001 taldeak dakar Arrasatera. Zelakoa da taldea?

Nazioartean ezagunak diren izenek osazten dute. Monika Fabianova izango da Carmen, Francesca Bruni Micaela, Juan Carlos Valls Don Jose eta Escamillo Jose Julian Frontal izango da. Alacanteko konpainia lirikoa da eta arrakasta handia izan du. Arrasatera Bulgariako orkestra sinfoniko batek lagunduta etorriko dira, gainera. Aurreko opera egin zuen talde bera da, eta jendeari asko gustatu zitzaion.

Artistez gain, muntaia bera ere ikusgarria izango da, ezta?

Hala da, bai. Operetan beti dira benetan ikusgarriak jantzi eta agertokiak, eta honetan ere halaxe izango da.

Hasi zarete pentsatzen hurrengo proiektua zein izan daitekeen?

Hasi gara, bai, zer edo zer pentsatzen. Asmoetako bat gala liriko bat antolatzea da eta Arrasateko eta Debagoieneko zaleak gonbidatu gura ditugu parte har dezaten profesionalekin batera, baina datorren urteari begira pentsatutako ideiak dira. *La Traviata* ekarri gura dugu, gainera, datorren urtean, inoizko opera onenetako bat dena.

Martikorena eta Markez gaur Oñatiko gaztelekuan

Kantari bikoteak emanaldia egingo du gaur, barikua, gaztelekuan, 22:00etan. Bien abesti ezagunenekin batera, Martikorenak eta Markezek abesti herrikoiekin osatuko dute errepertorioa eta agertokian lagun izango dituzte Arkaitz Miner gitarra, biolin eta mandolinarekin eta Pello Ramirez txeloarekin eta akordeoiarekin. Belaunaldi ezberdinekoak dira biak, musika ulertzeko modu berezia ere daukate, baina bien batura are bereziagoa izango da.

Gose taldearen disko berriaren xehetasunak blogean

Arrasateko hirukoa bosgarren lanaren azken fasean dabil asteotan, eta, prozesuaren berri emateko *Musikazuzenean.com* webgunean, grabazioaren egunerokoaren xehetasunak ematen ibili dira kontakizun, argazki eta bideoekin. Madrilgo Estudios 54 izeneko estudioan egin dituzte grabazioak eta zenbait bitxikeria jaso dituzte bertan. Disko berriak *Gose IIIII* izango du izena, eta orain, nahasketa lanak hasiko dituzte, aurki izango baita eskuragarri.

AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI

23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Focus 18.500 €
2012 | Diesela | Km 0
- Ford Transit 21.700 €
2012 | Diesela | Km 0
- Ford Focus Tdci 110 12.500 €
2011 | Diesela
- Citroën Picasso Td 92 Zp 7.800 €
2007
- Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp 7.800 €
2000 | Diesela
- Ford Fiesta Tdci 70 Zp 6.800 €
2007 | Diesela
- Ford Connect Tdci 90 Zp 7.900 €
2009 | Diesela
- Kia Sportage Td 12.500 €
2008 | Diesela
- Land Rover Td Freelander 5.500 €
2000 | Diesela
- Mercedes Vito Cdi 8 jarleku 14.500 €
2004 | Diesela

18.450 €

> Renault Trafic Combi
2011 | Diesela | 10218 | Txuria

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

Furgonetetan aukera ezin hobea

- Renault Clio 9200 €
2010 | Gasolina | 17.975 Km | Grisa
- Volkswagen Caddy 10.500 €
2010 | Diesela | 80.308 Km | Txuria
- Renault Grand Modus 11.450 €
2012 | Diesela | 0 Km | Txuria
- Renault Kango Combi 11.000 €
2010 | Diesela | 20.040 Km | Txuria
- Renault Kangoo Furgon 5.950 €
2008 | Diesela | 140.200 Km | Txuria
- Renault Latitude 19.450 €
2011 | Diesela | 149.31 Km | Txuria
- Dacia Logan Van 12.750 €
2011 | Diesela | 0 Km | Txuria
- Renault Megane Sedan 7.550 €
2008 | Gasolina | 58.909 Km | Gorria
- Renault Twingo 9.550 €
2012 | Gasolina | 0 Km | Banilla

29.000 €

> CITROEN DS5 20Hdi STYLE 160
2012 | Diesela | 3.500 km | Urdin argia

CHAPIME
CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

- Citroen C4 Aircross Exclusive 4 wd Hdi 150 zp 31.500 €
2012 | Diesela | 900 km | Zuri nakareztatua
- Citroen Berlingo Com. 1.6 HDI 110 SX Multispace 13.800€
2010 | Diesela | 32.014 km | Urdin argia
- Citroen C3 C3 1.4HDi Attraction 9.800€
2011 | Diesela | 15.500 km | Zuria
- Citroen C5 2.0 HDI Business 14.900€
2011 | Diesela | 36.000 km | Gris argia
- Citroen DS4 1.6 eHDi Design STT 19.500 €
2011 | Diesela | 5.250 km | Urdin iluna
- Citroen DS4 1.6 eHDi CMP Style 22.500 €
2012 | Diesela | 750 km | Gris iluna
- Citroen Jumpy Combi HDI 120 5/9 plaza 14.000€
2011 | Diesela | 40.975 km | Zuria
- Citroen Xsara 19 TD VTS 90 zp 3.000 €
1999 | Diesela | 210.000 km | Horia
- Peugeot 307 SW Hdi 110 zp 4.000 €
2004 | Diesela | 201.250 km | Beltza

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Baserria salgai Zabola auzoan. Hiru etxebizitza egiteko aukera eta 1.415,44 metro koadroko lursaila. 629 513 922 edo 636 494 689

Arrasateko erdialdean. Aukera. Hiru logela, balkoi luzea, hormigoizko egitura, hirugarren pisua, dena kanpoaldera, sukalde hornitua, gas indibiduala, komuna, egongela eta ganbara. Oso argitsua. Bikoteentzat aproposa. 138.500 euro. 662 18 25 73

Oñati. Etxebizitza salgai Kale Zaharra auzoan. Bi logela, komuna, egongela, sukaldea eta barruko patio bat. Guztiz jantzia. Oso argitsua. Igogailuarekin. 190.000 euro. 655 72 27 35

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errenta. Bi logela. Igogailuarekin. Berritua. 645 00 89 97 edo 605 76 76 30

Antzuola. Etxebizitza ematen da errentan, Antigua auzoan. 649 07 97 56

Arrasate. Apartamentu txikia ematen da errentan erdigunean. Logela bat eta egongelarekin. Berokuntzarekin. Hilean 450 euro. 665710666 (Amaia)

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela osoa eta komuna. 609 33 88 96

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Erosteko aukera ere bai. 675 71 50 36

Bergara. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailu eta berokuntza indibidualarekin. Leku onean. 943 79 26 47

Eskoriatza. Mazmela auzoan baserria ematen da errentan, ortu eta guzti. Guztiz eraberritua. Interesatuok deitu 680 33 40 76 edo 605 77 51 65 telefono zenbakietara.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83

Oñati. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 657 13 33 44

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 676 61 15 47

Aretxabaleta. Pixu bila gabiltzan Aretxabaletako bikote gazte bat gara. Nahiago dugu txikia izatea. Eskerrik asko!. 656 71 31 09

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 629 80 77 73

Bergara. Bi logelako etxebizitza behar dugu errentan. 654 24 13 27 edo 687 16 74 63

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09

Elgeta. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Ama eta alaba gara. 686 08 16 90

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Bi logela ematen dira errentan erdigunean. 603 14 28 89

Arrasate. Gela ematen da errentan San Andres auzoan. 657 55 81 15

Arrasate. Logela ematen da errentan Altamiran. Etxe oso eguzkitsua. 653 71 44 57

Arrasate. Logela bila nabil errentan, San Andresen edo gertu ahal bada. 699 11 43 23

Arrasate. Unibertsitate ondo-ondoan, logela bat ematen da errentan, bi neskekin etxea osatzeko. Kalefazio zentrala prezio barruan. Lorea. 620 52 94 98

Arrasate. Unibertsitateko bi ikasle gara eta pisukide bila gabiltza Arrasateko Zerrajera auzoko 3. atarian. Consumerren ondoan eta autobus geltoki zentralaren parean. Hiru logela, bi komun (bat logela baten barruan), komuna balkoiarekin, egongela handi bat beste terraza batekin eta garbigailuarentzat gelatxo bat. 100m koadro baino gehiago. 240 euro hilean gehi gastuak. 670 421 326 edo 686 201 835

Bergara. Erdialdean logela bat ematen da errentan bi mutilekin etxea osatzeko. Etxe berri eta handia da. 697 265 216 edo 608 422 351

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. 670 85 86 68

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 110 euro gehi gastuak. Lau logela, egongela, komuna eta sukaldea. Mendiko kalen. 615 00 67 60

Oñati. Herri erdialdean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila nabil. 225 euro gehi gastuak. Etxea guztiz hornitua dago. 652 71 52 50

Oñati. Logelak ematen dira errentan San Lorentzon. 943 78 31 42 edo 688 60 30 52

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai 15.000 euroan edo errentan hileko 60 euroan. Lezama azpian, Santakrutz 24an. 647 080 016 edo 943 421822

3. LOKALAK

302. ERRENTAN EMAN

ARRASATE
Taberna salgai
ala alokagai
Ferrerias kalean.
675 71 46 76
665 70 36 37

OÑATI
Lokal komertziala
ematen da errentan
Kalegoiena 1ean.
943 78 31 42
688 60 30 52

305. BESTELAKOAK

Oñati. Kale Zaharrean bulegoa konpartituko nuke. Guztiz egokituta dago. Egokia izan daiteke bulego zein jendea atenditzeko. 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuek deitu 19:00etatik 21:00etara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 05 91 77

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
- Profesionalen moduluak.

Debagoiena. Pertsona heldu bat behar da etxeko lanak egin eta nagusi bat zaintzeko. 669 53 97 03

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Emakumea gertu umeak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, orduka. 672 70 71 25

Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

Arrasate. Neska boliviarra pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informeak eta paperak ditut. Gauez eta egunez, baita orduka ere. 618 14 71 34

Arrasate. Neska gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 629 80 77 73

Bergara. 47 urteko pertsona lanerako gertu. 606 24 79 09

Bergara. Adin ertaineko emakumea gertu arratsaldetan, 16:00etatik aurrera, nagusiak pasioan lagundu edo umeak zaintzeko. 610 34 97 88

BERGARA
Garaje edo lokal bat behar da errentan, biltegi gisa erabili ahal izateko. Ahal dela, erdi aldean.
Interesatuok deitu zenbaki honetara:
688 690 007

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32

Debagoiena. Neska euskalduna, psikologian lizentziatua, goizetan haurrekin lan egiteko prest. Haurrekin esperientzia handia. 685 76 91 11

Debagoiena. 40 urteko gizon eta emakumea gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Margoketa lanak ere egingo genituzke. Arrasaten bizi gara. 630 04 52 79

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 699 09 46 26

Debagoiena. Bertako neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Egunez zein gauez. Dispobilitate osoa. Esperientzia. 618 00 08 28

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu garbitasun lanetarako. 695 58 88 63

Debagoiena. Emakumea edozein lanetarako eta edozein ordutegirekin lan egiteko gertu. 600 290 524

Debagoiena. Emakumea edozein ordutegirekin mota guztietako lanak egiteko prest. 664 124 325

Debagoiena. Emakumea gertu etxe edo atariak garbiteko, umeak zaintzeko, edo bestelako lanetarako. Jatetxetan 13 urteko esperientziaduna. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Tituluduna. 680 77 06 46

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketak ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. 602 87 09 30 edo 695 75 42 45

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634 78 19 54

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. Deitu 602 37 14 43 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Eraikuntza ofizial tituludun mutila lanerako gertu. Metalak pulitzen eta garbiketak egiten ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu 639 41 68 38 telefonora.

Debagoiena. Erizaintza laguntzaile tituludun emakume arduratsua eta esperientziaduna pertsona nagusiak zainduko lituzke etxean bertan bizi izaten edota orduka, ospitalean, eta abar. Telefono zenbakiak:. 646 05 58 88 edo 943 79 79 49

Debagoiena. Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu, garbiketa zein sukalde laguntzaile lanetarako gertu. 697 20 00 86

Debagoiena. Garbiketak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Geriatrian titulua daukat. Interesatuok detitu 691 03 25 02 edo 943 54 09 41 telefono zenbakietarar.

Debagoiena. Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Deitu 654 241 327 telefonora.

Debagoiena. Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637 52 89 91

Debagoiena. Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldean lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666 83 21 95

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622 77 60 65

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu, mekanikari laguntzaile zein lorazain jarduteko. Baita ospitalean gaixoak zaindu zein etxeetan bertan bizitzen lan egiteko ere. Deitu 626 36 02 01 edo 943 53 21 92 telefono zenbakietara eta Davidengatik galdetu.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria eta etxeko laguntzaile tituluak dauzkat. Gida baimena eta legezko paperak ere bai. Luis. 672 91 18 46

Debagoiena. Mutila gertu taberna edo kafetegian lan egiteko. Baita lorazain, garbiketa zein nagusien zainketan jarduteko ere. 616 32 90 12

Debagoiena. Mutila gertu, esperientziaduna, nagusiak zaintzen lan egiteko, orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko prest. 602 07 12 06

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean gaixoak zaintzeko ere. 618 13 46 15

Debagoiena. Neska euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Esperientzia eta informeak ditut. Autoa daukat eta ordutegi zein egutegi malgutasuna. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak, garbiketan, nagusiak zaindu, sukaldatu eta abarretan jarduteko. Interesatuok deitu: 610 99 70 46

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Nancy. 636 47 64 92

Debagoiena. Neska gertu lan desberdinetan aritzeko: etxeak garbitzen, nagusiak zaintzen, umeak zaintzen eta abar. 626 51 05 58 edo 943 25 38 67

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetariko garbiketak egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburutan. Esperientziaduna. 626 91 49 04

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldean ere. Erreferentziak ditut. Autoa ere bai. 680 87 38 66

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldean ere. Erreferentziak ditut. Autoa ere bai. Deitu: 634 40 64 65

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketak ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. 673 47 53 74

Debagoiena. Neska gertu orduka etxeak garbitzen, nagusiak zaintzen, ospitalean gauak egiten, taberna garbiketa eta abarretan lan egiteko. Deitu: 699 60 91 90

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Edozein ordutegitan. Deitu: 630 20 12 03

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Edozein ordutegitan. Deitu: 679 29 78 89

Debagoiena. Neska gertu taberna, atari eta abarren garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko edo bestelako lanetarako. 679 30 65 28

Debagoiena. Neska gertu tabernatan, ume edo nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Baita garbiketak egiteko ere. Pertsona arduratsua. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Deitu: 722 14 42 86

Debagoiena. Ostalaritzan lan egingo nuke: sukaldari edo laguntzaile. 634 41 90 51

Debagoiena. Senar-emazteak, erizaintza laguntzaile tituluarekin, pertsona nagusiak zainduko lituzke: etxean bertan bizi izaten, ospitaletan, eta abar. Deitu 697 35 62 49 edo 943 79 04 69 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Sukaldari edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Zortzi urteko esperientzia daukat. Elikagaiak ibiltzeko titulua daukat. Autoa ere bai. 634 40 64 65

Debagoiena. Sukaldari esperientziaduna lan egiteko prest. 943 53 34 24

Zerbitzaria. Taberna edota kafeteri batean arratsaldez lan egiteko gogoz dagoen neska gaztea. Ikaslea goizetan. 686 20 18 35

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Gitarra eskolak Oñatin. Gitarra eskolak jaso nahi nituzke, Oinatin. 653 74 87 51

Kitarra eskolak Oñatin. Kitarrako eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona batetan interesatuak gaude. . 626 75 61 12

Oñati. DBH 4. mailako eskolak emango dizkidan norbait behar dut, kurtsoan zehar laguntzeko. 627 91 23 21

502. EMAN

Bergara. Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Talde txikietan. Azterketak prestatzeko: Cambridge eta HEO. Baita enpresarako eskolak ere. Goizez, eguerdian edo arratsaldean. 618 91 32 89

Bergara. Neska Lehen Hezkuntzan eta DBHn eskola partikularrak emateko gertu. Deitu 685 77 40 26 telefonora.

Oñati. Irakasle eta psikopedagogoak eskola partikularrak ematen ditut: klase pertsonalizatuak (euskara indartzeak, ulermen arazoak, eta abar), bakarka edo talde txikietan. 685 76 83 16 edo 943 78 07 49

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Irailean jaiotako katakume poli-politak familia berri baten bila dabiltza. Deitu 626 12 57 47 zenbakira.

704. BESTELAKOAK

Txakurra galdu Arrasaten. Abuztuaren 13an Bedona inguruan, Arrasate, artzai txakur zuria galdu zen. Oso alaia eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroixka dauka. Ikusi baduzue mesedez deitu. 665 71 44 76 edo 653 70 33 44

8. DENETARIK

801. SALDU

Almirante trajea. Lehen jaunartzeko almirante trajea salgai. Neurria: 10. Zapatak izan ezik gainontzeko guztia. Behin erabilitakoa, 150 €. 618 00 08 28

Aramaio. Zabola auzoan 10.119,34 m²ko bi lursail salgai, etxebizitzak egiteko aukerarekin; proiektu, lizentzia eta guzti. 629 513 922 edo 636 494 689

Aulkirako patinetea. Bigarren umea eramateko patinete unibertsala salgai. Bumprimer etxekoa. Ia erabili gabea. 45 euro. 663 04 53 99

Biolinak. Hasiberriendako bi biolin salgai Debagoienean. Negoziatzeko. Deitu 643 76 79 64 telefonora.

Mutilendako trajea. Prakak, jaka eta txalekoa. Beltza. 40 neurrikoa. Maritxu Kajoirako aproposa. Deitu 21:30etatik aurrera: 630 71 92 67

Xurgagailua. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

Yamaha Clavinova pianoa. Yamaha Clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketetako oso egokia. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuek deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653 73 78 58

802. EROSI

Birkien aulkitxoa. Birkiendako aulkitxoa erosiko nuke. 663 04 53 99

Bugaboo patinetea. Bugaboo etxeko patinetea erosiko nuke. Deitu 663 04 53 99 telefono zenbakira.

Estetika tresnak. erosteko prest. Kamilak eta abar. Deitu 619 87 95 57 telefonora.

803. EMAN

CDak. CD pila bat dauzkat emateko. Arrasaten. Ez dira jatorrizkoak. Denetariko estilotakoak. Interesa izanez gero deitu zenbaki honetara: 695785249 (Aitor)

806. GALDU

Bizikleta Bergaran. Irailaren 3an desagertu da bizikleta. Lapierre 400 modeloa, zuria. 677 63 42 55

Patinete larrosa. Abuztuan Aretxabaletako Dagda taberna inguruan patineta larrosa galdu genuen. Nora izena eta telefono zenbaki bat dauzka idatzita.

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€. PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Zubiaurre 52 m², 2 logela. 141.238€.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Eskusarte 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 130.000€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekuarekin. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Ramon M. Lili 92 m². 3 logela. Terraza eta garajearekin. Berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Justo Garate 60 m². 2 logela. Terraza eta garajearekin. 240.000€.
- Simon Arrieta 75 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin.
- Irizar Enparantza 71 m². 2 logela, igogailu, berogailu, trasteleku eta garajearekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zubiaurre 65 m². 3 logela. 63.000€.

ANTZUOLA:
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m2 garajea + 90 m² lursaila.

ASTEA GOIENAN

GOIENA

MUko errektorea 'Harira' saioan

Josu Zabala -Mondragon Unibertsitateko errektorea- elkarrizketatuko dute martitzenean *Harira* saioan. Besteak beste, ikasturte berria, Aretxabaletako campusa, MUren erronkak, Bologna eta krisiaren eragina izango dira berbagai.

'Harira'
Martitzena, 21:33

GOIENA

Ohiko saioak bueltan dira Goiena telebistan

Datorren astetik aurrera, ohiko saioak izango ditugu: albistegiak; *Magazinea*, astelehenetik eguenera; *Harmailatik* (argazkian), astelehenean; *Harira*, martitzenean; *Tertulia* eguaztenetan; *Planik bai?*, eguenetan; *Aste on*, egubakoitzetan.

Programazio
Ordutegia, beheko taulan

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 21

12:30 Planik bai?
12:50 Magazinea
13:35 Zorion Agurrak
13:40 Onein
14:03 Laino arteko plana
14:33 Musikaz Gain
14:43 Zorion Agurrak
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:11 Planik bai?
15:31 Bizitegia
16:01 Bioaniztasuna arriskuan
16:27 Ekogune
16:57 Berriak
17:17 Eguraldia
17:20 Planik bai?
17:40 Ekogune
18:10 Harira
18:43 Tertulia
19:43 Laino arteko plana
20:13 Berriak
20:33 Eguraldia
20:36 Planik bai?
20:56 Harira
21:27 Berriak
21:47 Eguraldia
21:50 Musikaz Gain
22:00 AsteON
22:35 Zer jan, hura izan
23:05 Berriak
23:25 Eguraldia
23:28 Planik bai?
23:48 AsteON
00:23 Esatea libre
01:38 Berriak

ZAPATUA 22

10:00 Erreportajea
10:30 Zorion Agurrak
10:35 Ekogune
11:05 Bizitegia
11:35 Planik bai?
11:55 Onein
12:23 Berriak
12:38 Magazinea
13:38 Esatea libre
14:53 Harira
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Berriak
15:45 Onein
16:17 Erreportajea
16:43 Planik bai?
17:03 Erreportajea
17:33 Zorion Agurrak
17:38 Berriak
17:53 Laino arteko plana
18:23 Magazinea
19:23 Planik bai?
19:43 Musikaz Gain
19:53 Tertulia
20:53 Harira
21:25 Musikaz Gain
21:35 Bertso saioa
23:10 Magazinea
00:10 Planik bai?

DOMEKA 23

10:00 Erreportajea
10:26 Erreportajea
10:56 Zorion Agurrak
11:01 Onein
11:28 Magazinea
12:28 Planik bai?
12:48 Berriak
13:03 Onein
13:26 Taula gainean
13:56 Bertso saioa
15:31 Zorion Agurrak
15:36 Berriak
15:51 Tertulia
16:51 Berriak
17:06 Magazinea
18:06 Harira
18:38 Laino arteko plana
19:08 Magazinea
20:08 Ikusmira
20:38 Taula gainean
21:08 Zorion Agurrak
21:13 Erreportajea
21:38 Magazinea
22:13 Goierri Creation Center
22:40 Berriak
22:55 Bizitegia
23:25 Laino arteko plana
23:43 Magazinea
00:43 Tertulia

ASTELEHENA 24

12:25 Magazinea
13:10 Zorion Agurrak
13:15 Onein
13:43 Tertulia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Zorion Agurrak
15:13 Erreportajea
15:43 Erreportajea
16:13 Erreportajea
16:43 Zorion Agurrak
16:48 Berriak
17:08 Eguraldia
17:11 Onein
17:43 Goierri Creation Center
18:08 Esatea libre
19:23 Ekogune
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:01 Berriak
21:21 Eguraldia
21:27 Harmailatik
22:12 Magazinea
22:57 Harmailatik
23:42 Berriak

MARTITZENA 25

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 Erreportajea
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:21 Goierri Creation Center
16:44 Berriak
17:04 Eguraldia
17:07 Erreportajea
17:37 Bizitegia
18:07 Harmailatik
18:52 Laino arteko plana
19:20 Erreportajea
19:46 Zorion Agurrak
19:51 Berriak
20:11 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Berriak
21:20 Eguraldia
21:23 Musikaz Gain
21:33 Harira
22:03 Erreportajea
22:33 Musikaz Gain
22:44 Magazinea
23:29 Berriak
23:49 Eguraldia

EGUAZTENA 26

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harira
13:53 Musikaz Gain
14:03 Harmailatik
14:48 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Erreportajea
15:36 Onein
16:06 Goierri Creation Center
16:41 Berriak
16:56 Eguraldia
16:59 Harmailatik
17:44 Zorion Agurrak
17:49 Musikaz Gain
18:00 Laino arteko plana
18:30 Harira
19:03 Erreportajea
19:33 Zorion Agurrak
19:38 Musikaz Gain
19:48 Berriak
20:03 Eguraldia
20:06 Tertulia
21:06 Lehiaketa
21:16 Berriak
21:36 Eguraldia
21:41 Laino arteko plana
22:11 Bertso saioa
23:46 Berriak
23:51 Eguraldia

EGUENA 27

12:30 Harira
13:00 Zorion Agurrak
13:05 Tertulia
13:35 Erreportajea
14:05 Onein
14:28 Musikaz Gain
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Erreportajea
15:34 Goierri Creation Center
16:04 Musikaz Gain
16:15 Erreportajea
16:45 Berriak
17:05 Eguraldia
17:08 Bertso saioa
18:43 Onein
19:08 Planik bai?
19:28 Ekogune
19:58 Berriak
20:18 Eguraldia
20:20 Magazinea
21:05 Planik bai?
21:25 Berriak
21:45 Eguraldia
21:48 Erreportajea
22:14 Walker
22:44 Planik bai?
23:04 Magazinea
23:49 Berriak
00:09 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

'Carmen' opera Amaia antzokian urriaren 23an

Carmen opera arrakastatsua etorriko da gurera datorren urriaren 23an. Georges Bizet -en obra ekarriko du Amaia antzokira Ozenki elkarte lirikoak. Bertako zuzendari Manu Gallardorekin egongo gara Opera 2001 konpainiak antzeztuko duen obrari buruz solasaldia egiteko Arrasate Irratian.

'Arrasate: 1936' dokumentala zozketatuko dugu

Asteburu honetan, Intxorta 1937 elkarteak eta Dragoi Produkzioek estreinatu berri duten *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* dokumentala zozketatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo bidali mezu bat *irratia@goiena.com* helbidera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 22	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 23	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 24	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Martitzena, 25	ERKUDEN	Zarugalde, 38	943 77 16 30
Eguaztena, 26	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 27	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 28	CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
BERGARA			
Zapatua, 22	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Domeka, 23	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Astelehena, 24	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 25	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 26	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 27	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Egubakoitza, 28	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
OÑATI			
Zapatua, 22	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 23	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 24	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 25	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 26	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 27	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 28	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
ARETXABALETA / ESKORIATZA			
Zapatua, 22	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 23	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 24	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Martitzena, 25	ERKUDEN	Zarugalde, 38	943 77 16 30
Eguaztena, 26	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 27	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 28	CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26

Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Max. 32º
Min. 8º

ZAPATUA, 22
Zerua hodei gutxirekin egongo da eta arratsaldean erdi mailako hodei eta goi-hodei tarteak baino ez dira agertuko.

Max. 27º
Min. 9º

DOMEKA, 23
Orohar, tenperaturak behera egingo du domekan, eta arratsalde partean hodei tarteak ere izango ditugu.

EUSKAL HERRIA

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Unibertsitatea Eusko Jaurlaritza. 2012-2013 ikasturtean unibertsitate eta goi mailako ikasketak egiteko dirulaguntza orokorra. Epea: irailak 28.
Ikasketa ez-unibertsitarioak. Eusko Jaurlaritza. 2012-2013 ikasturtean haur hezkuntzatik batxilergoraino eta heziketa zikloak ikasteko dirulaguntza orokorra. Epea: urriak 15.

LANA

2 gizarte langile Lasarte-Oriako Udala. Epea: irailak 24.
Idazkari-kontu hartzailea Mendexako Udalerako plaza. Epea: urriak 3.
Alemania Munich hirian, hoteletako garbitasunean lan egiteko 15 lanpostu. Epea: irailaren 30a.

LEHIAKETAK

Argazkigintza Done Jakueren Bidea argazki lehiaketa. Epea: urriaren 1a. *www.jacobeo.net.*
Arte plastikoak. Art Nalon Arte lehiaketa arte plastikoen esparruan. Modalitateak: pintura, eskultura eta grabatua. Epea: irailak 28.

IKASLE TXARTELA

ISIC Datorren ikasturterako ikasle txartela ateratzeko aukera duzu 2012-2013ko matrikularekin. 2013ko abenduaren 31 arte deskontuak lortzeko aukera izango duzu!

IKASTAROAK

Urriaren 16tik abenduaren 18ra
Flamenko ikastaroa Askoa Etxebarrieta *La Pulga*ren eskutik. Martitzenetan 18:30 -20:00.
Material desberdinak erabiliz **BIRtxigintza** ikastaroa Dunixe Royoren eskutik. Urriaren 17tik abenduaren 19ra.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

HILDAKOAK

Maria Luisa Berezibar Otxoa de Angiozar.
Arrasaten, abuztuaren 14an. 88 urte.
Gregori Echeverria Erostarbe.
Bergaran, irailaren 16an. 87 urte.
Armando Legorburu Vitoria.
Eskoriatzan, irailaren 6an. 48 urte.

Txaro Bereciartua Loroño.
Arrasaten, irailaren 19an. 60 urte.
Angel Carballares Seco.
Arrasaten, irailaren 16an. 81 urte.

Mariano Valle Fuentes.
Arrasaten, irailaren 16an. 88 urte.
M. Carmen Juaristi Mendizabal.
Arrasaten, irailaren 17an. 86 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Ana eta Ina

Ana eta Ina irailaren 26an ezkondu ziren, duela 25 urte. "Hori ospatzeko, zapatu honetan afari mundiala egingo dugu. Zorionak, koadrilakoen partetik, eta oso ondo pasatu. Muxu handi bat".

Felix eta Consuelo

Felix Arriaranek eta Consuelo Azkargotak urrezko ezteiak ospatu zituzten irailaren 15ean. Arrasateko parrokian eliza-ospakizuna egin ondoren, familia guztiak bazkari ederra egin zuen. Egun zoragarri eta ahaztezina. Mila zorion, familia guztiaren partetik!

Aitor eta Nerea

Aitor eta Nerea zapatuan, irailaren 22an, ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu eguna.

ESKER ONA

Armando Legorburu Vitoria

Eskoriatzan hil zen 2012ko irailaren 6an, 48 urte zituela.

Momentu latz hauetan gurekin egon zareten guztioi,
eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
Haren aldeko meza zapatuan izango da, irailaren 22an,
19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Arrasaten, 2012ko irailaren 21ean.

ESKER ONA

Gregori Echeverria Erostarbe

Felipe Cortabarriaren alarguna

Bergaran hil zen 2012ko irailaren 16an, 87 urte zituela.

Samin-agurrak eman zenizkigutenoi eta
azken agurreko elizkizunetara joandakoei,
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2012ko irailaren 21ean.

ESKER ONA

Maria Luisa Berezibar Otxoa de Angiozar

Valentin Jauregiren alarguna

Arrasaten hil zen 2012ko abuztuaren 14an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2012ko irailaren 21ean.

OROIGARRIA

Txaro Bereciartua Loroño

Beti gogoan izango zaitugu.

Inversiones y Servicios Arrasate SAko langileak (Anboto Inmobiliaria)
Arrasaten, 2012ko irailaren 21ean.

OROIGARRIA

Axier Otxandorena Lopez

Iruñean hil zen 2012ko irailaren 15ean, 27 urte zituela.

Bizitzai aurre itxeko
zeuketzun indarrakin,
zaila ein dozu errez,
zatarra, barriz, politx.
Zu bezelako pertsona bat
ez dau sekula ahazteik.

Arrasateko lagunak.
Arrasaten, 2012ko irailaren 21ean.

10. URTEURRENA

Asier Sastre Estevez

2002ko irailaren 27an hil zen.

Gazte joan zinen gure artetik
lagun aparta benetan
eta ordutik zu egon zara
gu guztion bihotzetan
nahiz ta haseran gogorra izan
barrezka gaude askotan
guaz zaudela dakigulako
elkartzen garen denetan.

Zure koadrila.
Aretxabaletan, 2012ko irailaren 21ean

GOIENA

OÑATI Mikel Markez eta Erramun Martikorena
Mikel Markezek eta Erramun Martikorenak herriz herri dihardute elkarrekin kantaldiak eskaintzen eta gaur Oñatin egingo dute geldialdia. Hegoaldeko eta iparraldeko kantagintzari errepasoa egingo diote, bakarka batzuetan, elkarrekin bestetan, musikari bikainen laguntzaz.
Gaur, Gaztelekua, 22:00etan.

GOIENA

ARAMAIO Txirritola eguna etzi
Txirritola euskara elkarteak antolatuta, goiz osoan zehar hainbat ekitaldi egongo dira: trikitilariak, sagardoa dastatzeko aukera, taloak, pintxoak... Maider Unda borrokalari aramaioarrak egingo du txotx irekiera.
Etzi, Aramaion, 11:30ean.

NON-ZER

IRAILA 21
IRAILA 27

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

ARAMAIO Fool Cool taldearen kontzertua
Gasteizko taldeak kontzertua emango du gaur Sastiñan. 19:30ean izango da hori.
Gaur, Sastiñan, 19:30ean

ELGETA Trikipoteoa
Gaztetxeak antolatuta Sagardo Egunaren barruan trikipoteoa egingo dute Elgetan bihar, 19:30ean hasita. 17:00etan hasiko da urteroko tortilla lehiaketa eta ez hori bakarrik, izan ere gaztetxean upelak ipiniko ditu herriko gune desberdinetan. Aurten, gainera, bazkaria eta bertso afaria antolatu dituzte, eta biak egingo dira gaztetxean. Bazkariaren prezioa zortzi eurokoa da, eta bertso afariarena 15 eurokoa.
Bihar, Elgetako kaleetan, 19:30ean.

ARRASATE Kulturate Akustikoa
Gaur, egubakoitza, Sons of the Delta, bihar Javier Corcobado eta etzi Igor Artzuaga & Luis Villen kontzertuak Kulturate Akustikoaren barruan.
Gaur, bihar eta etzi, Kulturateko areto nagusian 20:00etan

OÑATI Oñatiko musika bandaren kalejira eta kontzertua
Oñatiko musika bandak kontzertua egingo du etzi Oñatiko plazan, 13:00tan. Aurretik, baina, ohitura den moduan, Kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena.
Etzi, Foruen Enparantzan, 11:00etan.

ELGETA Kontzertua: ON taldea
Gaztetxeak antolatuta eta gaztetxean bertan, Sagardo Egunaren barruan ON taldeak kontzertua eskainiko du.
Zapatutik domekarako gauean, Elgetako gaztetxean, 00:30ean.

ANTZERKIA

ARETXABALETA Hipo eta Tomax pailazoen antzezlana
Hipo eta Tomax pailazoek *Papo pupa* ikuskizuna eskainiko diete 4 urtetik aurrerako neska-mutikoei etzi, Aretxabaletako Zaraoa aretoan. 17:00etan hasiko da eta sarrera 3 euro kostako da.
Etzi, Arkupeko Zaraia aretoa17:00etan.

IKUSKIZUNAK

OÑATI "Soinuberbak" ikuskizunerako sarrerak salgai
Soinuberbak ikuskizunerako sarrerak salgai daude 10 eurotan. Bertsoa eta trikitia uztartzen dituen ikuskizuna da *Soinuberbak*. Urriaren 5ean izango da emanaldia, Zubikoako frontoian.
Gaur, Kultura etxean16:30etatik 20:30etara.

OSPAKIZUNAK

OÑATI Mugikortasun Eguna
Herriguneko hainbat kale itxi egingo dituzte zirkulaziorako, oinezkoei eta txirrindulariei lehentasuna emanaz.
Gaur, Herriko kaleetan, 07:00etan.

OÑATI Haurren danborradak 30 urte aurten
Santa Marinan hasi eta Foruen plazan bukatuko da. Ondoren, buruhandiak eta erraldoiak, Jose de Aspiazu musika eskolako trikiti-pandero taldeak lagunduta.
Bihar, herriko kaleetan, 18:00etan.

ELGETA Bertso-afaria
Elgetako gaztetxeak antolatuta Sagardo Egunaren barruan.
Bihar, gaztetxean, 21:00etan.

OÑATI Erraldoi eta buruhandien konpartsak
Erraldoi eta buruhandien konpartsak kaleetan barrena ibiliko dira.
Etzi, kaleetan barrena, 18:00etan

ARAMAIO Erretiratuendako bazkaria
Urtero moduan, Txirritola egunarekin batera, Alaiak erretiratu elkarteak herriko erretiratuendako bazkaria antolatu du kiroldegiko kantxan. Aurten ere 100 lagun inguru elkartzea espero dute. Bazkaria baino lehen meza egingo dute urtean zehar hildakoen oroimenez, 12:00etan. Bazkarian ez dira falta izango opariak urte gehien dituzten aramaioarrendako.
Etzi, kiroldegian,14:30etan.

ARAMAIO Txirritola eguna 2012
Txirritola euskara elkarteak antolatuta, goiz osoan zehar hainbat ekitaldi egongo dira: trikitilariak, sagardoa dastatzeko aukera, taloak, pintxoak... Maider Unda borrokalari aramaioarrak egingo du txotx irekiera.
Etzi, herriko plazan, 11:30ean.

OÑATI Nazioarteko LIII. Artzain Txakurren Txapelketa
Txapelketak irauten duen bitartean, pottokekin ibilbideak San Martinen.
Etzi, Santa Lutzian, 10:30ean.

OÑATI Txistulari bandaren goiz ereserkia
Txistulari bandaren goiz ereserkia etzi, goizean.
Etzi, herriko kaleetan, 09:00etan.

BERTSOLARITZA

BERGARA Bertsoklown finala jokatuko dute
Jokin Uranga, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Izagirre bertsolariek Bertsoklown finala jokatuko dute etzi Bergarako gaztetxean. Aipatutako hirurak bertsotan eta gai jartzaile lanetan Inozentzio klownlaria ibiliko da. Sarrera 3 euro kostako da.
Etzi, Bergarako gaztetxean, 17:30etan.

GOIENA

ARRASATE Kooltur Asteburua
Kooltur Asteburua antolatu dute Kooltur Ekintzak eta Arrasateko Gaztetxeko Asanbladak; hala, gaur, Lobo Electrico eta Nuevo Catecismo Catolico taldeek egingo dute emanaldia eta bihar Iheskide eta McOnak eskainiko dute kontzertua. Biak ala biak 22:00etan ekingo dira, gaztetxean bertan.
Gaur eta bihar, Gaztetxean, 22:00etan.

UMEAK

ARETXABALETA Joko erraldoiak
Ludotekak ate irekiak egingo ditu ikasturtea hasi eta ezagutzera emateko. Aste osorako antolatu ditu ekintzak eta astelehenean joko erraldoiak egingo dituzte plazan; martitzenean Iralabarri plazan eta eguaztenean Santa Kurtzeko plazan.
Irailaren 24an, 25ean eta 26an, 17:30ean.

ERAKUSKETAK

ARRASATE 'Emisio Txikiko Ibilgailuak: Mugitzeko beste era bat' erakusketa
Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barruan egingo dute erakusketa.
Bihar, Biteri Plazan, 11:00etan.

OÑATI Margo erakusketa
Aire libreko X. margo lehiaketako eta margo ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai. Astelehenetik domekara.
Irailaren 25a, martitzena, Kultura etxean, 18:00etan.

IRTEERA

ELGETA Irteera: Elgetako basoak ezagutzen
Udazken Koloreak Elgetan egitasmoaren barruan. Gidaria: Daniel Gillegi. Hiru bat orduko irteera Egoarbitza aldeko haginak eta sekuoiak ikustera. 10 urtetik gorakoendako.
Etzi, herriko plazatik, 10:00etan.

HITZALDIAK

ARETXABALETA Haurren hazkuntzan laguntzeko taldeak aurkezteko hitzaldia
Haurren hazkuntzan laguntzeko taldeak zer diren azaldu eta lanean hasteko hitzaldia antolatu du Kuku Miku taldeak. Ana Bacigalupe, Amalur Taldeko kideak gidatuko du hitzaldia, eta asmoa da 0-3 eta 3-6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoen hazkuntzarako taldeak sortzea.
Irailaren 24a, astelehena, Arkupeko bigarren solairuan 11:00etan eta 18:00retan.

GOIENA

ELGETA Sagardo eguna
Berritasunekin dator aurten Sagardo eguna. Baserritarren urteroko azokaz gain, aurten herriko baserrien argazki erakusketa, txorimalo lehiaketa, eta Intxortako igoera gehitu ditu Udalak. Gaztetxeak, berriz, bazkaria eta afaria antolatu ditu.
Bihar, Elgetan, 10:30ean.

ARRASATE Lorea Agirreren hitzaldia, "Nor izateko"
AED elkarteak antolatutako "Lau begiratu euskararen norabideari" zikloaren barruan, hitzaldia eskainiko du Lorea Agirre kazetari eta Sorguneak taldeko kideak, "Nor izateko" izenburupean.
Irailaren 25a, martitzena, Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoa19:00etan.

BERGARA Adimen ezintasuna berbagai
'Adimen ezintasuna, zertan aldatu da, zertan aldatzen ari den' delako hitzaldia egingo du Paul Zubillaga doktoreak, Uliazpi zentroak antolatuta.
Irailaren 26a, eguaztena, Irizar jauregian, 19:00etan.

BESTELAKOA

ARETXABALETA GauHon egitasmoa: gaztelekua gauean zabalik
14 eta 16 urte arteko neska-mutikoek, DBHko 3. eta 4. mailakoek, zabalik izango dute gaztelekua 22:00etatik 01:00ak artean.
Bihar, Atxagazte gaztelekuan, 22:00etatik 01:00etara.

ARRASATE Ez ohiko batzar orokorra Danok Bat elkartean
Danok Bat elkarte gastronomikoan ez ohiko batzar orokorra egingo dute. Gaien artean daude estatutu berriak onartzea eta Euskal Autonomi Erkidegoko elkarte gastronomikoen elkargoan sartu edo ez bozkatzea.
Bihar, Danok Bat elkartean,12:00etan

ZINEMA

OÑATI 'El legado de Bourne' filma
El legado de Bourne filma eskainiko dute asteburu guztian zehar Oñatiko zinema aretoan. Gaur eta bihar 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:30ean eta astelehenean, 19:30ean.
Gaurtik astelehenera, Oñatiko zinema aretoan.

BERGARA 'No habra paz para los malvados' filma
12 urtetik gorakoendako eskainiko dute 2011n film onenaren Goya saria irabazi zuen *No habra paz para los malvados* filma. Etzi izango da, Zabalotegi aretoan.
Etzi, Zabalotegi aretoan, 19:30ean.

BERGARA 'Alvin y las ardillas' filma Zabalotegin
Adin guztietarako filma.
Etzi, Zabalotegi aretoan, 17:00etan

DEIA

OÑATI Artzain Txakur Txapelketako txakurren erakusketa
Artzain Txakurren Txapelketan parte hartuko duten artzainen eta txakurren aurkezpen ekitaldia egingo dute bihar. Border colie arrazako txakurrak ikusi ahalko dira, bereziki.
Bihar, Herriko plazan, 19:30ean.

OÑATI San Migeletako IV. mus txapelketa
San Migeletako IV. mus txapelketa. Izen-ematea, 15:30ean; eta txapelketaren beraren hasiera, 16:30ean.
Bihar, Foruen plazan, 15:30ean.

OÑATI Aire libreko X. margo lehiaketa
Aire libreko X. margo lehiaketa. Sari banaketa 14:30ean izango da kultura etxean.
Etzi, Herriko kaleetan, 09:00etan.

IKASTAROAK

ARRASATE 'Gidatze eraginkorra, gidatze ekonomikoa', ikastaroa
Modu eraginkorrago eta ekonomikoago batetan gidatzen ikasteko ikastaroa.
Bihar, Kultur Ateko Jokin Zaitegi Aretoan, 09:30etan.

KIROLA

ELGETA XVI. Intxortara igoera
Udalak antolatuta saria hiru lasterkari azkarrenendako, eta 60 euroko sari berezia Jose Mari Arozenaren marka (17:23) hobetzen duenarendako.
Bihar, Herriko plazatik abiatuta 12:00etan.

ARRASATE Birzikleta Azoka
Mugikortasun Iraunkorraren Astearen egitarauaren barruan bigarren eskuko bizikleta azoka egingo dute bihar. 11:00etatik 15:00etara bitartean egongo dira Seber Altuben.
Bihar, Seber Altube Plazan, 11:00etan.

ZINEMA

GASTEIZ

FLORIDA

A Roma con amor
Egubakoitz eta zapatutan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30, 00:25.
Domekan: 12:00, 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Una botella en el mar de gaza
Egubakoitz eta zapatuan: 18:00, 22:30, 00:20.
Domekatik eguenera: 17:30, 22:30.

Camera Obscura
Egubakoitzetik eguenera: 20:15.

Totall Recall
Egubakoitz eta zapatuan: 17:00, 22:15, 00:35.
Domekan: 17:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

Holmes & Watson
Egubakoitz eta zapatuan: 19:30, 22:00.

Madrid days
Domekatik eguenera: 20:00.

El Nombre
Egubakoitz eta zapatuan: 18:00, 20:15, 22:30, 00:20.
Domekatik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

El amigo de mi hermana
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30, 00:20.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Brave
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:30, 18:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Shanghai
Egubakoitz eta zapatutan: 20:15, 22:30, 00:20.
Domeketan: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

Las aventuras de Tadeo Jones
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:45, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Amor bajo el espino blanco
Egubakoitz eta zapatutan: 20:15, 22:30, 00:35.
Domekan: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

GORBEIA

Sin frenos
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:00.

A contrareloj
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:15.
Egunero: 18:15, 20:15, 22:15.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:15

Alvin y las ardillas
Zapatuan: 16:00.

El gato con botas
Zapatuan: 16:00.

Don gato y su pandilla
Zapatuan: 16:00.

Los Cachorros
Domekan: 16:00.

Los Muppets
Domekan: 16:00.

Total recall
Egubakoitzetan eta astelehenetik eguenera: 17:30, 19:50, 22:10, 00:30.
Zapatuan eta domekan: 17:00, 19:30, 22:00.

Las aventuras de Tadeo Jones
Egubakoitz eta zapatuan: 15:30, 17:30, 19:30, 21:30.
Domekatik eguenera: 15:30, 17:30, 19:30.

Todos tenemos un plan
Egunero: 22:15.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:40.

Dredd
Egunero: 22:10.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:10.

La posesion
Egunero: 17:45, 19:45, 21:45.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 23:45

Abraham Lincoln
Egunero: 20:00.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:00.
Domekatik eguenera: 22:00.

Los Mercenarios
Egunero: 20:10.

Step up revolution
Egunero: 18:10.
Zapatutan, baita: 16:10.

El legado de Bourne
Egunero: 22:20.

Ted
Egunero: 20:20, 22:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:40.

Brave
Egunero: 17:50.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:40.

Madagascar
Egunero: 18:20.

BOULEVARD

Atrapados en Chernobil
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:25.
Egunero: 18:15, 20:20, 22:25..
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:25.

Mátalos suavemente
Egunero: 18:10, 20:10, 22:10.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:10.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:10.

A Roma con amor
Egunero: 17:45, 20:00, 22:15
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:30.

Las aventuras de Tadeo Jones
Egunero: 17:40, 18:40, 19:40, 20:40
Egubakoitz, zapatu eta jaiegunetan, baita: 15:40, 16:40.

El legado de Bourne
Egunero: 21:40.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:15

Total Recall
Egubakoitz eta zapatutan: 15:45, 18:15, 20:45, 23:15.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

The Possession
Egunero: 18:20, 20:30, 22:40.
Egubakoitz eta zapatuan: 00:50.

Todos tenemos un plan
Egunero: 22:15.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:30

Los Mercenarios
Egunero: 22:30.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:45.

Dredd
Egunero: 22:40.
Egubakoitz eta zapatutan, baita: 00:40.

Step up revolution
Egunero: 17:40.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.

Ted
Egunero: 19:50.

Madagascar 3
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Brave
Egunero: 18:00.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:50.

Abraham Lincoln
Egunero: 20:15

Ice Age 4
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

John Carter
Egubakoitz eta zapatutan: 18:00.
Domeketan: 21:00.
Eguaztenean: 18:00.

Prometheus
Domeketan: 18:00.
Martitzenetan: 21:00.
Eguenetan: 18:00.

Blancanieves y la leyenda del cazador
Astelehenetan: 18:00.
Eguaztenetan: 18:00.

American Pie: el reencuentro
Martitzenetan: 18:00.
Eguenetan: 21:00.

KRITIKA

BRAVE ★★★★★

Estudioa: Pixar Animation Studios, Walt Disney Pictures.
Herrialdea: Estatu Batuak.
Urtea: 2012.
Iraupena: 100 minutu.

Pixar estudioen azken maisulana

Pixar etxearen azken sorkuntzak Merida izeneko neskato trebe eta oldarkor baten istorioa kontatzen digu. Eskoziako Fergus erregearen eta Elinor erreginaren alabak hango jauntxoen antzinako ohitura bat hausten du. Ondorioak kaotikoak izango dira, eta amorrua eta haserrea eragingo ditu erreinuan. Hori gutxi balitz, Meridak atso jakintsu bati laguntza eskatuko dio eta azken honek zoritxarreko gurari bat emango dio Meridari. Hortik aurrera, batetik bestera, era guztietako arriskuei aurre egin beharko die eta abilezia eta bitarteko guztiak erabili, madarikazioa ikaragarri batekin amaitzeko.

Pixar etxearen azken lana ikustera gogotsu doa bat zine aretora. Badaki gutxienez ona izango den film bat ikustera doala; komedia eta irakaspena nahastu izan ditu Pixarrek azken sorkuntzatan eta honek ere bide bera egiten du. Gainera, *Cars 2*-ren ostean –azken horrek ez zituen horren kritika onak eragin–, ez du lepoa jokatu gura izan eta berriz ere, *Wall-E*, *Toy Story* edo *Monster* bezalako film bikainen ildoa hartu du azken honek, publiko guztiendako bideratutako film bat egitea lortuz. Korapiloa agian linealegia eta ez ausarta egin daiteke une batzuetan baina animazioaren diseinuak jarraitzen du halako esentzia eta izpiritu bat mantentzen, non aipaturikoa ezerezean gelditzen den. Eta Eskoziaren irudikapenaz zer esanik ez. Oihana, han bizi diren izakiak, erreka, mendi eta bestelakoak bikain irudikatuak agertzen baitira, animazio dotore baten bidez, noski.

Bestelakoan, istorio femeninoa da *Brave*. Bereziki Meridaren eta haren amaren arteko harremana oinarri duena. Erregeak (aitak), Meridaren anaia hirukiek –eszena barregarrienak hauek tartean daudenean gertatzen dira–, eta gerlariek presentzia baduten arren, ama-alaben arteko elkarrizketa eta gertakariek garrantzia handia dute filmean. Ikusi behar diren film horietakoa!

MIREN ARREGI

TIRA-BIRAKA

goiena
2012-09-21

BUKATZEKO

DJ, abeslari eta dantzari... dena batera

- Javier Idigoras oñatiarrak ezkontza, festa eta agur-ospakizunetan animatzaile lanak egiten ditu
- 20 urte zituenetik hona bost musika taldetan aritu da eta artista mundua bihotzetik bizi izan du

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Txiki-txikitatik artista mundua bihotz-bihotzetik bizi izan duela kontatu digu Javier Idigoras oñatiarrak, eta, hortaz, sekula ez dio artista izateari utziko. Duela bi urte erretiratu zen; erretiratuta Ulma enpresatik, baina ez taula gainetatik. Azken aldiz Arrasateko Zarugalde auzoko jaietan ikusi genuen musika ipintzen eta auzotarrekin dantza egiten; sekulako giroa ipini zuen.

Animatzailea nahiago

DJ Javi Sound da haren izen artistikoa; izan ere, duela sei urtetik hona, festa, ezkontza eta agur-ospakizunetan musika ipintzen eta DJ lanetan ibiltzen da.

Dena dela, ez du oso gustuko *DJ* hitza, hark dio animatzailea dela gehiago: "DJek musika ipintzen dute eta ikusleek entzun. Nire kasuan ez da horrela izaten. Oso aktiboa naiz eta musika ipintzeaz gain dantzan egiten dut, abestu egiten dut eta publikoarengana jaitsi eta jendearekin dantzan ere ibiltzen naiz. Ez naiz taula gainean geldi egotekoa. Michael Jacksonen moduan dantza egiten ikustea ez da batere arraroa. Gizon batek gau batean esan zidan egiten nuen guztia egiteko gutxi kobratzen nuela [Barre]". Bakarrizketa bat ere badauka prestatuta.

Javier Idigoras, musika ekipoarekin. | ARRITXU BARRUSO

Juan Magan eta 'Takata'

Ez da oso ohikoa Idigorasen adineko DJak topatzea, baina gazteek adinako indarra edo handiagoa dauka oñatiarrak: "Lehen aldiz ikusten nautenean uste dute gau guztia pasodobleak dantzatzen pasatu beharko dutela, baina gero harritu egiten dira. Boladan dauden eta tabernetan entzuten diren abestiak ipintzen ditut". Kontatu digu uda honetan, esaterako, *Takata* abestia izan dela arrakastatsuena: "Oso ondo funtzionatzen duen abestia da. Jendeak oso ondo erantzuten du. Jennnifer Lopez, Juan Magan eta Bob Sinclair ere asko ipintzen ditut nire saioetan".

Hamar orduko emanaldia

Gazteek besteko indarra duela esaten dugunean ez da txantxetako kontua. Oñatiko San Lorentzo auzoko jaietan hamar orduko emanaldia eskaini zuen: "22:30ean hasi nintzen musika ipintzen eta 08:30ean bukatu. Sekulako giroa zegoen eta oso gustura egon nintzen. 04:00 inguruan gazteak batu ziren erromeriara eta dantza eta dantza ibili ziren".

Bizi osoa musikari lotuta

Azken sei urteetan DJ moduan badabil ere, gaztetatik musikaren munduan murgilduta ibili da oñatiarra: "20 urte nituenetik hona, bost musika taldetan parte hartu dut, beti bateria-jotzaile. Azkeneko taldean, Jose Mari Pelaezekin, abestu ere egiten nuen".

Artista izatetik bat ezin da inoiz erretiratu, eta Dj Javi Sound da horren adibide garbia.

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Ezkertiarrak eta eskumakoak

Batzuetan iruditzen zait jada ez dagoela alderik bataren eta bestearen artean. Botoa emateko orduan bakarrik igartzen dela. Zerk ezberdintzen ditu ezkerrekoak eta eskumakoak, eguneroko bizimoduan? Lantegian elkarren ondoan. Tabernan, zineman, supermerkatuan ere bai. Batzuek dotore jantzita, besteak informalago. Baina denok gaude ongizatearen gizartean. Eta norberaren ongizatea da inportanteena, noski.

Pantaila lauko telebista, besteak asko okupatzen du ta. Eskuko telefonoa, Whats-Apparekin. Furgoneta, ondo ekipatuta. Egun-pasa, zentro komertzialera. Ezkontzen bagara, ez dadila langostarik falta. Erregeak eta Olentzero, biak badaezpada. Altzariak erostera, Ikeara; aspertutakoan aldatuko ditugu. Arropa, markakoa bada hobe; kalerako zein mendirako. Autopista ostia hori... baina lehenago iritsiko gara!

Zein zaila den koherentea izatea. Predikatzen dugun hori egitea. Gurpil zorotik ateratzeko ahalegin handia egin behar delako. Baita erabaki txikienetan ere. Hori bai, badaude erdi koherenteak diren batzuk. Handitzen naizenean, horiek bezalakoa izan nahi dut.

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?

Esan baietz betiko
Rosa Sarabia doktoreak
kontsulta berria ireki du:
PronoKal metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.
CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa
PSE: 37/04